

Zu hemen zaude. goiena

KANPOKO JOLASAK LAGUNARTEAN UDALEKUETAN

Ia 1.800 haur eta 250 begirale arituko dira datozen
asteetan, duela bi urteko joerara itzuliz,
osasun-krisiari egokitutako neurriekin bada ere / 2

Elgetako udalekuetan ari
diren neska-mutikoak
Asentzión, eguaztenean.

XABIER URZELAI



**Pello Mari Otañoren
bizitzan oinarritutako
filma auzolanean egin
gura du Patxi
Bisquert aktoreak / 41**

SINADURAK



IBON
ARRUPE / 13



IDOIA
PEÑAKOBA
ETXEBARRIA / 8



AINZANE
OIARBIDE / 48

**Azken astean behera
kutsatu kopuruak eta
intzidentziak, nahiz
eta gora egin azken
egunotan / 4**

**Arrasateko Txetako
bizilagunak, ospitale
ondoko berdegunean
aparkalekuak
egitearen aurka / 12**

**Maialen Axpek
urrezko domina
irabazi du pertika-
jauziko Espainiako
Txapelketan / 38**



Toki-ezizenen
mapa, kalean
ez galtzeko

Amaia Inza
Bartolomeri
elkarriketa

MERKEALDIA
MERKEALDIA
MERKEALDIA



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

B.P.S. 91/70

Uztaila iristeaz batera, abian dira berriro ere udaleku irekiak

Osasun krisiaren testuinguruan antolatu dituzte aurtengo udaleku irekiak eskualdeko herri guztietan. Ia 1.800 haur eta 250 begirale arituko dira kalean datozen asteetan

Maialen Santos ARRASATE

Iazko etenaldiaren ostean, ekin diete berriro ere udaleku irekiei. Debagoieneko herri guztietan izango da eskaintza, eta denera, eskualdeko ia 1.800 ume eta 250 hezitzailek hartuko dute parte. Herri batzuetan martxan dira dagoeneko, eta besteetan, datozen egunetan jarriko dira abian.

Herrietako udal eta elkarteetako ordezkariak, udalekuetako koordinatzaileak eta begiraleak bat datoz aurtengoek ahalgin berezia eskatu dutela esateko orduan. Izan ere, osasun krisiaren testuinguruan, lehen aldiz antolatu dituzte aurtengo udalekuak, iaz zaintza zerbitzuak eta beste izan ziren arren.

Gauzak horrela, baldintza bazuak beteta arituko dira datozen asteetan. Batetik, aurreko urteetan baino haur gutxiagok hartuko dute parte udalekuetan –edukiera mugen eraginez–, eta, hori gutxi balitz, haurrak gehien ere hamar kideko burbulla-taldeetan mantenduko dituzte. Era berean, talde bakoitzak bere material propioa izango du, eta koordinatzaileek, hezitzaileek zein Lehen Hezkuntzatik gorako haurrek maskara

erabili beharko dute une oro, baita eskuak sarri desinfektatu ere. Azkenik, haur bakoitzak bere hamarretakoa eta ur botila etxetik eraman beharko ditu.

Elgetan, hasten lehenak

Elgeta izan da udalekuei hasiera ematen lehena bailaran. Hain justu, joan den ekainaren 21az gerostik, 69 neska-mutiko ari dira parte-hartzen. Aldiz, hezitzaileak bederatzi dira, Nerea Villa koordinatzaileak esan duenez: "Jaurlaritzaren dekretuak markatutakoa betetzeko, Udalak handitu egin du hezitzaile taldea". Aurtengo gai datza euskal mitologia da, eta, hain zuzen ere, horri lotuta daude taldeen izenak; besteak beste, Galtzagorri, Mari eta Tartalo. "Frontoi zaharra izango da sarrera-irteerak egiteko puntua. Talde bakoitzak markatuta izango du dagokion lekua", zehaztu

"UMEEN GAITASUN ETA AHALMENEI AITORTZA EGIN GURA DIEGU UDALEKUETAN"

IÑAKI TELLERIA, TXATXILIPURDIKO KIDEA

du Villak. Ahalik eta ekintza gehienak "aire zabalean" egingo dituztela esan du: frontoi zaharrean, Maalan, ludotekako parkean, eliza ondoko parkean, San Roke ostean...

Aste honetatik martxan

Astelehen honetan, hilaren 28an, abiatu dituzte udalekuak Oñatin eta Bergaran, eta eguaztenean, aldiz, Antzuolan.

Oñatiko udaleku irekietan 400 haur eta 65 begirale inguru ari dira astelehena ezker. Aurtengo bi eremu bereizi dituztela azaldu du Nerea Carmona koordinatzaileak: "Eltzia eta gaztelekua izango dira erreferentziazko gune zentralak, nahiz eta talde bakoitzak gainontzeko kideekin elkartzeko elkargune propioa izango duen; Eltzia edo gaztelekua inguruko tokiren bat, alegia". Eta Maddi Txintxurreta koordinatzaileak gaineratu du aurtengo

"BERRITASUNA IZANGO DA 2 URTEKO UMEEK ERE HARTUKO DUTELA PARTE"

OIHANA AMEZKUA, ARAMAIOKO ZINEGOTZIA

ere "auzoen aldeko apustua" egin dutela: "Iaz ere hala egin zen, eta positiboki baloratu genuen. Hainbat ibilaldiren bidez eta herribus zerbitzuaz baliatuta, herrigunearan pilaketak ekidin eta herriko zenbait txokoz gozatzeko aukera izango dugu". Zenbait "ekintza berezi" berreskuratuko dituztela ere esan du Carmonak: "Uraren Eguna, igerilekura irteera eta zirku tailerra antolatu ditugu, eta, hori gutxi balitz, aurtengo iaz baino material gehiago erabiltzeko aukera izango dugu".

Bergarari dagokionez, Jardun Euskara Elkarteko kide Saioa Garitanoren hitzetan, 375 haur eta 50 begiralek hartuko dute parte aurtengo udalekuetan. Herri horretan ere adinka banatu dituzte taldeak, eta herriko hiru ikastetxeak izango dira erreferentziazko guneak. "Bergarako ikastetxeekin egin dugu lanketa, eta euren eraikinak utzi dizkigute haurrak elkartu eta eskoletako gelak erabili ahal izateko", zehaztu du. Osintxun eta Angiozarren ere talde bana izango da, gainera, eta denek egingo dituzte ekintzak aire zabalean: "Herriko espazio asko erabiltzen ditugu, beti gura izan dugu herriarekin eta herritarrekin harremanetan izan". Horretaz gain, kanpora irteerarik ez dute egingo; bai, ordea, egun-pasaren bat: "Bi maila ezberdin San Martzialera joango dira, egun pasa".

Adinaren arabera bi txanda egingo dituzte udalekuetarako Antzuolan, eta horietako bakoitzak astebete iraungo du. Denera 161 ume eta 20 hezitzaile arituko dira. Idolaz Aisialdi taldeko kide eta udalekuetako koordinatzaile Zumaia Elkorok azaldu du "herri osoan zehar"

Komunikazio udalekuak

Astelehenean hasiko da Goienak eta Mondragon Unibertsitateak antolatu duten Komunikazio campusa, MUren Aretxabaletako Ikus-entzunezko Komunikazioko Campusean. Lehenengo edizioan, zazpi lagunek hartuko dute parte.

Bestelako udalekuak ere badaude

Udaleku irekiez gain, bestelakoak ere egingo dituzte datozen asteetan bailaran. Honako hauek dira horietako batzuk:

Antzerki udalekuak

- Arrasaten ari dira egiten lehen aldiz, eta 21 ume ari dira parte hartzen, Doke antzerki eskolako kideek gidatuta.

Kirol campusa

- Bergaran ari dira egiten. 249 haurrekin hasi dute eta parte-hartzaileak hainbat joko eta kirol praktikatzen arituko dira.

Gazte udalekuak

- Aramaion egingo dituzte, eta hamabost nerabek hartuko dute parte. Musika izango dute ardatz.



UNED-BERGARA ikasi zure erritmora, zauden tokian zaudela

MATRIKULAZIO EPEA IREKITA

- 28 gradu, 78 master, doktoretza...
- Etengabeko formakuntza
- Urrutiko hizkuntzak
- 25/45 urtetik gorakoentzako Unibertsiterako Sarbide ikastaroa



ONLINE aurkezpena

Uztailak 8, osteguna, 19:00

www.uned.es/ca-bergara

Konekta zaitez

943 76 90 33 ■ info@bergara.uned.es

arrituko direla egun horietan, eta ekintza berezi batzuk ere prestatu dituztela: besteak beste, ur-jolasak, zikin eguna, mendi irteera... "Azken jaia ere egingo dugu, uztailearen 15ean", iragarri du Elkorok.

Hasteko prest daude

Debagoieneko beste herri batzuetan astelehenean hasiko dituzte udalekuak; Aretxabaletan, kasu. 325 umek eman dute izena eta 37 begirale arituko direla adierazi du Udaleko Gazteria teknikari Maider Etxanizek. Julen Peralesek, Loratuko arduradunak, gehitu du aurten ezingo direla ume guztiak plazan elkartu, eta herriko hainbat eremutan banatuko dira. Esan duenez, talde batzuek erabaki dute gai jakin bat lantzea udaleku osoan zehar. "Urtero moduan, jaialditxo indibidualak egingo dituzte, taldeka, eta azken jai bat ere egingo dute, mailaka antolatuta", esan du.

Eskoriatzan, bestetik, 150 ume inguru eta 21 begirale arituko dira, eta joan den urteko ordutegia luzatu egin dutela azaldu du Etxanizek: "Iaz baino ordu-



Elgetako udalekuetako haurrak, Asentzioko putzuan, eguazten goizean. XABIER URZELAI

bete gehiago izango da egunero, umeek ekintza gehiago egiteko aukera izan dezaten". Ekintzak, baina, beste urte batzuetan egin dituzten antzekoak izango dira; tartean, mendi irteerak, igerilekura irteera, herri kirolak...

Horretaz gain, Arrasateko udalekuetan 200 haur arituko dira, 30 hezitzailez lagunduta. Txatxilipurdi Elkarteko kide eta udalekuetako koordinatzaile Iñaki Telleriak adierazi du herri horretan ere hiru topale-

ku izango dituztela: Jokin Zaitegi plaza, Arimazubi plaza, eta San Antolin eskola. Gaineratu du euren filosofiari jarraiki antolatu dituztela udalekuak; alegia, haurren parte-hartzean oinarrituta: "Haurtzaroaren

kulturaren sinesten dugu; hau da, umeen gaitasun eta ahalmenei aitortza egin gura diegu, eta, horrenbestez, eurekin programatuko ditugu ekintzak".

Leintz Gatzagan, berriz, udaleku irekietan izena eman duten hamar haurrak goizez zein arratsalde arituko dira –egubakoitzetan salbu–, eta bi hezitzaile izango dituzte lagun, nahiz eta udalekuek hilaren 16ra arte soilik iraungo dute. Gurel Guraso Elkarrekin adierazi du martitzenean eta eguenean irteerak egingo dituztela.

Aramaion, eguaztenean

Udalekuei ekiten azkenak izango dira aramaioarrak; datorren eguaztenean iritsiko zaie txanda. Herrigunean zehar askotariko ekintzak egiten arituko dira hurrengo asteetan 100 haur eta hamabi begirale, eta aurtengo berritasuna izango da 2 urteko haurrek ere hartuko dutela parte udalekuetan, Oihana Amezkua Udaleko Euskara eta Hezkuntza zinegotziak adierazi duenez. Otxandioko igerilekuetara egingo duten irteera izango da egingo duten "ekintza bereziarena".

**ERRESERBA EGIN,
BERRIZ BIZI
IZATEKO**

Zureekin, bizitzaz eta zoriontasunaz gozaten duzun arratsalde horietan.

Oraindik ere hunkitu egiten gaituzten gauza txiki horiek.

#RESERVALARIOJA
www.lariojaturismo.com

Informazio gehiago


LA RIOJA



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	6	3	3.120	141	40
Bergara	3	2	1.606	106	33
Antzuola	3	2	245	112	229
Oñati	2	10	1.404	122	104
Aretxabaleta	1	3	798	112	56
Aramaio	1	1	173	116	135
Eskoriatza	0	0	399	97	0
Elgeta	0	0	64	56	0
Gatzaga	0	0	11	44	0
GUZTIRA	16	21	7.820	120	57

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Duela urtebeteko kopuru baxuetan, egoera okertu den arren egunotan

Hamasei kasu positibo berri atzeman dituzte, joan den astean baino bost gutxiago. Hala, iazko uztaileko antzeko kopuruak erregistratzen ari dira Debagoiengan; izan ere, iazko uztail erdialdea ezker ez da horren kutsatu kopuru txikia izan astebete

Maialen Santos ARRASATE

Azken zazpi egunetan hamasei kasu berri hauteman dituzte eskualdean. Joan den astean baino bost kasu gutxiago dira; 21 izan baitziren. Hori horrela, hirugarren astez jarraian behera egin dute kutsatu berriek.

Herrika, Arrasaten sei positibo berri baieztatu dituzte, Bergaran eta Antzuolan hiruna, Oñatin bi eta Aretxabaletan eta Aramaion bana. Gainontzeko herrietan ez dute positiborik izan azken astean. Gauzak horrela, iazko martxoan pandemia hasi zenetik 7.820 lagun kutsatu ditu gaitzak Debagoiengan, eta 170 hil; nahiz eta azken astean ez den inor zendu.

Debagoieneko Ospitalean, bestetik, ez dago birusak jota in-

gresatutako gaixorik, hirugarren astez jarraian.

INTZIDENTZIA-TASAREN EBOLUZIOA ESKUALDEKOA (57), LURRALDEETAKO TASEN AZPITIK

Azken egunetan, oro har, behera egin du eskualdeko azken hamalau egunetako ehun mila biztanleko intzidentzia-tasak, eta 57,09an kokatu zen atzo -azken bi egunetan zertxobait gora egin badu ere-. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako tasaren azpitik zegoen. Gipuzkoako eta Bizkaiko tasek gora egin dute joan den asteaz geroztik; Arabakoak, behera, eta Nafarroakoak, aldiz, gorabeheratsua

izan da. Aipatzekoa da, gainera, EAEko 5.000 biztanleko gorako herrien artean hirugarren tasa baxuena Bergarak zuela atzo -33,25ekoa-, Mutrikuren eta Zumarragaren atzetik.

Datorren eguaztenean, hilak 7, batuko da Labi, indarrean dauden neurrien eraginkortasuna neurtzeko.

TXERTAKETA KANPAINA

EAE-KO HERRITARREN %48,3K BUKATU DUTE TXERTAKETA ZIKLOA

Dagoeneko bi milioi baino gehiago dira Osakidetza jarri dituen txertoak. Iritsi diren 2.197.730 dosietatik, 2.071.204 jarri dira Euskal Autonomia Erkidegoan

(%94,2). Bestetik, 1.267.740 lagunek jaso dute ziztada bat eta 914.418 dira txertaketa prozesua bukatu duten herritarrak. Osasun Sailak jakinarazi duenez, 16 urtetik gorako herritarren %67k jaso dute dosi bat gutxienez eta EAEko biztanleen %48,3k bukatu dute txertaketa prozesua. Bestetik, orain arteko datuek erakusten dutenez, %1,6 izan dira txertoa jarri ez dutenak -kontraindikazioengatik edo uko egin diotelako-.

Bestetik, Labi Aholku Batzordeko koordinatzaileak astean esan du Osakidetza eta Jaurlaritzako Osasun Sailak "lehenbailehen" hasi nahi dutela 20 eta 29 urte arteko gazteak txertatzen, eta aurreikusten du abuztuan hartuko duela txertoa ko-

lektibo horrek. Talde immunitatea, berriz, uda amaitu orduko lortzea aurreikusten du.

Bien bitartean, 30 eta 39 urte arteko herritarrei txertoa ematen jarraitzen du Osakidetza, baita adin horretatik gorakoak ziztatzen ere.

ZIURTAGIRI DIGITAL BERDEA

COVID PASAPORTEA INDARREAN DA, ATZO EZKERO

Uztailaren 1arekin batera indarrean sartu da Europan zehar berrogeialdirik egin gabe bidaiatzea ahalbidetuko duen agiria. Hego Euskal Herrian dagoeneko 190.000 pertsona inguruk eskatu dutela iragarri dute.

Gazteen txertaketa aurreratu guran

Azken egunetan izandako kasuen gorakadak kezka eragin du Jaurlaritzan; batez ere, gazteen artean egin baitu gora intzidentziak. Alegia, oraindik txertatu gabe dauden artean. Zehazki, 17 eta 18 urte dituztenen tasa 977koa zen atzo. Hori horrela, gazteen txertaketa aurreratzeko eskaria egin zuen Gotzone Sagardui Osasun sailburuak eguaztenezko Lurralde Arterko Kontseiluan, orain arte txertaketa plangintzaren baitako ordena mantentzearen aldekoa bazen ere -adinez nagusienetik gazteenetara, adin tarteka-. "Komenigarria litzateke txertaketa irizpideak berrikustea", esan zuen, eta gehitu gazteen artean harreman sozialak areagotzen ari direla eta horren ondorioz sortzen ari diren kutsatzeak geldiarazi egin behar direla.

Arrasatekoak gara



MULTIÓPTICAS

50 urte zurekin



Informazioaren %80 begien bidez jasotzen duzu, horregatik da garrantzitsua begiak ondo zaintzea.

Bizi dugun pandemiaren eta konfinamenduaren ondorioz, denbora luzea ematen dugu pantailen aurrean. Smartphoneak, tabletak, ordenagailuak eta telebistak gure bizitzan ezinbesteko bihurtu dira harremanetarako, ikasteko, lanerako, jolasteko, erlaxatzeko... Orokorrean, bizitza ikusteko.

ikusmen
azterketa sakona

doan

Multiópticas Arrasaten zutaz eta zure ikusmenaz arduratzen gara. Desberdina zarenez, Arrasatekoa zara, ikusmen azterketa sakona eskaintzen dizuegu zuri eta arrasatear guztiei.

*Ez izan zalantzarik,
zure begiek eskertu egingo dizute*

Zure leialtasuna saritu nahi dugu, horregaitik, onura hauek izango dituzu:

%20ko
*desk. ukipen
lenteetan*

85€-tan
baloratutako
erretinaren
azterketa

doan

%50eko
*desk. bilduma
berrielako eguzkilako
belaurrekoetan*

%20ko
*desk.
kristaletan*

Zure bisitarekin lortu
Opariak eta deskontuak

Zure ikusmen azterketa
egiteko deitu
943 79 29 95
telefono zenbakira edo etorri
Otal. Lizentziaduna 18ra



GIPUZKOAK

BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,

**European
desberdintasun
maila txikienetariko**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputazioa Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es Futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa



ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA

Zoriontasun nazional gordina

Lekunberriko ekimen interesgarri baten inguruko albistea entzuteko parada izan nuen orain gutxi: herriko Ongizatearen Plan Estrategikoa, herritarren zoriontasun eta ongizatea areagotzeko helburua duen plana. Nola neurtzen da, baina, herri bateko zoriontasun maila?

Ezaguna zaigu herrialde baten aurrerapena eta aberastasuna neurtzeko ohikoa den Barne Produktu Gordinaren indizea, adierazle ekonomikoak soilik neurtzen dituen, baina ba al dago haratago doan neurketa alternatiborik?

Gero eta gehiago entzuten ditugu beste aldagai batzuk neurtzeko indizeak –garapen jasangarriarekin lotutakoak, asko–, baina gaur, Barne Zoriontasun Gordinaren (BZG) indizean jarriko dut lupa.

1972an sortu zuen, 17 urte zituela, errege izendatu zuten Himalaiako Bhutan herrialde txikiko monarkak. Munduko

GIZARTE ZORIONTSUENAK EZ DIRA EKONOMIKOKI GARATUEN DAUDENAK

erregerik gazteenak, aitzak abian jarritako garapen eta modernizazio prozesuarekin jarraitu nahi zuen arren, garapen ekonomikoak soilik ez zuela bere herriaren zoriontasuna bermatuko uste zuen.

Horrela, BZGren filosofia ezartzeari ekin zion eta indize berria modu sistematikoan neurtzen hasi zen, hainbat adierazle barneratuz: ongizate psikologikoa, denboraren erabilpena, osasuna, hezkuntza, erresilientzia, aniztasun ekologikoa, kultur aniztasuna, eta abar.

Bere helburua? Hiritarren zoriontasun maila neurtu eta hobetzea. Ez al da hori, bederen, gu guztion helburua bizitzan? Eta ez al da gobernuaren erantzukizuna ere bere biztanleak zoriontsuago izateko lan egitea? Japonian *zoriontasunaren ministro* bat omen dago...

Gizarte zoriontsuenak ez dira ekonomikoki garatuen daudenak, diru gehien duten pertsonak zoriontsuenak ez diren bezala. *Diruak ez du zoriontasuna bermatzen* esatera zaharra entzuna da guztiontzat eta badirudi Bhutanen eta Lekunberri bazeztapen horren errealitateaz jabetu ere egin direla! Bejondeizuela!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

SKOLAEREKIN NAZKATUTA

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ez dut interes berezirik Nafarroako Gobernuaren Skolae hezkidetza-programa defendatzeko; are gehiago, ziur aski, errore bat baino gehiago izango ditu, edo asko, baina 0-3 urte bitarteko haurrei joko erotikoak egitea proposatzen diela berriro entzun ondoren, nazkatu egin naiz.

Horixe da FamiliaE elkarteak eta Concapak (Familia-gurasoen Konfederazio Katolikoa) esan zutena duela aste gutxi Nafarroako Legebiltzarrean eta komunikabideren batean.

Skolaeri buruz egin nuen erreportaje batean orain dela hiru urte, Maite Pascualek, Txantreako Santa Teresa haurtzaindegiko zuzendariak, hori erabat faltsua zela esan zidan, eta zalantzan jartzen ari zirela hezitzaileen profesionaltasuna eta etika.

Elkarte horiek, halaber, proiektua gurasoei ezkutatzea kritikatzan dute. Bitartean, Doña Mayor ikastetxeak ziurtatzen zuen ezinbestekoa dela gurasoen parte-hartzea eta inplikazioa proiektu honetan.

Halaber, FamiliaEk eta Concapak salatzen jarraitzen dute Skolae zer ordutan ematen den esateari uko egiten dioten ikastetxeak daudela. Eta

hau ezinezkoa da, Skolae ez baita irakasgai bat.

Skolae izan daiteke, adinaren arabera, zientzian edo matematikan erreferenteak diren emakumeak ikastea, lan-munduan estereotipoak haustea edo desberdintasun-egoerei aurre egiteko tresnak izatea. Eta tresna horiek ikasgai guztietan sartzen dira.

Eta bai, Skolaek ere sexualitateari buruz hitz egiten du. Adinaren arabera, sexu-orientazioa, sexu-desioa, adostasuna, sexu-osasuna edo partekatutako plazera lantzen ditu.

Ezinbesteko gaiak, gure seme-alabentzat sexualitatean erreferentzia pornografia den honetan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailtako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Eskubideen alde borroka egiteko gaude antolatuta"

MANEX AGIRRE MORBOR KOLEKTIBOKO KIDEA

Hasier Larrea ARRASATE

Joan den asteleheneko LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna harira, pil-pilean dauden gaien inguruan mintzatu da Morbor kolektiboko kide den Manex Agirre (Arrasate, 1988).

Ekainaren 28a zer da, ospakizun ala aldarrikapen eguna?

Jaia egiteko ere baden arren, aldarrikapen eguna da, batez ere. Festarekin lotzea kapitalismoaren diskurtso interesatua da, parodia bihurtu nahi baitute duela mendi erdi baino gehiago gertatutako Stonewall-eko matxinadaren urteurrena.

Zer dela-eta sortu zenuten Morbor?

Herri-mailan zarata atera eta gauzak aldatzeko. Kitzikan taldea osatzen genuenok lumak enterratu genituen, baina mugitzeko harrak hor jarraitu zuen, eta pandemia aurretik eratu genuen taldea. Hamar bat pertsonak osatzen dugu Morbor; katxondeotik sortutako izena da.



Manex Agirre, hilaren 28an, 'Hemen Debagoiena'-n egindako elkarrizketan. IBAI ZABALA

Elkarretaratzea deitu zenuten Ekain Begino basauriarrak eraso homofoboa izan zuenean. Zer erakusten dute eraso horiek?

Gorrotoak hor jarraitzen duela. Gorroto diskurtsoek indarra hartu dute azken

urteotan; esan genezake homofoboak ere armairutik irten direla. Horren aurrean, gu ere antolatuta gaudela aldarrikatu nahi dugu, gure eskubideen alde borrokan jarraitzeko gogoz.

Kolektiboko kideok jaso al duzue halako erasorik?

Nik dakidala, fisikorik ez. Baina biolentzia sinbolikoa hor dago: begiradak, barretxoak, komentarioak... Ez dira hain esplizitu eta bortitzak, baina alde guztietatik zeharkatzen gaituzte.

Homofobia zantzu oro salatzea da zuen helburuetako bat?

Bai, umetatik jasotzen baititugu halako mezuak. Pertsona batek homosexuala den ala ez jakin aurretik, badaki marikoi izatea zerbait txarra dela. Gaia lantzen dugunok sarri konturatzen gara gure baitan ere badaudela zantzuak.

EAEn 2020an erasoak ia hirukoiztu egin direla azaldu du Euskal LGTBI+ Behatokiak.

Bi kontu bereizi behar dira hor: batetik, eskuin muturraren gorakada; eta bestetik, gaur egun salatzen diren kasu ugari agian duela bizpahiru urte ez ziratekeela salatuko, modu pribatuagoan bizi zirelako erasoak.

'Sexilioa' gurean ere bada?

Noski. Landa eremutik hirirakoa, batez ere. Biolentzia estrukturala dago herrietan, eta gure inguru soziala nahiko itxia da. Horrek eragiten du askok euren identitate sexuala ezkutatzeko, nahiz eta agerian

jartzeko beharrik ez egon. Eta Bilbo moduko hirietara joatea bizitzera.

Trans legearen aurreproiektua onartu du Espainiako Gobernuak. Ze balorazio egin duzue?

Ez dituela pertsona ez-binarioak kontuan hartzen. Badaude ez neska eta ez mutil sentitzen direnak, zuri edo beltzean baino gehiago, grisetan mugitzen direnak. Gure aurtengo leloak, *Nor zaren aukeratu duzu?*-k, gai horri egiten dio keinu.

Terfak ere bogan daude...

Diskurtso transfoboa darabilte, emakumea eta gizona bereizten baitute erabat. Euren burua feminizatzean jotzen dute, eta horrek dakar azken urteetan mugimendu feministak egindako lana deslegitimizatzea. Lotsagarria da, eskuin muturrak feminismoan txertatutako Troiako zaldi bat.

Galdera behartua: berdintasuna, noizko?

Pausoak ematen gabiltza gizarte guztia goitik behera aldatzeko, askatasuna eskuratzeko. Urteen perspektibarekin begiratuta, nik 15 urte nituenetik hona asko aldatu dira gauzak; akaso, hemendik urte batzuetara ez da egun hau ospatzeko beharrik izango.

ITURRI ONETIK

Bergaran grabatuko dute 'Go!azen'

EITB hasi da grabatzen *Go!azen* transmedia-proiektuko atal berriak, zortzigarren denboraldiari dagozkionak: *Go!azen 8.0*. Gasteizen hasi dira, martitzenean, eta abuztuaren 20ra arte iraungo dute grabazio-lanek. Oraingoan, Bergaran ere grabatuko dute; baita Donostian, Azpeitian eta Irunen ere. Hain justu, Mariaren Lagundia ikastetxea bihurtuko da Basakabi. Aktore berriak izango dira: Malen Azpirotz (Iraia), Joanes Echeveste (Ibai), Julen Castillo (Koldo)...

ALBISTE IZAN ZEN



2006-06-28

Elkarretaratzea Arrasaten, transexualen alde

LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna izan berri da astelehenean, ekainaren 28an, eta hainbat elkarretaratze eta erakunde-adierazpen izan dira. Orain dela hamabost urte ere aldarrikatu zuten egun hori. Arrasaten, esaterako, transexualen eskubideen defentsan jarri zuten fokua. Hain justu ere, oraingo astean onartu du Espainiako Gobernuak, Parlamentuan eztabaidatzeko, trans legearen aurreproiektua.

HAU BE BADOGU!

Eurokopako emozioa berbagai sarean

Selekzioen arteko txapelketak askotariko erreakzioak laga ditu txiolari euskaldunen artean:

@izargorri_: "Euskal Herriak Eurokopa edo Munduko txapelketa bat jokatzearekin amesten dut. Benetan. Imagina ezazue zer sentituko duen suitzar batek oraintxe bertan".

@benat_mujika: "A ze eguna futbola gustoko dugunontzat. Horrelako arratsaldeak eskaintzen ditu Eurokopa batek. Maila bikaina, emozioa amaierara arte... Geroz eta gutxiago falta da Euskal Herriko harmailetan futbolaz berriro gozatzeko!"

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE 2020ko urria ezkerro, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa da Nagore Ipiña. Arrasatearra, gainera, D2030ek bere misioan txertatu duen gai baten aditua da: digitalizazioan.

D2030ek eskualdeko garapen iraunkorra du helburu. Zein ekarpen egin dezake zuen unibertsitateak ipar horretara bidean?

Mondragon Unibertsitatea ezinbesteko aktorea da eskualdeko garapen iraunkorrean. Hasteko, sustraiak bertan dituelako – eskualdeko lau herritan ditugu campusak– eta, gainera, gure balioetan jasota dagoelako eskualdearen garapena sustatzea. Horregatik, eta Debagoienaren eraldaketa adimentsu, inklusibo eta klimatikoki neutroa lortzeko bidean, unibertsitateak alderdi ezberdinetan egin dezake ekarpena. Unibertsitateak, adibidez, XXI. mendeko erronka konplexuei erantzuna bilatzeko egiten dituen lanen bidez, ikerketen bidez edo sortzen dituen testuinguruen bidez, aurrerapausoak emateko gakoak izan daitezkeen pistak eman ditzake.

Zein uste duzu dela hezkuntza komunitate baten egitekoa gizarte baten garapenean?

Hezkuntza da, edo izan beharko luke, behintzat, edozein eraldaketa prozesuren gako garrantzitsuenetako bat. Hezkuntza komunitateak aukera ematen digu gure munduaren ikuskera zabaltzeko eta, ulermenetik eta hausnarketatik abiatuta, eskualdea, ingurua, jendartea eta mundua ulertzen eta garatzen. Testuinguru horretan, erronka konplexuen inguruko proposamenak eraiki daitezke. Izan ere, hori da hezkuntza komunitatearen egitekoa: proposamen edo erantzun berriak sortzea.

Gazteekin lan egiten duzula, hezkuntza komunitate konprometitu baten zaudela esango zenuke?

Gizartean bezala, gazteen artean ere denetik dago; batzuk oso konprometituak eta beste batzuk ez hainbeste.

"Edozein eraldaketa prozesuren gako garrantzitsuenetako bat da hezkuntza"

NAGORE IPIÑA HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO DEKANOA Hezkuntzak gizartearen eraikuntzan eta eraldaketa gaitasunean duen indarra kontuan hartuta, ezinbestean behar zuen Mondragon Unibertsitateak D2030en



Nagore Ipiña, Huheziko dekanoa. HUHEZI

Badago, ordea, esango nuke nik, inplikaziorako eta parte izateko nahi bat. Eta hori izan daiteke giltza, konpromisoa sustatzeko. Esan beharra dago, hezkuntza komunitate orokorrean hartuta, oso

komunitate konprometitu eta inplikatu dela. Gazteek eta hezkuntza komunitateak berezko dute konpromisoa eta eraldatzeko nahia.

Nola baloratzen duzu, besteak beste, elkarlana artikulatu gura

duen ekimen bat jaio izana eskualdean?

Elkarlana beti da positiboa, eta horretan, gainera, eskarmentu handia dugu gure eskualdean –kooperatibak, euskararen aldeko normalizazio ekimenak, herri komunikabideak, Mankomunitatearen proiektuak...–. Alde horretatik, oso begi onez ikusten dut elkarlana sustatzeko egiten ari den ahalegina. Jakina, era horretako proiektuen artikulazioa ez da erraza izaten, baina, duda barik, poztekoa da D2030 moduko ekimen batek hain jatorri desberdinetako pertsonak batzea.

Gure eskualdeak etorkizuneko erronkei aurre egiteko zoru ona duela eraikitza esango zenuke?

Gorago aipatu dudana moduan, sinetsita nago gure eskualdeak, historikoki, ekarpen handia egin duela gizartean; momentuan momentuko erronkei erantzunda eta, kasu askotan, gainera, aurre eginda. Aurrerago aipatutakoez gain, birkualifikazio eta hezkuntza berrikuntza dira bi adibide inportante. Batetik, birkualifikazioa kalitatezko enplegarritasunaren iturri delako eta, bestetik, hezkuntza berrikuntzak aukera ematen digulako, besteak beste, esperimentaziorako eta sorkuntzarako. Abiapuntu horretatik, eta garapena ikusita, zorua ona izateaz gain,

sakona eta esanguratsua dela esango nuke.

Digitalizazioan aditua zaitugu... Zer-nolakoa behar luke etorkizunak arlo horretan, denondako onuragarri izan dadin? Eskubidea da, bai, baina erreala da?

Digitalizazio osasuntsu eta jasangarri behar dugu, digitalizazio eredu bat oinarrituko dena begirada teknopedagogikoan eta ez erabilera instrumentalean. Horrek dakar, besteak beste, digitalizazioa inklusibo izatea. Hau da, sortu daitezkeen arrakalak ekiditeko estrategiak aktibatzea: zaintza digitala egitea –gurekiko eta besteekiko–, komunitate eta sare esanguratsuak eraikitzeke erabiltzea, ahalduntze digitala lortzea edo *growth-mindset* edo hazkunde mentalitatearen kultura sustatzea.

Zer erakutsi digu pandemiak digitalizazioaz?

Digitalizazioak ireki zuen potentzialtasun handiko agertokia eta hamaika aukera eskaini zizkion hezkuntza komunitateari. Argi geratu da kompetentzia teknopedagogikoen garrantzia. Izan ere, pedagogiak ematen die zentzua testuinguru digitalei. Teknologiek ez dituzte soilik rol didaktikoa edo instrumentalak: hezkuntza-proiektuaren oinarrian dago digitalizazioaren rola. Pandemiak erakutsi digu digitalizazioaren bidez egingarria dela hezkuntza eraldaketarako hain beharrezkoa den erantzun sistemikoa.

"BEGIRADA TEKNO-PEDAGOGIKOAN OINARRITUKO DEN DIGITALIZAZIO EREDU BAT BEHAR DUGU"

"HEZKUNTZA KOMUNITATE KONPROMETITUA ETA INPLIKATUA DA, OROKORREAN"

GUTUNAK

**Oroimiñez,
oroimenez,
esker onez...****HIRUNE IRIBECAMPOS GALLASTEGI
INTXAUSTIKO FAMILIA OSOAREN
IZENEAN**

ARRASATE

Intxaustitarren azkenak agur esan dusku. Aurretik beste sei fan zien, banan-banan, danak berbalagun apartak. Zenbat kontu danon artien; seguruenik, liburuxka bat egitteko adina. Gerrakuek, baserrikuek, auzokuek, kalekuek, eskolakuek, erromerixak... Zenbat jakinduria; damu gara gehixau ez galdetu izanaz.

Ezin dou ahaztu, ezin dou galdu zuengandik ikasittekue.

Bizitza, beti izen dana da oin be, harixe ez da eten.

Heriotzak utzi dauen hutsunie zuen oroitzapenekin eta irakatsitakoekin beteko dou.

Bizitzatik hasi eta daukagun onena, dakigun gehixena zeuei zor dutzuau.

Hurrenguek gara, eta ez, ez zaze urrin, juxtu-juxtu bidiaren beste aldien.

Hurrenguek be aurrera goiez fan zarien guztiokin.

Jaso doune ondorenguei pasauko dutzeu eta zuei: maitte zaittuegu, eskerririk asko eta bidaia on.

HANDIK ETA HEMENDIK

BAZAR ASIARRA**GARBIÑE UBEDA****HTTPS://LABUR.EUS/IHKLU****'BERRIA'-N ARGITARATUA**

Hendaia aldean ez dugu bazar asiarrak, horren ordez Gifi kate frantsesa dugu, konparatuz gero kontinentekoagoa eta sofistikuagoa dirudiena, funtsean gauza bera den arren: merke eta nagusiki Txinan produzitzen den jeneroaren nahas-mahasa. Eskulana, brikolajea, dekorazioa, etxerako gaiak eta luze irauteko helbururik ez duten gauza txikiak maitte ditugunok sarritan jotzen dugu halako tokietara. Nik neuk astean bizpahirutan, ez beti erosteko. Hegoaldeko bazar asiarran ez bezala, behin-behinekotasun handia dago Gifin: gaur kaxan

hartuko zaituen langileak – neska gaztea, gehienetan – ez dio beharbada sei hilabetez harago eutsiko, lan baldintzak bereziki onak ez diren seinale.

Horiatariko batekin, hain zuzen, hizketaldi bitxi samarra izan nuen aurrekoan. "Bonjour" esan zidan ordaintzeko txanda iritsi zitzaidanean. "Arratsalde on", erantzun nion nik, eta betiko jokaera ezeroso surrealistaren esperoan gelditu nintzen. Itsuski esanda, euskarak espainoldu egiten zaitu nahi baino gehiagotan, eta hortaz, gaztelaniaz erantzungo zaizu. Gaizki-ulertua zuzendu nahiko duzu, euskaraz egiten ez badaki frantsesez egin dezakeela adierazi, baina dagoeneko beranduegi izango da. Hark gaztelaniaz jarraituko du setati.

Baina ez. Behingoagatik euskaraz eman zitzaidan segida, halaxe: "Si klienteak nahi badu euskaraz, pues nik euskaraz, sin manias. Hogeï euro... con cuarenta y ocho". Alegia, hogeï euro eta berrogeita zortzi, errepikatu nion laguntze alde. "Bai, horixe da, eske zenbakiekin me lio un monton, batez ere en frances, porque frantsesez ez dakit tan ondo como euskaraz". Zenbakiak euskaraz eta frantsesez antzekoak direla esango niokeen, baina txintik atera gabe alde egin nuen. Ez dakit zerk hozkitu ninduen gehiago: bere mordoilokeriak, bere konformismoak ala bekaitzak. Hizkuntzaren zama eramateko moduagatik, hura bezain zoriontsu inoiz ez naizela izango jabetzeak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

! Post gehiago 8. orrialdean.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



Txaeta kalean bizi diren hainbat bizilagun, ospitale ondoko berdegunea atzean dutela. Ez dute gura hor aparkalekuak egiterik. E.A.

Aparkalekuak egitearen aurka daude bizilagunak

Ez daude ados ospitale ondoan 42 aparkaleku egiteko proiektuarekin, haien arabera, duten "berdegune bakarra" kenduko lieketelako; azaldu dute "airearen eta soinuaren foku kutsatzaile" bat litzatekeela, eta "auzotarren segurtasuna" ez lukeela bermatuko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bizilagunek bi arrazoi nagusi eman dituzte aparkalekuen proiektuari desadostasuna adierazteko: batetik, haien esanetan, foku kutsatzaile bat izango litzatekeelako, bai akustikoa eta bai airearena; eta, bestetik, alboan parke bat egonik, haur eta gazteen segurtasuna ez lukeelako bermatuko, "aparkalekuak txandakakoak izango liratekeelako eta, beraz, ibilgailuen joan-etorria etengabea" izango litzatekeela iritzita. "Kontziente gara aparkaleku beharra dagoela, ospitaleko larrialdien saila gertu dagoelako, baina gure iritzia aintzat hartzea eskatzen dugu, eta alternatibak bilatzea, egon badaudelako, eta asko", aldarrikatu du Carla Guzmanek, bizilagunetako batek.

Alternatiba nagusia, gainera, Zalduspeko geltokia izango denaren ondoan egongo litzateke, bizilagunen esanetan, han badagoelako aparkalekuak egiteko lekua. "Autobus geltokia izango

denaren ondoan dauden garai bateko fabrika eta tailer horiek aukera bat izan daitezke, eta ospitale ondo-ondoan daude".

Horrez gain, gune hori kirola eta ongizatea sustatzera bideratu beharko litzatekeela uste dute, baita haurren aisialdia sustatzera ere, etxebizitza horietan "haur asko" bizi direla iritzita. Azken batean, eremu berde bat egin gurako lukete hor. "Alboan beste etxebizitza batzuk egiten ari direla kontuan hartuta, daukagun parke bakarra txiki geratuko zaigu. Beraz, eremu berde bat egitea proposatzen dugu, ariketa fisikoa egiteko gune bat, eserlekuekin, haur eta nagusiak lasai egon daitezten, eta baita larrialdietara datozenak ere".

UDAL GOBERNUAK DIO HAPO-K EKIPAMENDU GISA JASOTZEN DUELA LURSAIL HORI, EZ BERDEGUNE GISA

"Adostasun zabala" dute

Txaeta kaleko 14, 16 eta 18. atarrietan 140 etxebizitza daude, eta, azaldu dutenez, bizilagun guztiek egiten dute bat aldarrikapen horiekin, baita inguruko hainbatek ere. Hori dela eta, sindurak batu dituzte asteon, eta BAZen entregatu, Udal Gobernuari eskaera horiek egiteko.

Eraiki daiteke espazio horretan

Gobernuak, ordea, garbi utzi gura izan du gune hori ekipamendu edo hornikuntza moduan dagoela jasota Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean, "eta ez berdegune moduan", eta horrek aukera ematen duela aparkalekuak, ostalaritza establezimenduak edota tamaina txikiko komertzioak egiteko espazio horretan. "Planak jasotakoaren arabera, lursail horretan 1.832 metro karratu eraikitzeke aukera dago, eta aparkalekuek 616 metro karratuko azalera izango dute", nabarmendu du Maria Ubarretxena alkateak.

Bisita gidatuak, mendi ibilaldiak eta gehiago, udako hilabeteetan

'Udan, planik bai?' lelopean, eskaintza turistikoa zabala egongo da hilabeteetan, "Arrasate hobeto ezagutzeko"

E.A. ARRASATE

Herria ezagutzeko bisita gidatuak eta mendi ibilbideak eskainiko ditu Udalak asteburuero. "Uztail eta abuztu bitartean, esaterako, bisita gidatuak egongo dira aukeran, zapatuero, Arrasateko historiaren, industriaren eta eraikin garrantzitsuenen inguruan. Arrasateko ingurune naturala ezagutzeko, mendi irteerak egingo dira domeketan, uztailean hasi eta irailera arte".


Azpmarratu beharrekoa da bisita gidatuak eta ibilbide guztiak egingo direla prebentzio, segurtasun eta higiene neurri guztiak hartuta eta gordeta. "Beti ere, herritarren zein bisitarien osasuna eta ongizatea bermatzeko", Gobernuaren esanetan.

Askotariko bisitak eta ibilaldiak izango dira eta lehena bihar, zapatua, izango da, Arrasateko historian sakonduko duena,

10:30ean Herriko Plazan hasita. Hurrengo bisita hilaren 11n izango da, eta Galarrako koba barrutik ezagutzeko aukera eskainiko du. Izena emateko, hiru bide daude: 943 25 20 00 zenbakira deituta, *Arrasate.eus* webgunean edo BAZen, aurrez aurre. Hitzordu guztien gaineko informazioa *Goiena.eus*-en dago.

Bestelako ekintzak ere bai

Bisita gidatuez eta mendi ibilaldiez gain, askotariko eskaintza egongo da herrian. Hala, Udazabal programaren baitako emanaldiez gain, uztailearen 17an, hilaren hirugarren zapatuan, tokiko produktuen azokarekin batera Txakolin Eguna egingo dute, eta irailean, aukeran egongo dira Kulturate Akustikoa, Mondran Bike eta Besaide Eguna. Urriaren 12an, halaber, Udalatz Eguna ospatuko da.



BENJAMIN RAMOS

San Juan argiztatua, onena

Benjamin Ramosen argazkia izan da onena Artgazkik antolatutako sanjuanetako lehiaketan, San Juan argiztatu zen unean ateratako argazki batekin. Ricardo Santa Cristinarena izan da bigarren onena eta Aimar Elortzarena, hirugarrena. Argazki originalena Jon Alzarena izan da. 25 argazki aurkeztu dituzte. 'Goiena.eus'-en daude ikusgai lan irabazleak.

Jasangarritasuna ardatz, kontzientziazioa landuz

Lehenengo Eskolako Agenda 21 proiektuaren jarraipena da Eskolako Agenda 2030, eta, proiektu horren baitan, herriko ikastetxeetako ikasleek, hamaika konpromiso hartzeaz gain, hamabi proposamen egin dizkiote Udal Gobernuari, iraunkortasunean oinarrituta

Eneko Azurmendi ARRASATE

Udalako Ingurumen Eskolako dinamizatzen du Eskolako Agenda 2030 proiektua Arrasaten, eta eskolako zuzendari Candela Fernandezek azaldu duenez, azken hamasei urteetan Eskolako Agenda 21 proiektuarekin lanean aritu ostean, lehen ikasturtea izan dute hau proiektu berriarekin. "Dena den, aitortu beharra daukagu hau trantsizio ikasturtea izan dela eta bere osotasunean ezin izan dugula gauzatu", adierazi du.

Herriko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin egiten dute lanketa hori urtero, "jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzeko" helburuarekin.

Agenda 21 proiektuarekin alderatuz, ezberdintasun nagusia da aurrerantzean ez dutela gai jakin bat landuko, baizik eta garapen jasangarria lortzeko helburu bat. "Dena den, hau trantsizio ikasturtea izan denez, gai bat landu dugu: *Egoera berriatik jasangarritasunera*", gaineratu du Fernandezek.

Ekintzak, Udalan zein kalean

Askotariko ekintzak egin dituzte gai hori lantzeko eta ekintza horiek bi multzotan bereizi dituzte: batetik, ikastetxeetan eta herriko kaleetan egin dituztenak; eta, bestetik, Udalako Ingurumen Eskolan egin dituztenak. "Ikasturte hasieran, urritik abendura arte bakarrik egin ahal izan genituen ekintza horiek, herriko kaleetan. Otsailtik aurrera, Ingurumen Eskolako egonaldiekin hasi ginen, eta, egoera nolakoa izan den ikusita, nahiko ondo joan dira saioak".

Hamazazpi helburu finkatuta

Aurtengo trantsizio ikasturtearen ostean, helburuei helduko diete datorrenean. Hamazazpi helburu finkatu dituzte garapen jasangarriari begira. "Ikasleek



Hainbat ikasle, saioetako batean, Udala auzoko artadian. ARRASATEKO UDALA

LANDUTAKOAREKIN BULETIN BAT ETA BIDEO BAT EGIN DUTE, ETA EKAINEKO OSOKO BILKURAN AURKEZTU

ikasturte honen bukaeran erabaki dute datorrenean landuko dutena; hau da, hiri eta komunitate jasangarriak".

Proposamenak, bideo bidez

Ohiko foroaren ordez, aurtengo lehen egiteko modua aldatu egin dute, baina, urtero moduan, hainbat proposamen egin dizkiote Udal Gobernuari, bideo batean jasota. Hauek dira proposamenetako batzuk: "Aurrekontu gehiago jartzea ingurumena berreskuratzeko proiektuetarako. Adibidez, San Balerion egin dena bezalako proiektu gehiago abian jartzea, lurra erosiz eta auzolanen bitartez zuhaitz landaketak eginez; Udalatxek daukan balio naturala ezagutzera ematea eta babesa ematea eremuari; herri barruan berdegune gehiago sortzea eta zuhaitzak landatzea kaleetan; adibidez, San

Andres auzoan; Montzon koba eta beste batzuk garbitzeko auzolanak antolatzea".

Horrez gain, hamaika konpromiso ere hartu dituzte ikasleek, hala nola naturan zaborrik ez botatzea eta mendi ibilaldietan zaborra jasotzea; erabili eta botatzeko produktuak ez aukeratzeko; ibaiak garbitzeko edo zuhaitzak landatzeko auzolanak antolatzen direnean, parte hartzea; poltsak berrerabili eta bestela oihalezkoak erabiltzea.

Proposamen "onak, landuak"

Maria Ubarretxena alkateak adierazi duenez, "oso proposamen onak" dira aurkeztutakoak, "landuak eta ilusio handiarekin" egindakoak. "Ahal dugun heinean, saiatzen gara betetzen. Guk ere lanketa bat egiten dugu, baina guztiak betetzea ez da beti posible izaten. Edozelan ere, inportantea da ikasleekin eseri eta egindakoaren berri ematea", gaineratu du. Hori dela eta, datorren urtean, Kulturaren bilera bat egingo dute, urtero moduan. "Proposamenak banan-banan zerrendatuz, noraino lan egin dugun azalduko diegu, eta haien galderak erantzun".

NIRE USTEZ



IBON ARRUPE

Herritarrek galdetzen digute...

Ea udalbatzako bigarren talde nagusienaren arabera zergatik Arrasatek ez dituen merezi kirol azpiegitura moderno eta kalitatezkoak. Ea zein den arrazoia etorkizunerako ezinbesteko apustu horren aurrean proiektu komunitario baten lanketan parte hartzeari muzin egiteko. Galdera horren aurrean, guri, ezpainak itxi eta sorbaldak jasotzearen keinua egitea besterik ez dagokigu. Guk ere ez dugu ulertzen. Entzun ditugu proiektu faraoniko eta megalomanoa litzatekeela, herria zorpetuko lukeela eta antzerako aitzakia errepikakorak, zeinak aspaldi entzuten ziren, adibidez, Tolosako edo Aretxabaletako kirol azpiegituren proiektuak mahaigaineratu zirenean. Arrasateko Udalak ez dio inori sos bat ere zor eta azken urteotan iraultza izugarria burutu du kultura azpiegitura duinak sortzen, auzoetako irisgarritasun bertikala bermatzen, jolas-parkeak eguneratzen eta gune degradatuak biziberritzen. Herritarren gehiengoak uste du unea dela kirol azpiegitura zaharkitu eta dekadenteak eraldatu, berriitu eta duintzeko. Gehiengo horren bultzadarekin aurrera egingo dugu. Aurrera bolie!



E.A.

Zabaldutuzte bi ur-parkeak

Iaz Santa Barbarakoa inauguratu ostean, aurtengo, Villa Amparokoa, Maalako biribilgune ondokoa, inauguratu dute. Biak ala biak atzo, eguna, ireki zituzten aurtengo denboraldirako. Villa Amparokoa 5 eta 12 urte artekoentzako askotariko 18 jolas daude eta Santa Barbarakoa, 29 jolas. 10:00etatik 20:00etara egongo dira erabilgarri bi ur-parkeak, egunero.



CHIC Estilistak

5. urteurrena ospatzen ari gara!!

%20ko deskontua uztailen!!

Iragarkia moztu eta ekarri!

Antso Abarka 6, behea • Arrasate • 665 79 43 95



Edurne Arroyo, Anne Dobaran eta Irati Cledu, lanaren egileak, Santa Barbara parkeko dragoiaren ondoan. AINHOA ARANA

Herensugearen kondaira, ikus-entzunezko batean

Arrasateko herensugearen mitoan oinarritutako telesail labur baten lehen kapitulua egin dute Aretxabaletako Ikus-entzunezko Fakultateko hiru ikaslek, 'Tradizioan hil' izenarekin; oraindik data zehatza ez dakiten arren, 'Zut' aldizkarian argitaratuko dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Anne Dobaran bilbotarra, Irati Cledu gasteiztarra eta Edurne Arroyo hondarribiarra dira lanaren egileak. "Ikasketak hasi genituenetik entzun izan dugu Arrasateko herensugeari buruz, eta mito hori gazteei hurbildu gura diegu. Kontuan hartuta *Zut* aldizkariarekin lan egiten dugula eta Debagoienean gazte askok kontsumitzen dutela aldizkari hori, pentsatu genuen ideia polita izango zela gazte horiei kondaira hurbiltzea, ikus-entzunezko baten bitartez", azaldu du Cleduk.

Mendeetan zehar ahoz aho transmititu izan den kondaira bat izanik, asko aldatu izan da urteen poderioz. "Aldaera oso ezberdinak daude eta proiektua egiteko orduan kontuan hartu behar izan ditugu aldaera horiek guztiak. Beraz, ondo informatu behar izan dugu, gauzak ondo egin ahal izateko. Edozelan ere, gauza batzuk aldatu egin ditugu, gaur egungo gazteen sinismenak

ezberdinak direlako antzinako gazteenekin alderatuta. Hori dela eta, uste dugu oso erakaragarria dela haien zat gaurkotzea, pertsonaia berriak txertatzea; betiere, mitoaren esanahia eta funtsa errespetatuz".

"Lan txukuna atera zaigu"

Gratu Bukaerako Lanaren harira sortutako proiektua da. Hala, hiru hilabete behar izan dituzte lan idatzia egiteko. Gero, bi aste pasa dituzte produkzio-lanekin eta hiru egunean egin dituzte grabaketak. Hori izan da, hain zuzen, zailtasunik handiena, gasteiztarraren esanetan. "Produktzio guztia guk egin dugu, grabaketa guztiak guk egin ditugu, eta kamera ondo erabiltzen

SAIL LABUR BATEKO LEHEN KAPITULU PILOTUA EGIN DUTE ETA ESPERO DUTE JARRAIPENA IZATEA

ere ez genekien hasieran. Hori kontuan hartuta, uste dut oso lan txukuna eta polita egin dugula. Guztiok sinistu dugu proiektuan eta emaitza ona izan da". Aktoreak aukeratzeko, *casting* bat egin dute. "Dena den, egia da buruan argi geneukala aktore batzuen profila nolakoa izan behar zen, eta horiengana gu joan gara zuzenean", azpimarratu du Arroyok.

Laster, 'Zut' aldizkarian ikusgai

Lanak kontatzen duena zera da: "Arrasate herensuge baten mende egon zen urte askotan zehar. Herensugea baretzeko, lasaitzeko, emakume bat, dama zuria, eskaintzen zion herriak urtero, herensugeak jan zezan. Iritsi da aukeraketarako unea, baina ez dakigu zein aukeratuko duten".

Zut aldizkarian argitaratuko dute laster, eta espero dute jarraipena izatea. "Aztartzen ari gara nola egin dezakegun aurrera, baina oraindik ez dakigu", gaineratu du Cleduk.



Freskura egitasmoaren baitako ekintza bat, Monterron parkean, iaz. TXATXILIPURDI

Martxan da Freskura egitasmoa, eta uztailearen 29an bukatuko da

Euskarazko produktuen ezagutza eta erabilera sustatu gura dute Arrasateko Udalak eta Txatxilipurdi Elkarteak

E.A. ARRASATE

Txatxilipurdik eta Udaleko Euskarazko Sailak elkarlanean antolatzen duten egitasmoa Monterronen gauzatuko dute, nagusiki, aurten. Hala ere, igerilekuan ere presentzia izatea gura dute eta eguaztenetan Musakolako igerilekuan egingo dituzte saioak.

Hala, atzo, eguna, hasi eta uztailearen 29ra arte, 17:00etatik 20:00etara Monterronen, eta, orduetegi berean, uztailearen 2an eta 7an, Musakolako igerilekuan, euskarazko irakurgaiak, mahai-jolasak eta jolaserako elementuak egongo dira guztien eskura. "Horrela, euskaraz dauden produktuen ezagutza eta erabilera sustatu nahi dugu", azaldu dute antolatzaileek.

Adin tarte guztientzako eskaintza da Freskura; hau da, haur, nerabe edota helduek gozatzeko modukoa. "Jolastuz, irakurriz eta tailerretan parte

hartuz, parkean edo igerilekuan dauden momentuan euskaraz ongi pasatzeko aukera eskaini nahi diegu, eta udan ere euskaraz jolasteko, irakurtzeko eta gozatzeko aukerak eskaini".

Izen-ematea, tailerretan soilik

COVID-19a dela-eta indarrean dauden osasun neurri guztiak bermatzen saiatuko direla azpimarratu dute. "Hala ere, parte-hartzaile orenen konpromisoa beharrezkoa izango da neurri hauek guztiak osotasunean bermatu ahal izateko".

Parte hartzeko aukerari dagokionez, nahi duena agertu daiteke Monterronera. "Dena dela, astearte eta ostegunetan tailerrek egingo ditugu eta hauetan izena eman beharko da, Freskuran bertan". Zalantzak argitzeko, 943 79 54 46 telefono zenbakia eta gurasoak@txatxilipurdi.eus helbidea daude eskuragarri.

Meza, Kooperatiben Nazioarteko Eguna harira, domekan

Urtero moduan, Kooperatiben Nazioarteko Eguna ospatuko dute uztaileko lehen zapatuan, eta, horren harira, meza egingo dute etzi, domeka, San Juan Bataiatzailea parrokian, 12:00etan. Era horretan, azken urtean hil diren kooperatibista aitzindariak izango dituzte gogoan, Mondragon esperientziaren parte izan direnak.

Batzar nagusia egingo du Mondrak datorren egunean

2019-2020 denboraldiari dagokion batzar nagusia egingo du Mondragon futbol klubak datorren egunean, uztaileak 8. Kulturatego areto nagusian izango da, 19:00etan. Urtero moduan, hainbat gai izango dituzte berba; besteak beste, aurreko denboraldiko balantze ekonomikoa eta datorren denboraldiko kirol proiektua.

"Hiri handi batean bizitzeak erakarri nau"

IRENE MURUA SASKIBALOI JOKALARIA

Louisiana Tech taldea utzi eta Detroit Mercy Titans taldean arituko da datorren sasoiari. Bere jaioterrira itzuli da, urtebeteren ostean, oporrak gertukoekin pasatzera

Hasier Larrea ARRASATE

Aurtengo denboraldian bezala, Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitate mailako One League kategorian jokatu du Irene Murua saskibaloia jokalaria datorren sasoiari, baina beste konferentzia batean. Gogorra izan dela onartu arren, pozik dago urteak emandakoarekin.

Louisianatik 1.500 kilometro pasatxora, Detroitera, lekualdatuko zara irailan; zer dela-eta?

Hiri handi batera joateak erakartzen ninduelako, batez ere, gauza gehiago egin daitezkeen tokian bizi nahi baitut. Hala ere, gustura ibili naiz Louisianan, taldekideekin harreman ona izan dut.

Gainera, gustura egoteko moduko denboraldia burutu duzue; ez al da hala?

Bai, pozik nago. Louisianako taldearekin konferentziako *play-off*-etako finalerdietaraino iritsi gara; pena apur bat sentitu dut txapelketa ez irabazteagatik, baina tira. Apur bat arraroa izan da sasoiari, segurtasun protokoloengatik. Maskararekin entrenatzea, adibidez, oso gogorra egin zait. Dena den, zorrea izan dugu, partidu guztiak jokatu ahal izan ditugulako eta taldean ez dugulako kasu positiborik izan.



Irene Murua, Ointxe!-ren udako campusean, Iturripen. GOIENA

Klub eta unibertsitate aldaketak arazorik sortu dizu?

Bat ere ez. Ez dut penalizaziorik jasoko talde batetik bestera joateagatik; hori eskertzekoa da.

Nolako izan da talde batetik bestera joateko prozesu hori?

Denboraldi bukaeran jokalaria bakoitzak entrenatzaileekin hitz egin zuen. Orduan jabetu nintzen beste aukera batzuk probatu nitzakeela, eta begira jarri nintzen. Detroitekin harremana egin ostean, kirol mailan eta arlo akademikoan zer eskaintzen zidaten aztertu nuen.

Zer esan zizuten Detroit Mercy Titans taldeko arduradunek?

Fitzaketa egiteko interesatuta zeudela. Gainera, *Business* unibertsitate ikasketei segida eman gero diet han; beraz, akademikoki antzeko egoeran jarraituko dut. Horrez gain, asko gustatu zitzaidan nire entrenatzaile izango direnek eskaintako saskibaloia proiektua, saskibaloia ulertzeko eta lan egiteko modua.

Hiri horretan egonkortzea al da zure asmoa?

Hasiera batean, karrera bertan amaitu nahi dut. Horrek esan

nahi du beste hiru urte egingo nituzkeela Detroiten.

Eta kirol arloan, zein da epe laburreko helburua?

Helburu nagusia taldea egitea da. Jokalari berri asko gaudenez, lehen urtea adaptazio fasea izango da, elkar ezagutu eta gure identitatea lortzeko. Epe luzera begirako proiektua du klubak; beraz, ikusiko dugu noraino hel gaitzeko. Hori bai, liga erregularrean ahalik eta goren amaitzea gustatuko litzaiguke, National Tournament txapelketa-rako sailkatzeko. AEBetako gure kategoriako talderik onenak lehiatzen dira bertan.

Orain, pilak kargatzeko txanda duzu. Etxera itzultzeak on egin al dizu?

Erabat. Oso etxezalea izan naiz betidanik, baina azken urtean bideo-dei bidez bakarrik egon ahal izan naiz familiarekin. Momentu gogorren bat bizi izan dut, nahiz eta azkenean gaintzen nituen egoerak, gura dudalako bainago han.

Oporretan zaude Arrasaten, baina saskibaloia kantxara zoaz ia beti.

Hala da; Iturripera datorrenak sarri ikusiko nau hemen. Ointxe!-k udako campusean aritzeko aukera eman dit, eta oso pozik nabil. Badaukat, gainera, denbora beste gauza batzuk egiteko denbora hartzeko.

Desberdintasun handia dago lan egiteko moduan?

Batez ere, fisikoa dagokionez. Hemen apenas zapaltzen dugu gimnasioa, eta han ia eguneroko errutina da. Ondorioz, hasieran ohi baino entrenamendu gehiago egin nituen gimnasioko entrenatzailearekin. Hori bai, hemengo esentzia mantentzeari garrantzi handia eman diot, guk badauzkagulako ezaugarri batzuk agian Ameriketako Estatu Batuetan ez dauzkatenak.

Klub berriak bidali al dizkizu etxeko lanak?

Fisikoa zaintzeko ariketak, batez ere. Orain taldez aldatu behar dudanez, ez daukat aurreko taldeko eginbeharrak; beraz, nire kabuz ere banabil fisikoa lantzen. Pozgarria egin zitzaidan hasieran espero baino oporraldi luzeagoa edukitzea. Lagunekin eta familiarekin egoteko aprobetxatuko dut, noski.

Hara itzultzen zarenean, ba al dakizu noiz izango duzun berriz etxera etortzeko aukera?

Sinatuko nuke Gabonetan hegazkina hartzea, baina ez nago seguru posible izango ote dudana, agian partiduak jokatzen arituko naizelako. Espero dut, aurtengo sasoiari ez bezala, datorrenean nire gurasoen bisita jasotzea. Ezin izan dute etorri osasun egoeratik, ea hemendik aurrera, hobeto gaudela-eta, uzten dieten.

Ander anaia ere fin-fin dabil esku-pilotan.

Bai, poz handia hartu nuen joan den aste bukaeran Gipuzkoako binakako Udaberri txapelketa irabazi zuenean. Idiazabalen bertatik bertara ikusteko aukera eduki nuen, gainera. Louisianan nengoela, faltan sumatu dudana gauzetako bat izan da bere partiduak ezin ikustea. Anderrentzat ere ez da urte erraza izan, nahi baino partidu gutxiago jokatu dituelako pandemiaren eragozpenen ondorioz. Edonola ere, oso gogor aritu da lanean, eta ikusten dira emaitzak.

"ESPERO DUT DATORREN SASOIAN FAMILIAREKIN AURTEN BAINO GEHIAGO EGOTEA"

Mikel Lasa triatleta, urteetako lanaren fruituak jasotzen

Bere laugarren ironmanean, Galiziako Northwest Triaman lasterketan, bigarren postuan sailkatu zen beteranoetan

H.L. ARRASATE

"Egun batetik bestera baino gehiago, poliki-poliki" joan da Antxintxikako korrikalaria proba luzei tankera hartzen. Hala, beteranoen mailako podiumeko bigarren koskara igotzea lortu

zuen joan den domekan, As Pontes lakuaren inguruan egiten den 226 kilometroko lasterketan.

10 ordu, 24 minutu eta 52 segundo behar izan zituen 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta 42 korrika egiteko. Bere den-

bora lasterketa osoko 25. marrik onena izan zen.

Errendimendu hori lortzeko "modu konstantean" entrenatu behar izan du aurrez. Aurreko lasterketetan pilatutako esperientzia gehitu behar zaio prestateta horri; triatloi erdian parte hartzen hasi eta "ikaragarri" gustatu zitzaionez, 2015ean eman zuen ironmanetan lehiatzeko pausoa, Gasteizen. Ondoren, Lanzaroteko eta Kataluniako triatloi luzeetan ere aritu da: "Denei gomendatzen diet ez



Lasa, Galiziako proban. GOIENA

begiratzeko epe motzera, burua asko erretzen baita bestela".

Lehorrean "hobeto"

Triatloiko modalitateetan ondoen zeinetan moldatzen den galdetuta, argi dauka "lehorreko atleta" dela, igerian baino, bizikleta gainean eta korrika moldatzen baita hobeto.

Orain, denbora-tarte batean atsedean hartu eta bere egunerokotasunean zentratuko da arrasatearra, proba laburragoak albo batera utzi gabe.

Eskarmentua eta freskura, biak batean

Olatz Salvador musikari donostiarra bere bandarekin etorriko da Monterrongo parkera hilaren 7an, asteazkena, aurtun argitaratu berri duen 'Aho uhal' diskoa aurkeztera, Udazabal egitarauaren barruan; etxeko artista gonbidatua Garazi Barrena izango da

Hasier Larrea ARRASATE

Dagoeneko hasia da martxa hartzen proiektio handiko bandak eta herriko musikariak uztartzeko apustua egin duen Udazabal kultura egitasmoa. Datorren eguaztenean, arratsaldeko zazpietan, elkar ezagutzen duten bi emakumek norberaren dohain artistikoak erakutsiko dituzte ikusmin handia sortu duen kontzertuan.

Monterrongo hitzordurako sarrerak agortu egin dira dagoeneko, eta ez da gutxiagorako. Skakeitan taldean teklatura joz eta koruak abestuz zaildutako Olatz Salvadorrek zazpi urte daramatza bakarkako ibilbidea jorratzen; geroztik, bi disko eta makina bat saio eskaini die jarraitzaileei. 2018an *Zintzilik* estudioko lehen lana kaleratu eta musikari berriak alboan zituela eman zuen urtarrilean *Aho uhal* kaleratzeko jausia. Nahiz eta urte batzuk pasa diren oholtza gaineko lehen agerralditik, "duela gutxi" hasi zen musikara "bete-betean dedikatzen". Argi dauka diziplina artistiko hori egin nahi duela bere bizibide, nahiz eta kontzientzia den sorkuntzatik harago doan lana dela: "Ordengailuaren aurrean ordu mordoxka sartzea tokatzen zait, kudeaketa-lanak egiten".



Ezkerrean, Olatz Salvador; eta eskuinean, Garazi Barrena. GAU ILUNAK / POLIKARPO

2019AN 'AUSORTU' SORMEN TAILERREAN EZAGUTU ZUTEN ELKAR, SALVADORREK GIDATUTAKO SAIOAN

Talentua borborka

Garazi Barrena, aldiz, aurtun azaldu da lehen aldiz publikoaren aurrean. Arrasatearrak gitarra eta piano doinuz josten ditu tokian tokiko zein kanpoko kantutxoak. Aberri egunean,

AGAKOren urteurrenean, ostalarien Seberreko terrazan eta The Potesen lan berriaren aurkezpenean erakutsi zuen proiektio handiko abeslaria ere badela. "Gustu irekia" duela-eta, ez da estilo konkretu batera mugatzen, eta, ohi duen bezala, bere bakarkako saioak "beste musikari batzuen kolaborazioak" ere izango dituela aurreratu du.

Bi sortzaileek topo egingo duten bigarren aldia izango da, *Ausortu* ekimenean izan baitzuten elkarren berri, 2019an, Salvadorrek eskainitako tailerrean.



Big Bandeko musikariak, kontzertua prestatzen musika eskolan. ARRASATE MUSIKAL

Arrasate Musikal Big Bandek kontzertua eskainiko du gaur

Emanaldia 19:00etan hasiko da, Monterrongo parkean; doako sarrerak Udalaren webgunean eskura daitezke

H.L. ARRASATE

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, aurtun ere Udazabal egitarauan tokia izango du 2000. urtean sortutako Big Band taldeak. Herriko zein bailarako 23 musikari azalduko dira agertokira, boss, swing, latin, bossa eta funk estiloak jorratzeko. Musika tresnen artean, tronboi, tronpetak, saxo, piano, gitarra, bateria, perkusio, baxu eta ahoatsaren melodia eta erritmoak entzuteko aukera izango dute emanaldira gerturatzen direnek, Zigor Martinez zuzendariaren gidaritzapean.

Musika eskolei aitortza

Ikusleen artean gonbidatu bereziak egongo dira, Gasteizen egoitza duen Musicos Sin Fronteras elkarterko bi kidek jarraituko baitute kontzertua bertatik bertara. Euren eginkizunetako bat da munduan behar handien

dutenei musika tresnak banatzea, eta bailarako musikari zein musika eskolak bidelagun izan dituzte azken bi urteetan. Zigor Martinez bera arduratu da zubi-lanak egiteaz: "Instrumentu zaharrak batu ditugu han eta hemen, eta Arrasateko Udalak biltegi bat utzi digu horiek gordetzeko. Uztailean Siriara eta Irakera bidaliko dituzte MSF-koek, hango emakumeek tresnak jotzeko aukera izan dezaten".

Beraz, elkarte horretako kideek emanaldia aprobetxatuko dute proiektuan parte hartu duten pertsona eta elkarte guztiei publikoki eskerrak emateko.

Goiena telebistan

Aitortza hori eta Big Band taldearen kontzertu osoa Goiena telebistak grabatu eta hilaren 9an emitituko du, gaueko bederatzietan eta hamaiketean. *Goiena.eus*-en ere ikusi ahalko da.

Estreinaldi beroa

Udazabal egitarauari eguaztenean ekin zioten 14 urteko Izadi artista arrasatearrak eta euskara flamenkoarekin nahasten duen Sonakay talde donostiarrak. Aldaiko karpara gerturatutakoek arratsalde ederra pasa zuten bakarlariaren lehen emanaldia eta boskotearen fusioz betetako errepertorioa bertatik bertara ikusi eta entzuten.



Sonakay taldea, zuzenekoan. H.L.

Añube eta 112 taldeen kontzerturako sarrerak, eskuragai

Bi talde berriri aurkezpen emanaldia egiteko aukera eskainiko die AGAKOk gaztetxean, uztailearen 10ean, 20:00etan hasita. Atzo ireki zen sarrerak lortzeko epea; *agako.eus* webgunean erreserba daitezke. Gehienez, hiru eserleku eskaera bakoitzeko.

Arrasateko WC punk-rock bandaren garapena da 112. Bateria-jole eta izen berriarekin

probatuko dituzte zuzenekoan azken hilabeteetan sortutako "kanta martxosok".

Rock lasaiagoa eta folk ukituak proposatuko du, bestalde, bailarako musikariz osatutako Añube taldeak. "Fiachras eta Unidad Alavesa" taldeetan bilatu dute inspirazioa euren abesti propioak sortzeko: "Denetik daukagu, erritmo mantsoko kantuek, eta biziagoak ere bai". Momentuz, perkusio gabe, formatu akustikoan, hasiko dira kontzertuak ematen.



Gaztetxoak eta Agustin Ojanguren entrenatzailea, entrenamendu saioan. A.E.G.

Hockeyan lehen urratsak egiten hasi dira

Ekainaren 23an hasi zuten hockey campusa, eta hamar egun iraungo du. Agustin Ojanguren irakaslearen eskutik hockeya eta irristaketa ikasten dabilta Aramaioko eta inguruko herrietako gaztetxoak, goizetan, pilotalekuan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Irristaketa eta hockey campusa egiten dabilta gaztetxoak Agustin Ojanguren irakaslearen eskutik. Ekainaren 23an hasi zituzten eskolak, pilotalekuan, eta hamar egunez egingo dituzte ekintzak.

LH-1 eta LH-6 artekoendako ekintza da, eta 09:30etik 13:30era egiten dute. "Urtero egiten dugu ikastaroa. Bergaran ere egiten dugu, baina, kiroldegian lanetan dabilzala kontuan hartuta, Aramaion egingo dugu", azaldu du Ojangurenek. Aramaioko campusean ez daude udalerriko gaztetxoak bakarrik: Arrasateko, Bergarako eta Elorrioko gaztetxoak ere batzen dira.

Arauk, ariketak, eta abar

Irristaketa eta hockey campusean maila askotariko neska-mutikoak dabilta: "Ume batek, adibidez, patinak inoiz jantzi barik zituen, eta berehala ikasi du". Horrez gain, arauak ere ikasten dituzte: "Hockeyko oinarriko arauak ikasten ditugu, eta ariketa fisikoak ere egiten ditugu, koordinazioa lantzen dugu...".

Helburuak

Hockeyra gerturatzea eta irristaketa erakusketa da campusaren helburu nagusia. Edozelan ere, baditu bestelako abantaila batzuk: "Familiei zerbitzua eskaintzea, udalekuek eskaintzen dutenaren antzerakoa. Hau da,

umeak etxean jasotzen ditugu eta berriro ere bueltaltzen ditugu etxera".

Federatzeko daudenak

Jolasa baino zerbait gehiago landu dute bigarren aste honetan: "Ume gutxiago etorri direnez, aprobeztatu dugu hockeyan federatzeko daudenei entrenamendua egiteko". DBH-1etik aurrerakoak federatu daitezke hockeyan.

Espainiako Txapelketako bigarren mailan jokatu duten lau jokalarari aramaiotar daude Bergarako Burdinola Irristaketa Elkartearen: Maiuri Lasaga, Edurne Ormaetxea, Ane Arriolabegoa eta Jone Ojanguren.

Energia berriztagarriak eta torturak izan dituzte aztergai

Osoko bilkuran bi mozioak onartu zituzten eguenean; EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin

A.E.G. ARAMAIO

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak joan den asteko eguenean. Bi mozio aurkeztu zituzten, eta biak onartu.

Energia berriztagarriak

Energia berriztagarriari buruzko mozioa aurkeztu zuen EH Bildu taldeak. Mozioan onartutako puntuak dira: "Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, larrialdi klimatikoaren testuinguruan, energia berriztagarrien hedapena modu antolatu eta planifikatua egingo dela bermatzea; Jaurlaritzari eskatzen dio Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) onartze prozesua ahalik eta azkarren bideratzea, izapidetze prozesuan ahalik eta kontsentsu politiko, sozial eta instituzional handiena bilatuz; Jaurlaritzari eskatzen dio energia berriztagarrien in-

guruko plangintza egiteko orduan lehenetsi ditzala berriztagarrien hedapen deszentralizatua eta biziki antropizatuak dauden kokalekuak; eta Jaurlaritzari eskatzen dio LPS izapidetu bitartean ez dezala aurrera egin ingurumenean eragina izan dezaketen partaidetza publikoko energia berriztagarriko proiektuetan". EH Bilduko sei zinegotzik alde bozkatu zuten eta EAJkoak, berriz, kontra.

Torturaren biktimak babesteko

Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Egunarekin lotutako mozioa ere onartu zuten, EH Bilduren aldeko sei botoekin eta EAJren aurkakoarekin. EAJko zinegotziak mozio alternatiboa aurkeztu zuen, baina EH Bildurena onartu zuten. Zapatuan izan zen nazioarteko egun hori.

Uztailaren 7an hasiko dituzte udalekuak herriko txikitxoek

3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako udaleku irekiak uztailaren 7an hasiko dituzte, eguaztena. 10:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegian egingo dituzte. Oihana Amezkuia zinegotziak azaldu du 101 umek eman dutela izena.

Herriko gaztetxoek ere izango dute euren aisialdia. Aurten, musika eta kirol eskaintza izan-

go dute: uztailaren 8tik 15 era bitartean, *Musika sortzen* udalekuak izango dituzte. Helburua da abesti bat sortu eta grabatzea; bestetik, uztailaren 19tik 25era bitartean, ekintza eta kirol udalekuak egingo dituzte. Udaleku horiek prestatzeko egin duten prozesuan jarri du fokua Amezkuak. Izan ere, gaztetxoek iritziak jasotzen ibili dira, guztien gustukoak egiteko. Gainera, prozesuaren helburua Aramaion nerabeei zuzendutako aisialdi talde bat sortzea da.

'HEMEN DEBAGOIENA' ARAMAIOIK

GOIENA TELEBISTA, SAN MARTIN EZ-JAIK
UZTAILAREN 5EAN, ASTELEHENEAN, 18:00 / 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Egoerara egokitutako jaiak antolatu dituzte

Aurtengoak ere ez dira ohiko jaiak izango, baizik eta trantsizio jai batzuk. Hala ere, kulturaz eta herritarrez gozatzeko aukera egongo da Aramaion gaur hasi eta astelehenera arte. "Modu egokian" jokatzera eskatu dute udal arduradunek

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Uztailarekin batera iritsi dira San Martin jaiak Aramaiora. Aurten, baina, iaz bezala, ez dituzte ohiko jaiak ospatuko. Pandemia egoerak eraginda, arau jakin batzuetara egokitutako jaiak izango dira. Hori horrela, gaur, egubakoitza, ez da txupinazorik izango, ezta Mariren jaitsierarik ere.

"Modu egokian jokatu"

Udal arduradunek herritarrei eskatu diete "errespetuz eta modu egokian" jokatzeko gune bakoitzeako arduradunekin; eta, betiko moduan, "garbi eta ondo" mantentzeko herria.



Aurten ere, Mari ez da Aramaiora jaitsiko. ARAMAIOKO UDALA

Erretiratuak izateaz gain artistak ere badirela erakutsiko dute

Eskularen erakusketa inauguratuko dute bihar Sastiñan; uztailaren 10era arte egongo da ikusgai

A.E.G. ARAMAIO

Alaiak erretiratuen elkarteak eta Aramaio Udalak antolatuta, eskularen erakusketa inauguratuko dute bihar, zapatua.

Cristina Etxenausia zinegotzia eta erretiratuen elkarte presidentea Migel Loiti izango dira inaugurazioan, 12:00etan. "Esker on hitzak izango ditugu parte hartu dutenendako. Oso garrantzitsua da herrian horrelako erakusketa bat izatea", dio Etxenausiak.



Alondegiko baskula. A.E.G.

Hamazazpi artista

Herriko erretiratuen artean deialdia egin zuten: hamazazpik parte hartuko dute erakusketan. Denetarikoak egongo dira: margolanak, egurrezko lanak, buztina, argazkiak, beirarekin egindako lanak... Gainera, udal txean dauden bi baskulak ere Sastiñara eramango dituzte.

Erakusketako ordutegia izango da: bihar, etzi eta astelehenean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; uztailaren 9an, egubakoitza, 18:00etatik 20:00etara; eta uztailaren 10ean, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

'Trantsizio jaien' egitaraua

Uztailak 2, egubakoitza

- 18:00 Pilota partiduak.
- 22:00 Kontzertuak txosnagunean: Kai Nakai eta Dupla.

Uztailak 3, zapatua

- 09:00 Hockey partiduak.
- 10:00 Kimikarin 'escape room'-a.
- 12:00 Erakusketaren inaugurazioa.

- 17:00 Egurrezko jolasak parkean.
- 21:30 Kontzertuak txosnagunean.

Uztailak 4, domeka

- 12:00 Meza.
- 13:00 Jaioberriei ongietorria.
- Ondoren, dantzarien emanaldia kanpoko frontoian.
- 16:30 Puzgarriak eskolan.

- 18:30 Txamukos Mariatxi kanpoko frontoian.
- 22:30 Berbasie.

Uztailak 5, astelehena

- 12:00 Meza.
- 12:30 Umeen antzerkia kanpoko frontoian: 'Gora kasete'.
- 18:00 Antzerkia: 'Korapiloa'.
- 20:00 Idoia Asurmendiren emanaldia txosnagunean, bere azken diskoa aurkezten.

Ongietorria egingo diete azken urtean jaiotako haurrei

Bost izan dira iazko uztailatik hona Aramaion jaio diren umeak. Horietako bat 2020an jaio zen eta beste laurak aurten. Hala, domekan, 13:00etan, ongietorria egingo zaie jaioberriei kanpoko frontoian. Iazko ekitaldiarekin alderatuta gutxiago izango dira aurten ongietorria jasoko dutenak; izan ere, iazko jaietan hamar izan ziren.



2020ko ongietorri ekitaldia. A.E.G.

BA BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 pk
20500 Arrasate

Gu ere aramaioarrekin!



Tel.: 945 45 01 00
bulegoa@behialde.com



Idoia Asurmendi musikari aramaioarrak Arrasateko Amaia antzokian kontzertua eman zuenekoak. IMANOL SORIANO

Herriko gazteen parte hartzea indartu nahian

San Martin jaiei begira, gaurtik astelehenera bitartera egitarau sendoa antolatu dute txosnagunerako. Datorren urtean ohiko jaiak izango diren esperantzarekin, aurtengoetan neurri eta arau guztiak errespetatzeko eskaera egin dute antolatzaileek

Imanol Beloki ARAMAIO

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada sortu zenetik 19 urte pasa dira, eta lanean jarraitzen dute herriko gazteen parte hartzea sendotzeko helburuarekin, herriari bizitasuna emateko, bertan eraginez, hainbat ekintza antolatuz: mendi martxak, tailerrak, hitzaldiak, bideo emaldiak, kontzertuak, jaialdiak,

mobilizazioak, eta abar. Aramaio San Martin jaietan ere euren lana izugarria izaten da urtero, eta aurtengoa, beste zenbait eragile eta norbanakoren laguntzarekin jai batzordea osatu dute, egitarau zabala prestatzeko.

Zentuz jokatzeko eskaera

"Asanbladako kideekin batera, beste zenbait herritarren artean

taldea osatu da, eta Aramaio Udalarekin elkarlanean izan gara jaietarako egitaraua antolatzeko. Ez dira ohiko festak izango, eta, horregatik, *Aramai-xoko transisiño jaixek* izenpean bataiatu ditugu. Txosnagunean sei laguneko mahaiak jarriko ditugu, eta edukiera errespetatu beharko da. Asmoa ez da polizia lanetan aritzea, baina

neurriak errespetatzeko kontrola egongo da. Hori horrela, azpimarratu nahiko genuke lan asko egin dugula egitaraua antolatzeko, eta zenbait lagun izango dira txosnagune barruan gertatzen denaren arduradun; beraz, errespetuz jokatzeko eskaera egin nahi dugu. Modu berezian bada ere, jaiak ospatu ahal ditugula demostratuko dugu", adierazi du Unai Etxenausiak, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladako kideek.

Herriko taldeei tokia

Egitarau osatua prestatu dute egunotarako, musikari protagonismo handia emanda. Gaur, 17:00etan irekiko dute txosnagunea, eskola parean, eta 22:00etan, Kai Nakai eta Dupla taldeen kontzertuak izango dira. Zapaturako, berriz, *street boulder*-a antolatu dute ekintza berezi moduan, eta arrakastatsua izango dela aurreikusten dute: "Zaletasuna badago, eta lehenengo aldiz antolatu dugu. Aramaio *street boulder*-a praktikatze leku aproposa dela uste dugu, eta herrian zehar zenbait txokotan arituko dira eskalatazailerak erakustaldia egiten. Horren ostean, 21:30ean, herriko hiru talderen kontzertuak izango ditugu: The Clayton, Balarrasa eta El Exterminio de la Raza del Mono. Herriko musikariek egiten dutenari ere balioa eman nahi izan diogu, eta zapaturako aprobetxatuko dugu horretarako". Domekan, mus txapelketa izango da, 15:00etan, eta urtero hutsik egiten ez duen Berbapasie, 22:30ean. Trantsizio festei amaiera emateko, berriz, mozorro eguna izango dute aurretik, eta Idoia Asurmendi musikari aramaioarraren emaldira izango da, 22:00etan.

Arabako lau eta erdiko partiduak, gaur arratsaldean

Aramaioko pilotariak final-laurdenak jokatuko dituzte. 18:00etan hasiko dira partiduak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Herriko pilotariak ere izango dute protagonismoa *trantsizio jai* hauetan. Arabako lau eta erdiko pilota txapelketa jokatzen dabilta, eta, horren baitan, final-laurdenak jokatuko dituzte gaur, barikua, frontoian.

18:00etan hasiko dira partiduak, eta gaurko jardunaldian txapelketako final-laurdenak jokatuko dituzte. Etxekoen partetik hiru pilotari irtengo dira kantzara: Markel Arriolabengoa, Asier del Campo eta Julen Olaizola. Aurrean izango dituztenak izango dira: Arriolabengoa Txukun Lakuko Aitor Alavaren aurka jokatuko du; Del Campok Zaramagako Jagoba Ugarteren aurka; eta Olaizolak Txukun Lakuko Orkatz Otxoaren aurka.

"Ondo jokatuz gero hiru partiduak irabazteko modukoak dira", azaldu du Del Campok. Hala, kanporaketa gainditu eta finalerdietarako txartela lortzea izango da Aramaio pilotarien helburua. Horretarako, herritarren babesa izango dute.

Aurtengo denboraldian Aramaio pilotariak egiten dabilzan lana nabarmentzeko da; Arriolabengoa, esaterako, banakako Arabako txapelketa da, gazte mailan.



ITURRIETA
SAGARDOTEGIA
ARAMAIO

Arraga Auzoa 2, ARAMAIO

info@iturrieta.eus

www.iturrieta.eus

Tel.: 685 72 15 93



Antzezlanak, dantza eta musika, uztailean kalean

Lau ikuskizun izango dira, eskarmentu handiko taldeen eskutik: Trapu Zaharra, Erre Produzioak, Hika Teatroa eta Oinkari dantza taldea eta Malas Compañías. Nerabeek film emanaldiak izango dituzte kalean; bata hilaren 9an eta bestea 16an

Mirari Altube ARETXABALETA

Antzerki emanaldiak eta dantza izango dira uztaileko kultur egitarauaren ardatz nagusiak, eta Udaleko Kultura Sailak lau ikuskizun aukeratu ditu, herritar guztiendako gustagarri izango direlakoan. "Kulturari ahal den espazio handiena ematen jarraitu gura dugu, eta, era berean, ikuskizunak kalera aterata herria animatu", adierazi du Ainhoa Cabero zinegotziak. Emanaldi guztiak izango dira eguaztenetan, kalean, eta edukiera eta prebentzio neurriak zainduko dituzte.

Trapu Zaharraren komedia

Datorren eguaztenetan, uztailearen 7an, Aretxabaletan ondo ezagutzen duten Trapu Zaharra taldea etorriko da, *Por hacer un favor* lan berriarekin, komentuko lorategira (19:00). Ohi legez, umorea eta ironia uztartuko dituzte, eta beldur eszenikoa duen politikari baten gorabeherak kontatu Santi Ugalde eta Lierni Fresnedo aktoreek.

Erre Produzioak taldeak, ostera, etxeko txikiendako ikuskizuna ekarriko du hilaren 14an: *Piraten istorio bat*. Itsaso zakarraren zorigaitzak, gaueko magia eta adiskidetasunaren boterea ezagutuko dituzte neska-muti-



Santi Ugalde aktorea, antzezlanaren une batean. TRAPU ZAHARRA

koek, keinuen bidez kontatutako istorio dibertigarrian. Herriko Plazan izango da hori (19:00).

'Gazte' dantza ikuskizuna

Hika Teatroak eta Oinkari dantza taldeak, ostera, elkarlanean ekoiztutako hirugarren lana erakutsiko dute: *Gazte*. Uztailearen 2an Hondarribian aurkeztu eta 21ean Herriko Plazan izango da (19:00). 17 eta 25 urte bitarteko hamahiru dantzarik eta bi musikaririk –DJ bat eta saxofoi jotzaile bat–, euskal dantza tradizioaletik abiatuta, dantza

moderno batzuk jorratzen dituzte, ahotsari eta testuari lekua emanda, gainera. Agurtzane Intxaurreagak zuzendutako lana da, eta koreografia, Kukai dantza konpainiako sortzaileetako bat den Eneko Gilena. Lana izendatzeko orduan zera adierazi dute: "Kaleko dantza ikuskizun da. Gazteekin eginga, gazteak mintzo eta mintzagai, eta publiko guztiari zuzendua".

Uztaileko egitaraua Malas Compañías zirku taldearen umoreak eta *clown* saioak itxiko du, *Prozak* ikuskizuna eskainita.



Kiki eta Koko, eguaztenetan, Kurtzebarriko kantxan. MIRARI ALTUBE

Pailazoen saioa ekaina agurtzeko

Kiki eta Koko pailazoen 'Bizi-bizi zirkua' lanarekin itxi dute '7x7 kultura kalean' egitaraua. "Herritarren aldetik eskerrak jaso ditugu eta pozik agertu dira askotariko eskaintza egon delako", adierazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak.

Hilaren 28an izango da, Kurtzebarri eskolako kantxan (19:00). Barrea eta emozioa eskainiko dituzte, akrobaziek eta beste hainbat jokok lagun eginda.

Zinema, kalean

Bestetik, Gazteria Sailak zinema antolatu du nerabeendako. Abentura eta akzioa gustuko dutenei bi film eskainiko dizkiete, egubakoitzetan, Herriko Plazan (22:00): hilaren 9an, *Jumanji siguiente nivel* izango dute (Ameriketako Estatu Batuak, 2019, 123 minutu); 16an, *Bad boys for life* (Ameriketako Estatu Batuak, 2020, 123 minutu).

Kontzertua Ixadebalde barruan

Irailean beharrean uztailean egingo du Ixadebalde azoka Aretxarte merkatarien elkarteak, eta, horren bueltan, Screammers and Sinners taldearen kontzertua.

tua antolatu du Kultura Sailak, "herrian erostera animatzeko". Aretxabaletako taldea zuzeneko emanaldietarako "gogotsu" dago eta kanturik ezagunenak eskainiko dizkie herrikideei; uztailearen 22an izango da (19:30).

'Poli'-ren erakusketa

Arkupeko erakusketa aretoak uztailean ere zabalduko ditu ateak; oraingoan, Aitor Bengoa *Poli* argazkilaria aretxabaletarraren lanak erakusteko. Kontzertuetan hainbat talderi ateratako argazkiak erakutsiko ditu astelehenetik aurrera.

SCREAMERS AND SINNERS TALDEAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU HILAREN 22AN

Santa Kurtz kaleko lanak lizitaziora ateratzea onartu dute

Ezohiko osoko bilkura egin du udalbatzak eta EH Bilduko Irati Pagoagak zinegotzi kargua utzi du

M.A. ARETXABALETA

Santa Kurtzeko eta inguruko hainbat kaletako saneamendu eta hornidura plan berezia abian jartzeko lanak lizitaziora ateratzea onartu zuen udalbatzak eguaztenetan egindako ezohiko

osoko bilkuran. Udal Gobernuaren babesa jaso zuen eta EH Bilduko zinegotziek abstentzioaren alde egin zuten.

Lanen aurrekontua 2.334.849 euro da –BEZa barne– eta 2021eko eta 2022ko udal aurrekontuetan

sartuko dute horren ordainketa. Xabi Otxoa Hirigintza zinegotziak azaldu zuen udazkenean hastea dela asmoa eta urtebete iraungo dutela. Santa Kurtz kale inguruan bizi direnen egunerokoan "eragin handia" izango dute lanok eta pazientzia eskatu zieten udalbatzako kideek bizilagunei. Dena den, Otxoak argitu zuen larrialdi zerbitzuetarako sartu-irteerak bermatuko dituztela eta Tubos lantegi inguruan behin-behineko aparkaleku bat jarriko dela.



Irati Pagoaga osoko bilkuran. M.A.

Bilkura horretan, EH Bilduko kide Irati Pagoagak zinegotzi kargua utzi zuen. Sei urte egin ditu, guztira: "Gogorra izan da une batzuetan, exijentzia handikoa ere bai. Baina elkarlanerako gogoia topatu dut, diferentziak diferentzia". Udalbatza osatzen duten kide guztiak zein udaletxeko teknikariak eskertu zituen, laguntzeko erakutsitako prestutasunagatik. Pagoagak utzitako lekua Naiara Olabarriak beteko du; asmoa da uztaileko osoko bilkuran kargua hartzea.



Ume batzuk jolasean heldu batekin Kuku Mikuren egoitzan, egoitza itxi aurretik. GOIENA

Kuku Miku elkarteak, ateak irekitzeko "gogoz"

6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoen elkarteak Durana kalearen atzeko partean du egoitza eta iazko martxoaz geroztik itxita dago. Guraso-eskolak, baina, lanean jarraitu du, online, eta datorren ikasturterako izen-emate epea zabaldu ere bai

M.A. ARETXABALETA

Konfinamendua hasi zenean itxi zituen atea Kuku Miku elkarteak, 2020ko martxoan, eta ordutik ez ditu zabaldu –nahiz eta ikasturte bukaeran ludotekako umeak egon han, Udalak hala eskatuta–. Horrek ez du esan gura geldi egon direnik; izan ere, elkarte barruan abian jarritako guraso-eskolak bere bidea jarraitu du, telematikoki izan arren. Orain, datorren ikasturtea antolatzen hasi dira eta, taldean lekua dutenez, izena emateko epea zabaldu dute.

Saio praktikoak eta dinamikoak

Hamabost laguneko taldea dabil lanean, Nerea Mendizabal psikopedagogoak gidatuta, eta lau lagunendako lekua daukate orain. Hilabete behin elkartzen dira, eguenetan (17:45-19:45), eta, online saioak egin badituzte ere azken urtean, aurrez aurrekoari ekiteko gogoz daude. "Balorazio ona egin dugu. Sarritan gai sakonei heldu arren, horiek

etxetik lantzen ere asmatu dugula uste dut", adierazi du Oihana Garcia Insausti kideak.

Eskolaren helburua da eguneroan sortzen diren zalantzak, gatazkak edo zailtasunak partekatzeko gune babestu bat eskaintzea eta seme-alaben hazierarako behar dituzten baliabide eta ezagutzekin janztea gurasoak. Askotariko gaien bueltan jarduten dute: "Gurasook eramaten ditugun gaiak bideratzen ditu Mendizabalek, gai zehatzak, bakoitzak bere etxean dituen arazoak eta zalantzak". Komunikazio ez bortitzean da aditua psikopedagogoak, eta haur masajearen ere bai, baina gaiak "ikuspegi zabaletik" lantzen dituzte: "Familia barruko kontuen eta bi-

BAZKIDE KOPURUAK BEHERA EGIN DU, "URTE BEREZIAGATIK"; UNE HONETAN, 30 FAMILIA DAUDE

kote harremanen gainean ere jardun izan dugu".

Izena emateko edo argibide gehiagorako, 625 42 31 25 telefono zenbakira deitu daiteke, edo kukumikuelkarte@gmail.com helbidera idatzi.

Irailean erabakitzeak

Une honetan 30 familia dira bazkide Kuku Mikun, "urte berezia" izan delako; aurreko ikasturtean, esaterako, 43 ziren. Irailera begira, Durana kalearen atzeko partean duten egoitzaren atea zabaltzeko gogoz daude. "Iaz egindako asanbladan adostu zen egoera aldatu ahala elkartuko ginela erabakiak hartzeko. Oraindik ez dugu ezer egin, baina egoeraren bilakaera aztertuta irailean erabakiko dugu, nire ustez". Ateak zabaltzearekin batera normaltasuna berreskuratzea da helburua, eta formakuntza saioak eta beste hainbat ikastaro eskaintzea. "Proiektu berriren bat ere badugu esku artean", aurreratu du Garcia Insaustik.

Kultura Sailak bultzada beharra duela uste du EH Bilduk

Andramaixen bueltako ekitaldiak antolatzeko orduan gazteen ekarpenik ez dela jaso adierazi dute

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleako EH Bilduko kideek adierazi dute "dena edo ezer ez" eskema erabili dela azken hilabeteotan eta hori irauli beharra dagoela: "Uste dugu asko ikasi dugula urte honetan eta, agian, zerbait egiteko prest geundela aurten". Penatuta agertu dira San Juan bezperako ekitaldirik egin ez izanaz: "Egoeraren eboluzioa nondik nora joango zen ezin jakin, baina kintoek izan zezaketen hainbat proposamen landu gabe utzi dira".

Eragileen parte-hartzea

Kultura eta herriko bizitza aktibatzeak indarrak batzea ezinbestekoa dela uste dute. Hori horrela, orain dela bi hilabete inguru proposamen zehatz bat egin zutela azaldu dute: "Herriko kolektibo guztiak elkartu eta

udari buelta bat ematea zen helburua. Zertxobait, eta era isolatuan, irten da aurrera proposamen horretatik, baina komunear egindako lanari garrantzia kendu zaio".

Andramaixetara begira jarri dira EH Bilduko kideak eta jailetan inplikaturik egon izan diren eragileak eta norbanakoak kontuan hartzea proposatu dute: "Denok dakigu zein garrantzitsua den gazteen ekarpena, bereziki data horietan, eta ez dira haiek aintzat hartu".

Hori horrela, Kultura Sailari "bultzada berri bat" emateko beharra ikusten dute, "antolatzeko eta egiteko moduak aldatuta eta eragile guztien parte-hartze iraunkorra bermatuta". Gaineratu dute programazioa herriko eragileekin egiten denean hazi egiten dela horren potentzialtasuna.

Eskola Kontseiluak Udala zoriondu du EKKO proiektuagatik

Euskadiko Eskola Kontseiluak Aretxabaleako Udala zoriondu du "hezkuntza arloan duen inplikazioagatik, zehazki egindako ekimenengatik eta EKKO proiektuaren etorkizuneko proposamenengatik". Ikasleen artean gizarte-trebetasunak eskuratze eta garatzeko abian jarritako ekimenari eman dio balioa, "etorkizunearan arrisku-portaerak saihesteko, eskolan, kirolean, komunitatean eta osasunean arreta jarriz erreferentziazko zutabe gisa". Ekimenetan parte hartu duten kirol-elkarteak, familiak eta ikasleak zoriontzeko ere eskatu du. Era berean, Kontseiluak laguntza eskaini dio "hezkuntza-gaiei heltzeko".

EKKO proiektuaren baitan beste urrats bat egingo dute datorren ikasturtean, eta prebentzioa lantzen hasiko dira Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleekin. Horren berri emateko, hain zuzen, bilera egin zuten martitzenean horien gurasoekin.

Euskaraz ulertzen ez dutenendako ikastaroak, urritik

0 mailako euskara ikastaroak antolatu ditu Leintz Udal Euskaltegiak datorren ikasturterako. Helburua da 60 orduan oinarrizko ulermen maila lortzea. Urrian hasi eta otsailera arte iraungo du ikastaroak eta asteen bi saio egingo dituzte, bakoitza bi ordukoa. Interesa dutenek euskaltegiara bertara (943 79 21 68) edo Aretxabaleako Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezakete. Eskolak debalde izango dira.

Ikastaro hori proba pilotu gisa dator, EHUren eta Soziolinguistika Klusterraren eskutik, eta hizkuntzaren ulermenean oinarritutako ikaskuntza-metodologia berri bat probatu nahi dute. Euskaraldiaren bi ekimenetan ulermenean jarri da arreta, baina dinamikan parte hartzerik ez dute izan hainbat lagunek, euskaraz ezer ez ulertzeagatik. Horregatik, pertsona horiei bideratutako ikastaro espezifiko bat egiteko aukera eskainiko da orain, gutxieneko ulermen maila lortzeko.

SANPEDROAK 2021 EZ-JAIK



Beheko Errota musika eskolako bandako kideak kalejirarako prestatzen, Fernando Eskoriatza plazan. I.B.



San Pedro jaien bezperan, txistulariak kalejira egin zuten une batean. I.B.

Ohiko jaiak gogoan, herria kalejirek girotuta

San Pedro bezpera egunean, kalejira eskaini zuten herriko kaleetan Beheko Errota musika eskolako bandako kideek eta Eskoriatzako txistulariek. San Pedro egunean, berriz, txistularien diana izan zen goizean eta bandaren kontzertua arratsaldean

Imanol Beloki ESKORIATZA

San Pedro jairik egon ez den arren, herritarrak gogotsu izan dira egunotan Eskoriatzan. Danborrada, Euskal Jai Eguneko herri bazkaria, buruhandien txirindulari lasterketa eta sanpedroetako ohiko jarduerak ez dira egon, baina izan da ekintzaren bat edo beste, herriko jaiak gogoan izateko eta egitaraurik ez egotearen zapore mingotsari aurre egiteko. Izan ere, joan den zapatuan, zenbait kuadrillak bazkariak egin zituzten, San Pedro jaien baitan, lagunartean elkartuta. Santa Marina

plazan Silitia eta Nhil taldeen musika kontzertuak izan ziren, eta baita presoan aldeko elkarretaratzea bi emanaldien arteko tartean, Fernando Eskoriatza plazan. Horrekin batera, asteon musikak izan du protagonismoa herriko kaleetan.

Kaleak musikaz girotu

San Pedro bezperan, hilaren 28an, Beheko Errota musika eskolako bandaren kalejira izan zen, Fernando Eskoriatza plazatik abiatuta, eta Eskoriatzako txistulariek ere egin zuten euren ibilbidea. San Pedro egunean

ere protagonista berberak izan ziren herrian, jairik ez egon arren San Pedro egunari keinua egiteko. Hori horrela, 10:00etan diana egin zuten Eskoriatzako txistulariek, herritarrak esnatzeko asmoz, eta 18:30ean, berriz, bandaren kontzertua izan zen Santa Marinan.

San Pedro eguneko biharamuna

San Pedro eguneko biharamunean edukiontzia erreta agertu ziren herriko bi gunetan, eta kalteak eragin zizkieten auto bati. Eskoriatzako Udalak gaitzetsi egin zituen "ekintza bandalikoak".



Edukiontzi bat erreta Bolibarrerako errepidean. JON APRAIZ

Eskoriatzako Udalaren gaitzespena

San Pedro eguneko biharamunean, ekintza bandalikoak gaitzetsi zituen Eskoriatzako Udalak. "Ezezagun taldeek su eman zieten Bolibarko errepideko eta Arana kaleko edukiontziei. Ertzaintzaren eta suhiltzaileen esku-hartze azkarraren ondorioz, gauzak ez ziren handiagoak izan, eta edukiontzietako bi bakarrik geratu ziren kiskalita. Publikoki salatu nahi dugu astakeria hau eta eskerrak eman nahi dizkiegu Ertzaintzari eta Foru Aldundiko suhiltzaileei". Kalean edaten dozenaka gazte ere izan zirela salatu du Udalak, eta hori herritarren segurtasunerako legea haustea eta arduragabekeria larria dela gaineratu. Era berean, herritar gehienek jarrera arduratsua eskertu dute: "Eskoriatzarrok egun esanguratsu hauetaz gozatzeko jakin dugu, sanpedroak ezin ospatzeagatik tristuraz, baina erantzukizunez".

The Clayton taldea izango da uztailaren 9an, Santa Marinan

Musikari aramaioarren kontzertua, 22:00etan izango da, eta sarrera, berriz, librea, edukiera guztia bete arte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Uztailaren 9an, *Ostiral musikatuak* izenpean, bi kontzertu izango dira Santa Marina plazan; biak, 22:00etan. Hilaren 9an, The Clayton taldea arituko da; eta uztailaren 16an, aldiz, Trigger, *Polie-*

dro VOL.I lana estreinatzen. Bi emanaldietarako sarrera doakoa eta librea izango dela jakinarazi du Eskoriatzako Udalak, edukiera bete arte.

Aramaioko The Clayton taldeak rock, blues eta punk ukituak

dituen musika egiten du, eta, hasiera batean zuzeneko emanaldirik ez egitea aurreikusten zuten arren, berriki bukatu dute *Phoenix* diskoa grabatzen, eta bertan batu dituzten kantuak eskainiko dituzte Eskoriatzako kontzertuan.

Hilaren 16an, aldiz, biolontxeloarekin bide berriak zabaltzen diharduen Eñaut Zubizarreta musikari aretxabaletarra izango da oholta gainean, biolontxeloarekin beste musika bat egitea posible dela ikustarazten.

'BIZIKletan' proiektuaren aurkezpena

Bici sin edad proiektuko kideek mugikortasun jasagarriaren gaineko aurkezpena egingo dute Ibarraundi museoa, uztailaren 11n. Hain zuzen ere, *BIZIKletan* izeneko proiektuaren berri eman go dute.

Belaunaldien arteko proiektua da *BIZIKletan* egitasmoa; adin nagusikoei begira bizikleta ibilaldiak eskaintzea da helburua,

egokitutako bizikletak baliatuz eta gazte boluntarioen laguntzarekin. Hori horrela, aurkezpena eta tailerra izango da, eta herritar guztiei zuzenduta dago.

Aurkezpenak bi zati izango ditu: teorikoa, batetik, 11:00etatik 14:00etara bitartean izango da; eta erakustaldia, bestetik, 16:00etatik 19:00etara bitartean izango da. Doako saioa izan arren, parte hartu nahi dutenek izen-abizenak bidali beharko dituzte mail@vicvivero.net helbide elektronikora.

"Arre" eta "so" baino gehiago esaten ikasteko

Zaldi gainean aritzen ikasteko hastapeneko zaldi udalekuak antolatu dituzte uztaileko. Lau astez, astegunetan, eskainiko dira saioak, Lete auzoan, eta egun soltea edo aste osoko saioa jasotzeko aukera izango dute interesdunek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Uztaileko astegunetarako udaleku berezi batzuk antolatu dituzte Eskoriatzan, adin guztietako jendeari zuzendutakoak. Hain zuzen ere, zaldi udalekuak eskainiko ditu Yanira Urzelai eskoriatzarrak, Lete auzoan. Aste osokoa edo egun solteko saioa hartu ahal izango da, eta interesdunek 635 77 15 96 telefono zenbakira deitu dezakete, edo yaniraurzelai@arizmendikide.net helbidera idatzi.

Irakaskuntza, jolasen bitartez

"Gaur-gaurkoz, klase solteak ematen ari naiz zaldi gainean aritzen ikasi nahi duten haurrendako, eta, kasu honetan, zenbait jolas ditut prestatuta; oztupoak gainditzea, adibidez. Hala, uztaileko begirako zaldi udalekuetara jendea animatzen bada, oinarrian, zaldi gainean aritzen ikasiko dute, beste zenbait ikasgai orokorrekin batera. Hala ere, horretaz gain, natura



Zaldiekin saioa ematen. YANIRA URZELAI

ingurunean gozatzeko aukera izango da udaleku hauetan, eta, behin zaldi gainean aritzen ondo ikasi ostean, zaldiak hezteaz, salto egiteaz, iraulketaz... ere ikasteko aukera izango dute parte-hartzaileek".

Zabalik dago izen-ematea zaldi gainean aritu nahi duen guztientzako, eta jendea animatzea gustatuko litzaioke Urzelairi, berak dioen moduan, "ederto" pasako dute eta. Letetik Mendiolara bitartean duen txabolan dago egunotan, goizez zein arratsalde zaldiekin, eta "argibiderik nahi duena bertatik pasa daiteke, nahi izanez gero".

Gehienez, sei laguneko taldeak

Uztailearen 5etik 9ra, uztailearen 12tik 16ra, uztailearen 19tik 23ra eta uztailearen 26tik 30era, lau asteko saioak izango dira, 10:00etatik 14:00ak bitartekoak, eta interesdunek izena nahi duten moduan eman ahal izango dute. Horrekin batera, udalekuetarako edukiera muga ere ezarri du Urzelai; gehienez, sei pertsonako taldeak izango direla azpimarratu du. Prezioak, berriz, honako hauek dira: aste-ko ikastaroa 150 euro eta egun bakarrekoa, berriz, 30 euro.

Prebentzioa ardatz, EKKO proiektua aurkeztuko dute

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoren gurasoekin bilera uztailearen 7an egingo da, 18:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

EKKO izeneko prebentzio proiektua prestatu dute hainbat eragilek elkarlanean, eta eskola, kirola, komunitatea eta osasuna batzen ditu; 2010 eta 2011. urte artean jaiotakoekin –Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoren haurrak– landuko dute eta horien gurasoekin bilera egingo dute uztailearen 7an, 18:00etan, Ibarraundin. Interesatuta daudenek izena eman beharko dute, gazteria@eskoriatzas.eus helbidera idatzita edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta.

Nerabeen substantzien kontsumoaren kezka mahai gainean jarri zuten UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak orain dela hiru urte pasatxo, eta ondoren, ikastetxeak eta Eskoriatzako Udala ere batu ziren lantalde horretara. Ordutik hona, lan asko egin dute eta datorren ikasturteko aurrera beste prebentzio proiektu bat jarriko dute abian: EKKO. Proiektu berri horrek gizarte trebetasunak lantzea du helburu; hau da, haurrek nerabe direnean erabaki zuzenak har ditzaten irakastea.

Euskal dantzak ikasteko ikastaroa egingo da uztailean

Beheko Errota Musika Eskolako dantza taldekoek ikasturtea amaitu zuten joan den astean, eta orain, uztailean, helduentzako ikastaroa antolatu dute. Hain zuzen ere, 16 urtetik gorakoei zuzendutako dantza ikastaroa da, eta Joseba Iñurategi pilotalekuan eskainiko dute. Saioak lau asteleheneetan izango dira –uztailearen 5ean, 12an, 19an eta 26an–, 18:30etik 20:00etara bitartean, eta, prezioa 40 euro da.

Izena eman nahi duten interesdunek Beheko Errota Musika Eskolara deitu dezakete, 943 71 49 95 telefono zenbakira, edo mezua idatzi musikesko@hotmail.com helbide elektronikora.



Iaz, meza nagusia San Martin ermita kanpoan egin zuten, aire zabalean. GOIENA

San Martin Eguna ospatuko dute domekan, ermita kanpoan

Meza nagusia 12:30ean izango da eta 13:00etan mokadutxoia izango da gerturatzen diren guztientzat

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Uztailearen 4an, hau da, hileko lehenengo domekan, San Martin eguna ospatuko dute, urtero lez, Gatzagan. Goierri auzoko Zurtitzako San Martin ermitan ospatu izan da beti, baina iaz, kanpoan egin zuten meza, erai-kinaren egoera ere ez baita oso ona, eta aurten ere halaxe egingo dute.

Elizarekin hartu-emanen

"San Martin ermitaren egoera ez da batere ona, eta iaz, erai-kinaren kanpoko belardian egin genuen meza. Hartu-emanetan

gaude Elizarekin ermitaren etorkizuna erabakitzeke, baina ikusiko dugu... Iaz, San Martin egunean, pandemiagatik ez zen jende askorik gerturatu, baina 50-60 lagun inguru batu izan gara, betiere, eguna ospatzeko", adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako Mendietako zinegotziak. "Aspaldi egiten zen doke jolasa ere gure lehen agintaldian berreskuratu genuen, duela sei urte inguru, baina jokoa ez zen egon iazko ospakizunean eta aurten ere ez da izango. Mezarekin eta mokadutxoarekin konformatu beharko dugu".



IMANOL BELOKI

Amaitu dute tuneleko murala

Hiru arratsaldetan batu dira POOK elkarteko artistak Gatzagako gatzetxoekin Labidea alboko tunelean murala egiteko. Tailer teorikoa eta ideia zaparraden saioa egin ostean, lanari ekin zioten, eta eguaztanean amaitu zuten. Gatzetxoek euren sormena lantzeko ariketa gisa izan dute Gurel Guraso Elkartek sustatutako ekintza.

Jar ezazu zure autoa puntu-puntu eta ondo pasa oporrak



ALMACENES LASKAR

a.laskar@laskar.es • www.laskar.es
Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11

GASOIL BANAKETA
OLIOAK (REPSOL)
AD BLUE
OLIO ALDAKETAK
PNEUMATIKOAK ETA
GARBIKETAK



**BERGARA
PNEUMATIKOAK**

Pneumatikoak • Olio aldaketak • Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 76 36 27
bergarapneumatikoak@gmail.com | www.bergarapneumatikoak.com



MARKIEGI autoak



MARKIEGI AUTOAK
Mota guztietako autoen eta
autokarabanan konponketa
lanak egiten ditugu!

Leizeaga, 1 • 943 76 35 09
BERGARA
markiegiautoak@telefonica.net

Garaje Berria

Multimarca

Eskaintza handiak Km 0 eta bigarren eskuko autoetan!

Mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pneumatikoak
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara
fordberria@telefonica.net • www.garajeberrira.com • garajeberrira@gmail.com



**GALLASTEGI MOTORSPORT
APR / VAGSPEED GIPUZKOA**

Mekanika orokorra
Elektronikan adituak
Diagnosi zerbitzuak
Automozioko aholkularitza



Markulete industrialdea
Telleria 4, 5 pab. Arrasate
943 79 73 58 / 670 79 73 58 Reprogramazioko etxeen banatzaile ofiziala



**Mekanika
Elektrizitatea
Mota guztietako
pneumatikoak**

NISSAN Erakusketa eta salmenta:
Amillaga 22, BERGARA • Tel.: 943 76 17 35



**IBABE
GARAIEA**

TXAPA, PINTURA ETA MEKANIKA

Gesalibar auzoa 31 • Tel.: 943 79 99 61 • Faxe: 943 79 13 90



**CITROËN
ION AUTOAK**

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

Amillaga 36, Bergara - Tel.: 943 76 47 49 - *automovilesion@hotmail.com*

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Salmenta eta salmenta osteko
zerbitzu osoa

Murillo Garaiea



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara
www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo

Bateria, argiztapena, aire girotua, iragazkiak,
balaztak, pneumatikoak, olio nibelak...



garaje
Iturrioste

**Pneumatikoak,
mantentze-
lanak...**

Santakurtz plaza 14 • Aramaio
Tel.: 945 44 51 28 - iturrioste@gmail.com



**ARRASATE
AUTOAK**

Mekanika, elektrizitatea,
pneumatikoak,
mantenua,
autodiagnosia,
tapizeriaren garbiketa,
deskarbonizazioa...

Ekutio kalea 4, 31. pab. Arrasate
Tel.: 943 79 97 35 - 670 79 97 35



Amets Berezaio



Salmenta, konponketa mekanikoak, txapa eta pintura

Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77



**GRUPO
EASO
MOTOR**



HYUNDAI 943 79 70 06
MUGARRI 943 79 07 44

San Andres kalea 6,
20500 Arrasate
www.grupoeasomotor.com



CHAPIME TAILERRAK
Detegailuak, Cierre, konponketa eta abar

TXAPIME AUTOAK
Ela eta bitak, txapak eta abar

Abuzluan
goizez
zabalik

Marka guztiak konpontzen ditugu
Autokarabanan mantentze-lanak egiten ditugu
IAT (ITV) aurreko azterketa

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE TEL. 943 79 45 22



DESACRISTAL



BERGARA
AUTOAREN KRISTALDEGIA / LANINA BARRIENAREN INSTALAZIOA

943763609 / 674365742
desacristalbergara@gmail.com
www.desacristal.com

CRISTALBOX

28 urte zuekin



**LENIZ
ESKORIATZA**

KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika

I.A.T. aurreko azterketa

Aingeru Guarda pasealekua 31. • ESKORIATZA
Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10



**BOSCH
Service**

Lagun Garajea

Santalaitz 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 11 20

Zure
zerbitzura!



**OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA**

**TAKOLO
AUTOAK**

Salmenta
Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak

San Andres 10 D • Tlf.: 943 77 30 10

Ez ahaztu!
Deitu zure tailerrera eta
hitzordua eskatu!



Zubietan kalea asteon; kale hori eta Masterreka eraberritzeko lanak, urtea bukatu aurretik martxan. JONE OLABARRIA

Sei hilabete lanei ekiteko, gehienez

Zubietan eta Masterreka kaleak eraberritzeko lanak urtea bukatu aurretik hasteko konpromisoa beteko duela dio Udal Gobernuak; uztailan behin betiko proiektuaren idazketa esleipenera ateratzea eta urrira bitartean exekuzioa adjudikatzea espero dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Urtea bukatu aurretik makinak Zubietan edo Masterreka lanean izatea. Konpromiso hori hartu zuen Udal Gobernuak, eta bete-za espero dutela berretsiz zuten asteleheneko osoko bilkuran. Hori bai, proiektua berrantolatzea erabaki dutela esan zuen Gorka Artola alkateak; adierazi zuen Bergarako Udalean aurretik hartu ez den "neurri singularra" hartu dela obra horretarako. Artolak azaldu zuen 2.400.000 euroko kreditu bat konprometitzen duela Udalak 18 hilabetetarako, "Bergarak behar duen proiektu baterako". Hala, Gobernuak aurreikusten du uztailean idazketa lehiaketara ateratzea, urrira arteko tartean exekuzioa adjudikatzea eta, "dena ondo bidean", lanak urte bukatu aurretik hastea.

EAJ: "Zalantzak ditugu"

Epeak beteko dituztela espero du EH Bilduk. "Sekulako obra izango da eta oso pozik gaude, espero dugulako urte bukaeran hondeamakinak Zubietan egotea lanean; 18 hilabetean aurreikusten ziren hiru fase horiek bateratuta espero dugu Zubietan eraberritu ahal izatea, hiru urtetako aurrekontua konprometituta", adierazi zuen bilkuran EH Bilduko bozeramaile Nagore Iñurrategik. Lanak Zubietan edo Masterrekan hasiko diren zehaztu barik dagoela ere gaineratu zuen Iñurrategik, eta 40 urtean

2.400.000 EUROKO KREDITU BAT KONPROMETITUKO DU UDALAK, 18 HILABETETARAKO

bertan interbentzio esanguratsurik egin ez dela gogora ekarri.

EAJk, kreditu aldaketaren alde bozkatu arren, zalantzan jarri zuen Udal Gobernuak konpromisoa beteko duela; jeltzaleek atzerapena ikusten dute esleipen prozesura begira. "Hiru proiektu zeuden eta orain Gobernuak eskatu duena da hiru proiektuak bateratzea eta bakar bat moduan esleitzea. Hori orain dela hilabete edo bi hilabete egin du, eta urte hasieratik egin zezakeen. Hau da, prozesua azkartu zitezkeen eta, akaso, lehen fasea bukatzeaz izango genuke urte amaierarako. Aurrekontuetan hainbat konpromiso hartu zituzten, eta horietako asko gauzatzeke daude; horregatik zalantzan jartzen ditugu Gobernu honen kudeaketa eta konpromisoen betetzea", esan zuen EAJko eledun Maite Agirrek.



Udaletxean egon ziren zinegotziak, interbentzio telematikoa jarraitzen. A.M.

Bozketa guztiak, aho batez

Aho batez onartu ziren asteleheneko osoko bilkuran bozkatu ziren puntu guztiak; tartean, Labegariaietan gasolindegia bat jarri ahal izateko Udalaren lur eremu bat saltzea (Ikus 29. orria), Udalaren eta Agorrosin Guraso Elkartearen arteko hitzarmena eta ekainaren 28ko Harrotasun Egunaren bueltako adierazpena. Udalak Osintxoko eskola laguntzeko adostu du hitzarmena San Martin Agirre ikastetxeko guraso elkartearekin. Eskola zabalik mantentzea auzoarentako "ezinbestekoa" dela iritzita, bertako zerbitzuak hobetu beharra dagoela uste dute, eta, horretarako, zaintza zerbitzua ematea. Hain zuzen ere, datozen hiru ikasturteetarako 2.250 euroko "dirulaguntza txiki bat" bideratuko du Udalak. "Soralue kooperatiba da zerbitzu berri horren babesle nagusia eta Udalaren izenean eskerrak eman nahi dizkiet", dio Udal Gobernuak bozeramaile Nagore Iñurrategik.

"Udalaren jarduna ezagutzen denean gauza asko ulertzen dira"

ITSASNE LUARIZARISTI EH BILDUKO ZINEGOTZI OHIA

Asteleheneko Itsasne Luarizaristiren azken osoko bilkura izan zen EH Bilduko zinegotzi. Sei urte egin ditu karguan, eta esker on hitzak izan zituen agurrean. EH Bilduk uztailearen 19ko osoko bilkuran jakinaraziko du zein den Luarizaristiren ordezkaria.

Zergatik erabaki duzu zinegotzi kargua lagatzea?

Dedikazio handia eskatzen du. Azken denboraldian ezin heldu nenbilen eta aurreikusten nuen egoerak horrela jarraituko zuela. Hala, onena da lekua beste bati lagatzea.

Ze balorazio egiten duzu?

Udalaren funtzionamenduaz, taldekideez eta lan egiteko moduez asko ikasi dut. Askeroatzen dut sei urteotatik.

Oposizioan eta gobernuan egon zara. Alde handia?

Ezberdinak dira. Bietan lan asko egin beharra dago.



EH BILDU

Gomendatuko zenieke herritarrei? Zergatik?

Zalantza barik. Bizi beharreko esperientzia bat da. Kaletik ez dakigu udal baten barruan zer gertatzen den; erraz egiten dugu berba, baina barruan dagoena jakitean gauza asko ulertzen dira.

Hunkitu egin zara; bereziki, alkatearen berberekin...

Bai... Eskerrak eman nahi dizkiet gaur egungo zein aurreko taldekideei, guztiak asko ikasi dut eta.



Bergarako Indai taldeak Usondo parkean eman zuen kontzertua iazko uztailean; aurten, San Juanen joko dute. INDAI

"Mokaduaren" ostean, "menu osoa" udarako

"Askotariko kultura ekitaldiak" antolatu ditu Udalak, Kultura Mahaiarekin eta herriko kultura taldeekin batera, askotariko lekuetan: Espoioia, Usondo, Errotalde eta Errekalde parkeak eta Labegaraieta, San Lorentzo, San Juan eta Osintxu, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Udaleko Kultura Zerbitzuak "hainbat kultura ekitaldi" antolatu ditu uztaileko eta abuzturako. Kultura Mahaiarekin eta herriko kultura elkarteekin lankidetzan osatu du Udalak kultura egitaraua: "Udaberrian eskainitako kultura mokadua-ren ondorengo menu osoa izango da hau. Izaera askotariko ekimenak, adin tarte ezberdinetako pertsonen begira pentsatutakoak, eta herriko hainbat kokalekutan egingo direnak".

Bandak hilaren 14an joko du

Ondoko taulan iragarritako ekitaldiez aparte, Bergarako Musika Bandak uztailearen 14an emango duen kontzertua nabarmendu beharra dago; joan den domekan, ekainak 27, eman zuen bandak lehen kontzertua, 2020ko urria ezker kontzerturik eman gabe egon ostean. Kalejira egin zuten kontzertu aurretik, eta gero, frontoian jende ugari elkartu zen bandaz

aspaldiko partez gozatzeko; musikariek eurek ere asko gozatu zuten. Pandemiagatik ezin izan dute nahi bezala entseatu, eta horregatik ez zuten "obra zailik" jo; garai honetan oso ohikoa izaten zen, esaterako, *San Martzial estampa* interpretatzea.

Ekainaren 27ko emanaldi berezian sei pieza jo zituzten; tartean, Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori* abesti ezagunaren moldaketa bat, Enrike Txurruka zuzendariak egindakoa.

Txistulari banda ere bueltan

Txistulari banda ere itzuli da kalera eta domeka honetan bertan, San Martzial gogoan, kalejira egingo dute (10:00). Hilaren 18an, Santa Marinako kalejira, 11:00etan udaletzetik hasita Matxiategi edo poligono aldean jarraitu eta Santa Marinako elizan bukatzeko. Uztaileko azken kalejira hilaren 25ean egingo dute, ibilbidea oraindik zehazteke badute ere.

Esnaolaren filma Espoioian

Aire zabaleko zinema emanaldia ere antolatu dute uztailearen 14rako, Espoioian –euria egiten badu, Seminarioko karpán–. *Bergara 1965-1985, Serafin Esnaolaren begirada* filma ikusteko aukera egongo da; Serafin Esnaola apaizak 1965 eta 1985. urteen artean *Super 8* kamerarekin hartutako irudiak oinarri hartuta, Asier Altuna *Kixi*, Migel Angel Elkoroberezibar eta Aitor Alberdi bergararrek elkarlanean sortutako 35 minutuko filma da; ondoren, Charles Chaplinen *Tiempos modernos* emango dute. Gainera, Beartek mural ikastaroa eta Buztinzale elkarteak 6 eta 16 urte artekoendakoa tailerra antolatu dute.

"IZAERA ASKOTARIKO" EMANALDIK ANTOLATU DITUZTE, ADIN TARTE GUZTIAK ASETZEKO ASMOZ

"Kulturaz jositako" uda: egitaraua

Berumuga

- Uztaileak 2 **Malejave (Ikus 40. orria)**.
- Uztaileak 9 **Seda**.
- Uztaileak 16 **Sined Savage & The Flytones**.
- Uztaileak 23 **Josh Hoyer & Soul Colossal**.
- Oharra: kontzertu guztiak Espoioian, 22:00etan.

Usondoko kontzertuak

- Uztaileak 10, 21:30 Rap jaialdia: **Iker Hiriart eta Sady Ayastui, La Basu eta El Negro**.
- Uztaileak 17, 22:00 **On the Go eta Kilimak**.
- Uztaileak 29, 22:00 **Willis Drumond**.

Auzoetako kontzertuak

- Uztaileak 11, 12:00 Labegaraieta: '**Gora Kasete**' umeendako ikuskizuna.
- Uztaileak 13, 19:00 San Lorentzo: **Garagardo dastatzea**. Aldez aurretik eman behar da izena, Udalaren webgunean.
- Uztaileak 24, 18:30 San Juan: **Azkaiter Pelox eta Indai taldeak**.

Errekalde eta Errotalde

- Uztaileak 22, 19:00 Errekaldeko parkea: Tartean teatroren '**Biba Voi: Dario Fo eta Franca Rame Akorduan**' obra.
- Uztaileak 25, 19:00 Errotalde parkea: Trapu zaharra taldearen '**Mesede bat egiteagatik**'.

Abuztuko emanaldiak

- Abuztuak 5, 20:00 Irala: Zirkugintza taldearen '**Zirkoteke**'.
- Abuztuak 26, 19:00 Osintxu: Trakamatraka taldearen '**Matraka ma non troppo**' antzerkia.
- Abuztuak 29, 12:00 Osintxu: Tio Teronen semeak taldea: '**Festamendua**'.

Dolmenen ibilbidea, uztailearen 4an hasita

Aurten ordaindu egin beharko da bisitetan parte hartzeko; bergararrek deskontua dute

J.B. BERGARA

Dolmenen ibilbidera bisita gidatuak datorren astelehenean, uztaileak 4, hasiko dira, euskarazko bisita batekin. Hurrengo bisitak izango dira uztailearen 18an –gaztelera–, abuztuaren 1ean –euskaraz–, abuztuaren 18an –gaztelera–, irailaren 5ean –gaztelera–, urriaren 3an –euskaraz– eta urriaren 16an –euskaraz–. Ohitura denez, bisitak Karakateko aparkalekutik abiatuko dira 10:00etan, eta lau ordu inguruko iraupena izango dute. Antolatzaileek gomendatu dute mendi ibilbideetarako oinetako egokiak, txapela eta eguzkitarako krema, ura eta jateko zerbait eramatea. Dolmenen ibilbidetarako bisitak "kontsolidazio fasean" daudela-eta, aurtengo aldaketa nagusia da bisitak dagoeneko ez direla doakoak izango. Helduentzat bost euroko kostua izango du eta 12 urtetik beherakoentzat, hiru eurokoa. Hori bai, Bergaran, Elgoibarren edo Sorluzen bizi direnek deskontu txiki bat izango dute: helduek 2,5 euro pertsonako eta 12 urtetik beherako hurrek, 1,5 euro. Izena emateko, 657 79 46 77 telefono zenbakira deitu behar da; gutxienez, bi partaide behar dira irteera antolatzeko.

SALGAI

Lursaila
salgai
Uberan
(Bergaran)

695 78 47 96



Udaleko, hiru ikastetxeetako eta Jarduneko ordezkariak, atzean Usondo parkea dutela. AMAIA TXINTXURRETA

Aisialdirako aukera asko uztailean gaztetxoentzat

Udaleku irekiak, kirol campusa, udako igeriketa kanpaina, Laboratoriumeko jarduerak eta Usondo parkeko liburutegia izango dituzte ume eta gaztetxoek uztaileko gozagarri; izen-emateari dagokionez, kirol campusak aurreikuspenak gainditu ditu

Jokin Bereziartua BERGARA

Udalak herriko hiru ikastetxeetako ordezkariekin, gazteleku-koekin eta Jardunekoekin batera antolatu du aurten goizko udarako ume eta gaztetxoendako eskaintza. Udaleku irekiez gain, gazteleku udako jarduerak, kirol campusa, Laboratorium museoan eskainiko dituzten berrikuntzak eta Usondon jarri duten liburutegia izango dituzte gaztetxoek gozagarri.

Eskolak, udalekuengatik zabalik

Astelehenean hasi zituzten udaleku irekiak, 4 eta 12 urte arteko 373 ume eta gaztetxo ari dira parte hartzen eta 50 hezitzaile dituzte alboan (Ikus 2. orria). Osintxun eta Angiozarren ere antolatu dituzte udalekuak. Udalak 95.000 euroko aurrekontua bideratu du aurten udaleku irekietara, eta, elkarlanaren isla, herriko hiru ikastetxeek instalazioak utzi dituzte pandemiara egokitutako udalekuok aurrera eroateko.

Kirol campusaren arrakasta

Nerabeak udako opor garaian daudenean gazteleku "askotariko eskaintza" zabaldu egiten da. Aurten, berrikuntza moduan, aniztasun funtzionala duten gaztetxoendako ere eskaintza espezifikoa sortu du Udalak. Ekainaren 18an hasi ziren udako "eskaintza bereziarekin" eta uztailearen 30era arte iraungo du gazteleku nerabeei begirako eskaintzak. Gaztelekurako, urte osoan zehar, 120.000 euro inguru bideratzen ditu Udalak. Kirol campusa ere martxan dago, ekainaren 21a ezker, eta uztailearen 16ra bitartean 249 ume ari dira Agorrosingo Ekin-tza Gunean askotariko kirol jarduerak gozatzen. Antolatzaile

UZTAILAREN 23RA ARTE LIBURUTEGI ZERBITZUA EGONGO DA USONDO PARKEAN, ASTE BARRUAN

leek azpimarratu zuten aurreikuspen guztiak gainditu dituela izen-emateak, 100 ume inguru espero zituztelako.

Liburutegia Usondon

Udako eskaintzarako beste gune bat izango da Laboratorium. Uztaileko lehen hamabostaldirako antolatu dituzten ekintzen artean, nobedade nagusiak dira saguzarrak hobeto ezagutzeko jarduerak berezi bat eskainiko dutela eta astronauta baten moduan entrenatzeko saioak ere eskainiko dituztela. Laboratoriumeko jardueretarako 5.000 euro bideratu ditu Udalak.

Aurtengo beste nobedade bat da orain arte Agorrosingo igerilekuan jarri ohi zen liburutegia aurten Usondo parkean egongo dela, ahalik eta herritar gehienengana heltzeko asmoz. Uztailearen 23ra arte egongo da liburutegi zerbitzua Usondon, astelehenean egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara.



San Martzialgo ermita atarian atera zuten argazkia, eguaztenez. PEDRO GARITANO

San Martzial: festarik ez aurten ere, eta mezan hamabost lagun

Ekainaren 30ean San Martzialera igotzeko ohitura mantentzen den arren, gero eta herritar gutxiago dira

J.B. BERGARA

Bigarren urtez jarraian ez da erromeriarik izango San Martzialen. Pandemiarik ez balego domeka honetan ospatuko litza-teke hainbat bergarrendako urteko egunik bereziena dena, baina egoera epidemiologikoak ez du oraindik festarik ospatzea eta, beraz, jende pilaketarik izatea ahalbidetzen.

Hamabost lagun bakarrik

Erromeriarik eta parrandarik ere ez da izango aurten, baina 134 urte dituen usadioari eusten dionik bada oraindik Bergaran. Izan ere, ekainaren 30ean, San Martzial eguna, letaniak otoitz eginaz San Martzialera oinez igotzeko ohitura handia zegoen. Aurten ere halaxe egin du adineko herritar talde txiki batek, Jon Molina parrokoa gidari hartuta, baina urtez urte beharantz doa herritar kopuru hori.

80 lagun ere elkartu izan dira garairik oparoenean, eta aurten hamabost lagun bakarrik izan dira. Santa Marina parrokiatik goizean goiz abiatuta, aldapan gora tipi-tapa igo ziren San Martzialera eguaztenez, letaniak abesten.

Aurten meza, sikiera

Iaz, pandemiaren egoera okerragoa zenean, 22 herritar elkartu ziren; Jon Molina parrokoak ezin izan zuen mezarrik eman neurri murriztaileengatik; aurten, meza izan dute, sikiera. "Meza entzuteko aukera izan genuen, eta ostean kanpaiak ere jo genituen", adierazi du ekintzan parte hartzeko ohitura duen Pedro Garitanok. Pandemia aurretik ohitura zen San Joxepe erretiratu elkarteak txokolate-jana prestatzea, baina, pandemiagatik, ez dute egin: "Ea hurrengo urtean egin dezakegun".

Ortu komunitarioak: interesatuek San Joxepe hobetsi dute

Asteleheneko osoko bilkuran EAJk atera zuen ortu komunitarioen gaia, horien kokalekua Bolua zela azpimarratzeko eta lur-jausia gertatu zen eremua egonkortzeko aukera bat galtzen dela adierazteko. EH Bilduk Boluko eta San Joxepeko aukerak jarri zituen mahai gainean interesatuekin batera abiatuta-ko partaidetza prozesuan, eta,

azaldu zuten, egin diren saio irekietan herritarrek San Joxepeko eremua hobetsi dute. "Txosten teknikoak egin dira, eta baita bi saio ireki ere; azken saioan, herritarrek San Joxepeko eremua aukeratu zuten. Epe motzean nahi dute martxan jarri, lur eremu bat izan eta landatzen hasteko". Udal Gobernuaren kronogramak jasotzen duenez, irailera bitartean proiektua idatzi eta araudia onartuko da eta espero dute 2022ko apirilera arteko ortuak martxan izatea.

Algodonera, gertutik, orduko langileen ahotik

1950eko hamarkadatik aurrera Algodoneran lan egin zuten emakumeak omentzea eta haien lana aitortzea helburu duen 'Kotoiaren emakumeak' erakusketa urriaren 10era arte dago ikusgai Laboratoriumen; bisita gidatuetarako izena eman daiteke

Jokin Bereziartua BERGARA

1846an inauguratu zen Algodonera, *Fábrica de hilados, tejidos y estampados de Bergara* izenpean. San Antonion kokatua, garai hartan Bergaran bizi izan zen ehungintza-industria opa-roaren isla zen, herriko lantegi handiena. 300 pertsonak egiten zuten lan orduan Algodoneran eta *Fabrika handia* deitzen zitzaion. 1901ean eman zitzaion Algodonera de San Antonio izena eta, 1950ean industriak sekulako gorakada izan zuenez, lantegiak aldaketa aro bat bizi izan zuen; gaur egun, Evlox da kotoi lantegiaren izena. Marokon dauka ekoizpen planta bat eta bulegoak Bergaran, Madrilen eta Bartzelonan ditu. 1950eko hamarkadaren bueltan kokatzen dira *Kotoiaren emakumeak* erakusketa kontatzen diren bizi istorioak. Erakusketa Laboratoriumen dago, urriaren 10era arte, eta bisita gidatuak ere antolatu dituzte; izena emateko, 943 76 90 03 telefono zenbakira deitu edo laboratorium@bergara.eus helbidera idatzi behar da. Irailetik aurrera ikastetxeetan ere landu nahi dute gaia.

Kotoiarenak, eta ez kotoizkoak *Kotoiaren emakumeak* –eta ez *Kotoizko*– izenburua jarri zion proiektuaren zuzendari eta moda diseinatzaile Fanny Alonsok: "*Kotoizko emakumeak* izendatzea goxoezia zen. Elkarrizketak egin dizkiet eta esan dezaket emakume oso goxoak direla, zerua mezezi dutela. Baina oso emakume langileak eta borrokalaria izan ziren, aitzindariak, fabrika lan egiteaz gain etxean ere lan handia egiten zutelako". Bergaran zortzi emakumeren testigantzak jaso dira, haiek omentzeko asmoz: "Elkarrizketatzen nituen bitartean esan izan zidaten lehen aldia dela norbait gerturatu zaiena, orain arte inor ez dela inor eurretaz akordatu".



Alonso, hiru langile ohirekin: Felisa Mugika, Angela Latorre eta Natividad Agirre. J.B.


Ze oroitzen gordetzen duzu?



FELISA MUGIKA ALGODONERA SAN ANTONIOKO LANGILE OHIA

"Gogorra ez bereziki, baina lan oso jarraitua zen"

"14 urterekin hasi nintzen Algodoneran lanean. Egunean zortzi orduz egiten genuen lan; txanda bat zen 06:00etatik 10:00etara eta 14:00etatik 18:00etara eta beste txanda zen 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 22:00etara. Lana ez zen bereziki gogorra, baina oso jarraian egin beharrekoa zen. Hari guztiak pasatu behar ziren zirrikitu batetik tela balekoa izateko, eta trabatzeko arrisku handia egoten zen. Gogoan dut makina berriak heldu zirela eta horrek lana erraztu zuela. Erakusketa asko gustatu zait".



KRISTINA MARKINA BILOBA, ALGODONERAKO LANGILEENA

"Zauriak praktikanteak osatzen zizkigun umetan"

"Aitonak Algodoneran lan egitea ez zen arraroa, baina amonak erretiratu arte egin zuen lan bertan. Nire amak askotan esan izan du umetan bakardadea gogoratzen duela, ez zuelako anai-arrebarik izan eta bere gurasoek ordu asko egiten zutelako lanean. San Antonion bizi ginen eta Algodonera nire egunerokoaren parte zen; zenbat bizipen... Umetan zauriak egiten genituenean, Algodonerako praktikanteak, lñakik, osatzen zizkigun; oraindik ere orbain bat daukat belaunean, lñakik jositakoa".



Asmoa da Labegaraietara sartzeko biribilgunean gasolindegia bat jartzea. A.M.

Gasolindegia bat egiteko lur eremu bat saldu dute Labegaraietan

Arcelor Mittal ondoan dagoen Udalaren 648 metro koadroko eremua salduko zaio Euskofuel enpresari

J.B. BERGARA

Asteleheneko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak Labegaraietara auzoaren sarreran, Arcelor Mittal lantegiaren parean, Udalarena den lur eremu bat saltzea Euskofuel enpresari, bertan gasolindegia bat jar dezan. EH Bilduko bozeramaile Nagore Iñurrategik azpimarratu du "pozgarria" dela aktibitate ekonomiko berriak martxan jarri ahal izateko eskualdaketa gauzatzea, aktibitate hori beste lekuren batera joateko arriskua dagoela iritzita: "Jarduera posible izan dadin Udalaren jabe-

tzakoak ziren lurak bideratuta utzi ditugu; orain, enpresaren ardura izango da gasolindegia martxan jartzea". Eremu horretan, Udalaren lurrez gain, Diputazioaren eta beste enpresa batzuen lurak ere badaude: "Denon artean aktibitate hori garatzeko baimena eman dugu".

648 metro koadro, 18.468 eurotan Udalaren jabetzako 648 metro koadroko eremua erabiliko luke Euskofuel enpresak bertan gasolindegia jartzeko, eta Udalarena den luraren salmenta 18.468 eurotan egin da.

OHARRAK

Buztinzale elkartearen zeramika ikastaroa

6 eta 16 urte artekoendako ikastaroa antolatu dute. Uztailaren 13an, 15ean, 20an eta 22an izango da, Zabalotegiko Txiki Txokoan. Argibide gehiagorako: 699 09 47 76 (Nerea).

Mural ikastaroa Beart elkartearen eskutik

Uztailaren 5etik 9ra izango da, Ione Larrago irakaslearen eskutik, Bearten egoitzan. Izena emateko: beart.elkartea@gmail.com.

'Iraganera begira' erakusketa Aroztegin

Euskal Urbex argazkilarik elkarteak erakusketa kolektiboa ireki du. Bertan behera utzitako hainbat lekuren gaineko argazkiak ikusteko aukera dago, uztailaren 11ra arte.

Jardun: udako euskarazko postalen lehiaketa

Hamargarren edizioan parte hartzeko azken eguna irailaren 16a da. Argibide gehiagorako: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69.

Hirilur eta Landalur Ondasun Higiezinaren zerga

Gaur, uztailak 2, amaitzen da zerga horretarako 2021eko erreziboak ordaintzeko borondatezko epea. Edozein argibide jasotzeko Bergararren Arreta Zerbitzura jo daiteke.



Martitzenean egindako osoko bilkuran onartu zuten mozioa. MAIALEN SANTOS

Eukaliptoia landatzea, debekatuta Antzuolan

Eukaliptoaren landaketen inguruko moratoria ezartzeko mozioa onartu dute ekaineko osoko bilkuran. Antzuolako lurretan eukaliptoia landatzen hasi den egurzale baten kasuaren ondotik etorri da mozioa, nahiz eta aurretik ere urratsak eginak ziren

Jone Olabarria ANTZUOLA

Antzuolako udalbatzak eukaliptoaren landaketen inguruko moratoria ezartzeko mozioa onartu du asteon, ekaineko ohiko osoko bilkuran. EH Bilduren aldeko bost botoek ahalbidetu zuten mozioa onartzea; izan ere, EAJren hiru botoak eta PSE-EEren bakarra aurkakoak izan ziren.

EH Bilduko zinegotzi Ion Arangurenek adierazi du insignis pinuari eragiten dion banda marroia gaitzak azken urteetan "eragin handia" izan duela Antzuolako pinudiengan: "Eusko Jaurlaritzak enkargatutako txosten batek zehazten duen moduan, eta horri eutsita, eukaliptoak modu negatiboan eragiten du gure ingurune honetan".

"Etekin ekonomikotik harago"

Gaineratu dute debekua ezartzea ez dela "gustuz hartutako erabakia", baina "mehatxu gogorraren aurrean" egin dutela horren aldeko hautua. Uste dute

"alternatiba garbirik" ez duela insignis pinuak, eta azken urteetan balioa galtzen ari dela.

Horretaz gain, "etekin ekonomikotik harago" begiratu behar dela ere badiote: "Eukaliptoaren landaketak kalteak eragingo lituzke herrian; zehazki, iturburuaren gainean landatuko liragiteke, eta horrek kalteak eragingo lituzke herriko ur emarietan".

"Debekua, gehiegizkoa"

EAJk mozioaren aurka bozkatu izanaren arrazoietakoa bat "debekua ezartzea gehiegizkoa" dela azaldu du Miren Elgarresta zinegotziak, eta uste dute "debeku horretara jotzeko Udal Gobernuak erabili dituen arrazoiak" ez direla "aski", euren hitzetan, "nahi-

**"ITURBUEN
GANEAN LANDATUTA
KALTEAK ERAGINGO
LITUZKE HERRIKO UR
EMARIETAN"**

ko sostengurik ez dutelako. Espeziea bera exotikoa izan arren, badaude ebidentzia zientifiko nahikoa inbaditzailea ez dela esaten dutenak. Iruditzen zaigu arazoa abandonuan dagoela; baso kudeaketak beste eredu bat behar du eta uste dugu horretan egin behar dela esfortzua".

Debekatu aurretik, gomendioa

Antzuolako lurretan eukaliptoia landatzen hasi den egurzale baten kasuaren ondotik etorri da mozioa. Baina gogoratu behar da joan den urriko osoko bilkuran hasi zirela urratsak egiten, nahiz eta garai hartan ez zuten debekurik ezarri.

Egungo eta etorkizuneko gizarte eta funtzio ekologikoak "kolokan" jartzen dituela eta Eusko Jaurlaritzari Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa eratu eta eukalipto motak katalogo horretan jasotzeko administrazio-prozedurak berehala ireki zitzaizkion eskatu zitoten orduan.



Gazte mailako taldea, tartean Naia Aranguren eta Miren Legorburu antzuolarrak. A.E.

Domina ugari irabazita itzuli dira herriko gimnastak Euskadikotik

June Legorburu Euskadiko txapelkun izan da senior mailan, pilotarekin, eta gazte mailako taldea laugarren

J.O. ANTZUOLA

Txapelketa gutxiago izan ditu aurtengo denboraldiak eta hitzordu horietako bat izan zen ekainaren 20ean eta 21ean jokatutako Euskadiko amateur txapelketa Ariznoa elkartearen dabilzan gimnasta antzuolarren zatitzaire. Zapatuko saioan, June Legorburuk lehen postua eskuratu zuen, pilotarekin egindako ariketari esker, eta hirugarren sailkatu zen zintarekin. Hala, sailkapen orokorrean bigarren postua eskuratu zuen, senior A mailan.

Lan ona egin zuen Gipuzkoako txapelketan ere, pilotan hirugarren izan zen eta xingolarekin laugarren. Sailkapen orokorrean laugarren sailkatu zen orduan.

Gipuzkoako txapelkun aurretik

Taldeak ariketan, laugarren postuan sailkatu zen gazteen B

mailako taldea. Miren Legorburu eta Naia Aranguren antzuolarrek eta Lierni Azkarate eta Itziar Alberdi bergararrek osatzen duten taldea, hain zuzen.

Maiatzaren 16an egin zuten Gipuzkoako txapelketan itzuli ziren Ariznoa elkartearen gimnastak lehiazera, eta tapizera itzulerara hartan ere Gipuzkoako txapelkun postua eskuratu zuen gazteen B taldeak.

Helburuak finkatuz lanean

Pandemiak eraginda, izan duten "denboraldi arraroa" kontuan hartuta, lehiazera aukera izan dutela, behintzat, azpimarratu du Ainize Lizarralde entrenatzaileak: "Ahal genuen eta ondoen egiten ahalegindu gara, egoerak utzi digunaren arabera lan egin eta entrenatzen. Helburu batzuk finkatu eta horiek lortzeko lan egiteko aukera izan dugu, behintzat, eta ez da gutxi".

Uztailaren 11n egingo dute aurten Antzuola txirringularitza saria

Iñaki Leteren omenezko 75. Antzuola Saria txirringularitza lasterketa jokatuko dute aurten. Peña Aiastuik antolatuta, hain zuzen, uztailaren 11n izango da kirol hitzordua, goizeko bederatzi eta erdietan. Osasun egoera zela eta iaz bertan behe-eratu behar izan zuten proba, baina aurten, Lehendakari probarako puntuagarria den

lasterketa berreskuratzea erabaki dute.

Zehaztu dutenez, gainerako txirringularitza probetarako Federazioak ezarritako segurtasun neurriak jarraituz antolatuko dute lasterketa; tenperatura neurtu eta bide bazterretan ez pilatzeko gomendioa helarazita, besteak beste. Ekainean antolatutako Uzarragako igoeraren esperientzia baliatu eta segurtasuna mantenduz berreskuratu gura du Peña Aiastuik lasterketa.

Uztailean gozatzeko, kultur egitaraua prest

Segurtasuna lehenetsiz, eta iazko ereduari jarraiki, kontzertuak, kale antzerkia, kalejirak edota lore lehiaketa izango dira herrian, besteak beste. Udaletik jai batzordean parte hartu dutenei eskerrak eman eta zentzuz jokatzeko deia luzatu dute

Jone Olabarria ANTZUOLA

Antzuolako jai batzordeak eta Udalak aho batez erabaki dute aurten ere uztaileko jairik ez ospatzea, eta, horren ordez, hilabete osora zabalduko diren ekintzak antolatuko dituzte. Uztailearen 10etik 25era bitartean izango da egitaraua, eta, guztira, hamabost ekitalditan parte har-

tzeko aukera izango dute antzularrek.

Egitaraua antolatzerakoan segurtasuna lehenetsi nahi izan dutela adierazi du Mikel Bargielak, Antzuolako Udaleko Kultura zinegotziak: "Ekintza guztien oinarria seguruak izatea bermatzea izan da, pilaketak ekidin eta neurriak mantenduz".

Emanaldiak, doakoak

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izango da ordaindu beharreko emanaldi bakarra. Patioan egingo dute, datorren zapatuan, gehien jota, 250 lagun- en aurrean. Sarrerak hiru euroko prezioan eskura daitezke plataforman digitalaren bitartez, uztailearen 1etik aurrera.

Pailazoen ikuskizunerako soilik ez, izena aurrez eman behar- ko da orientazio probarako eta patioa kontzertuetarako. Parte hartzeko, www.labur.eus/sarreakantzuela edo liburutegian presentzialki aurkeztu beharko dute herritarrek, uztailearen 1etik aurrera.

Lore lehiaketa, nobedadeekin

Aurreko urteetan epaimahai baten ardura izan da balkoirik balkoi joan eta lorerik ederrenak zituen etxea aukeratzea. Aurten, baina, parte hartu nahi duten herritarrek aurrez izena eman behar dute, uztailearen 1etik 9ra arte. Parte hartzaileen loreei argazkiak atera eta irudi horiek ikusgai jarriko dituzte uztailearen 25ean, herritarrek bozkatu dezaten.

Alardetik ez aurten

Bigarren urtez, aurten ere Mai- ruaren Alardea ez dute egingo, Alardearen Elkartearekin ere adostu ostean. Dena den, udazkenean Alardea egitea posible izango ote den aztertzen ari dira azaldu dute: "Alardearen Elkarteak ondo ikusiko balu eta pandemiaren baldintzak egokiak balira, ez dugu baztertzen Mai- ruaren Alardea udazkenaren bueltan egitea. Berritoki elkartu gura dugu Alardearen Elkarte- ko kideekin, eta aukera hori aztertu".

Zentzuz jokatzeko deia

Abuztuan ekintza kulturalak atsedean hartuko duten arren, irailean berriz bueltatuko direla aurreratuko dute udal ordezkari- rik. Uda garaian zentzuz jokat- zeko dei egin die Udalak herritarrei, eta jai batzordean parte hartu duten herritar guztiei eskerrak eman dizkie.

Kultur egitaraua, egunez egun

Uztailak 10, zapatua

- 10:00 Orientazio jolasa.
- 17:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots, patioan.

Uztailak 15, eguena

- 17:00 Muralgintza. Aiherra-Antzuola murala auzolanean margotzea.
- 19:00 Jaioberriei eta helduenei ongietorria, udaletxean.

Uztailak 16, egubakoitza

- 10:00 Txistulariekin goiz-eresia.
- 11:00-14:00 /16:00-18:00 Puzgarriak eta jolasak, Sagastin.
- 20:00 Sonakayren kontzertua, patioan.

Uztailak 17, zapatua

- 09:55 'Kañoiak sutu!' Txistulariekin goiz-eresia.
- 11:00 Bergarako Banda. Herrian zehar kalejiran.
- 19:00 Kontzertuak: Bulego eta Liher, patioan.

Uztailak 18, domeka

- 12:00 Kale Antzerkia. 'Turistreatzen'.
- 19:00 'Kina-Bingo' plazan, Anelkarrekin.

Uztailak 24, zapatua

- 10:00 Erreka garbitzea, auzolanean.

Uztailak 25, domeka

- 11:00-18:00 Lore lehiaketa erakusketa.



iazko uztaileko kultur egitarauaren baitan antolatuta, kontzertua neurri bereziekin eskolako patioan. IMANOL SORIANO

161 haur udalekuetan

Eguaztenean hasi, eta hilaren 15era arte, udalekuez gozatzeko aukera izango dute 161 haur antzularrek aurten. Adinaren arabera bi txanda egin dituzte; goizez eta neurri bereziekin dabilta. Ekintza ugari antolatu dituzte udan dibertitzeko: jolasak, eskulanak, azken jaia... Guztira, 20 begirale ari dira aurtengo udaleku irekietan lanean.



IDOLAZ

Arazoak ur-parkeko iragazkietan, globoen eta hazi-azalen erruz

Udaren iritsierarekin batera, baina denboraldia abian da Debagoienan, eta Antzuolan, Sagasti auzoan dagoen ur-jolas parkea zabalik dago jada, herri-ko gaztetxoak freska daitezten. COVID-19a dela-eta ezarritako neurriak errespetatu egin behar direla gogorarazi dute Udaletik, eta edukiera eta segurtasun distantzia gorde, nahiz eta aurten

ez den aurretik txandarik hartu behar Sagasti auzoko ur-parkea erabiltzeko.

Bestalde, parkearen erabilera aproposa egiteko dei egin die Udalak herritarrei, eta azken egunetan haziekin (pipak) eta globoekin ur- parkeko iragazkietan izandako arazoak salatuko ditu Antzuolako Udalak sare sozial bidez: "Pipa-azalak direla eta globoak direla, arazoak ditugu ur-parkeko iragazkietan. Gogoratu horiek erabiltzea debekatua dagoela!".

"Bakoitzak izan beharko luke nahi duen modukoa"

Botereak ezartzen dituen identitateez eta gizartean nagusi den genero binarismoaz aritu ziren martitzenean Jon San Vicente eta Markel Ojanguren. 'Boterea, sexualitatea eta Queer teoriak' izeneko hitzaldia egin zuten liburutegian. Bete egin zuten aretoa

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

"Jaiotzen garen unetik askotariko arauak, itxaropenak eta ideiak inposatzen dizkigute nolakoak izan behar dugun ezartzeko, eta botere sistema oso bat dago esaten diguna zer den normala eta zer ez. Gorputz batzuk, bizimodu batzuk... normalak dira, eta beste batzuk kanpoan gelditzen dira", azaldu zuen martitzenean Jon San Vicente ikerlari eibartarrak. Botereak sortzen dituen identitateei buruz aritu zen Markel Ojanguren elgetarrarekin batera. "Identitate horiek, gainera, iraunkor edo estatiko moduan aurkezten dizkigute, baina malguak eta aldakorak dira. Eta eraikiak dira. Zergatik izan behar du pertsona batek, esaterako, une oro heterosexuala edo une oro homosexuala?".

Ikuspegi berriak zabaltzearen premiaz aritu ziren. "Tramite burokratikoetarako, adibidez, genero normatibo batean posizionatzeko eskatzen dizute", esan zuen Ojanguren. "Binarismo eta dikotomia hori apurtu egin behar da".

Bestelako aukerak aldarrikatu

Etiketak gutxiago eta askatasun handiagoa aldarrikatu zuten San Vicentek eta Ojanguren.



Markel Ojanguren eta Jon San Vicente, martitzenean, Elgetako liburutegian. L.Z.L.

ETIKETA GUTXIAGO ETA ASKATASUN HANDIAGOA ALDARRIKATU DUTE IKERLARIK

"Gizon etiketak dakar, esaterako, izan behar dela maskulinoa, heterosexuala, sexu-harreman askorekin, eta, gainera, rol aktiboarekin... Baina zergatik ezin da izan gizon bat femeninoa? Imajinatzen ez dena ez da existitzen eta existitzen ez dena ez da aukera bat. Horregatik da beharrezkoa bestelako aukera batzuk eskaintzea".

titzen eta existitzen ez dena ez da aukera bat. Horregatik da beharrezkoa bestelako aukera batzuk eskaintzea".

Egitekoen zerrenda

Gaia gizarteratzea eta medikuntzak ezarritako identitate normatiboak apurtzea ezinbestekotzat jotzen dute San Vicentek eta Ojanguren. Eta frogatzea identitateak ez direla estatikoak, eta ez dutela zertan normatiboak izan. "Aukera egon beharko litzateke bakoitza izateko berak nahi duen modukoa".



Mariasun Agirre, Carmen Ojanguren eta Rebeka Ubera. L.Z.L.

Ozkarrik antolatuko ditu odol ateratzeak aurrerantzean

Astelehenean egin zuten eskualdatzea orain arteko delegatuek eta aurrerantzean ardura hartuko dutenek

L.Z.L. ELGETA

Maiatz amaieran jakinarazi zuten Mariasun Agirrek eta Carmen Ojangurenerekin erreleboa hartzekoak zirela odol emaileen elkarreko delegatu-lanetan. Astelehenean egin zuten eskualdatzea, eta 39 urteotan odol ateratzeak ahalbidetzen aritutako bi lagunek Ozkarbi elkarreko idazkari Rebeka Uberari pasa zioten esku artean duten materiala eta informazioa. "Lan garrantzitsua egin dute, eta urte askoan. Pena zen hori bertan behera gelditzea", esan zuen Uberak. "Ozkarbiko zuzendaritzan aztertu genuen

gaia, eta erabaki genuen lanari heltzea. Hasiera batean, Ana Gillegik eta biok ekingo diogu". Egitekoen gaineko eta Donostiako koordinatzaileen kontaktuen gaineko informazioa jaso zuen Uberak.

Elkartasun ariketa handia

Irailean izango dira hurrengo odol ateratzeak Elgetan. "Izugarrizko elkartasun ariketa da odola ematea", esan zuen Uberak. "Oso erraza eta garrantzitsua da odola ematea", gaineratu zuten, beste behin, Agirrek eta Ojanguren.

lazko soberakinaren %89,7 bost egitasmotara bideratu du Udalak

Bi handienak dira haur parkeetan jolas berriak jartzea eta udal eraikinetako koadro elektrikoak berritzea

L.Z.L. ELGETA

Elgetako Udalak 102.000 euroko soberakinarekin itxi zuen 2020ko ekitaldia, eta, martitzenean egingako ezohiko osoko bilkuran, diru kopuru horren zati handiena nora bideratu erabaki zuten udalbatzako kideek. Aho batez hartutako erabakia izan zen.

Aurrekontuan aurreikusita dauden hiru diru-lerro handitzeko eta berriak diren beste bi sortzeko 91.555,80 euro izango dira; soberakinaren %89,7. Udal eraikinetako koadro elektrikoak berritzeko 15.597 euroko diru-le-

roa zuen Udalak, eta beste 42.155 euro gehitu dira orain. Kaleen eta parkeen mantentze-lanetarako 8.000 euroko diru-lerroa zegoen aurreikusita, eta 10.000 euroko gehikuntza egin diote. Irigarritasun lanetarako, berriz, 2.400 euro zeuden aitortuta, eta 20.000 gehitu dira.

Berriak diren egitasmoak dira haur parkeetan jolas berriak jartzea. Hain zuzen, horretarako 30.000 euro bideratu ditu Udalak. Udal eraikinetan dauden galderen errebisiorako, berriz, 5.000 euro onartu dituzte.

Material bibliografikoa liburutegian

Askotariko material bibliografikoa izan zen ikusgai liburutegian hitzaldia amaitu ostean. Horien artean ziren Michel Foucault, Anne Fausto-Sterling eta Judith Butler autoreen lanak, besteak beste. San Vicenteren eta Ojanguren saioak interesa sortu zuten. Hogeita bi lagun joan ziren hitzaldira, eta udal liburutegiko edukiera bete egin zen.



Hainbat lagun, hizlariak saiora eramandako liburuekin. L.Z.L.

Dena prest Ferixa Nagusiko ez-jaietarako

Festa kutsurik gabeko asteburua izanagatik ere, ekintzaz betetako egitarauaz gozatu ahalko dute herritarrek; edukiera mugatuko ekitaldietarako momentuan bertan ere hartuko ahalko dira sarrerak; Goiena telebistak saio berezia emitituko du gaur

Hasier Larrea ELGETA

Ferixa Nagusiko jaiak ospatuko ez diren arren, domeka goizean hamasei postuz osatutako azoka jarriko dute ekoizle parte-hartzaileek plazan. Irailean egin-dako herriko ekoizleen azokaren antza edukiko du asteburukoak. "Zirkuitu moduan antolatuko dugu, sarrera jarritz, distantziak mantenduz eta plaza osotasunean hartuz", adierazi du Elgetako Baserritarren batzordeko buruak, Sebas Arantzabalek. Gelak, maskara erabiltzeko seinaleak eta ibilbidea jarraitzeko marrak egongo direla ere aipatu du, gainera.

Hori horrela, herriko ekoizleek baserriko ogia, ezti, artisau garagardoa eta artisau produktua jarriko dituzte erosgai, besteak beste. Debagoieneko baserriarren batek ere ekarriko du jeneroa; Bergarako Ziarrera baserrikoek eta Rakel Perez de Arenaza arrasatearrak, kasu. Txakolin eskaintza Oñati



Gazta saltzailea eta erosleak tratuan, 2019ko azokan. GOIENA

tiko Murgialdaitik etorriko da, eta, eskualdeko sagardogileen faltan, elgoibartar jatorria edukiko du sagardoak.

Baserriko jeneroari dagokionez, azken bi asteak txarrak izan direla azaldu du plazako ferian

egongo den Arantzabalek: "Temperatura hotzen eta hezetasunaren ondorioz, ondo zetozen barazkiak gelditu egin dira". Hala ere, kalabazinak, zerbak, letxugak, patatak eta berotegietako tomateak erosteko aukera

egongo dela ziurtatu du Elgetako ekoizleak.

Sarrerak, momentuan ere bai

Ekintzaz betetako asteburua daukate aurretik herrian. Gaur, puzgarriak, jolasak, harri-jasotzaileak frontoian, meza, bingoa eta trikiti egongo dira egunean zehar; bihar, berriz, dultzaineroak ibiliko dira goizez eta elektrotzaranga Espaloian arratsaldean, jaioberriei harrera egingo zaiela ahaztu gabe; eta domekan, feriaz gain, *Ez da kasualitatea* bertso saioaz gozatzeko aukera eskainiko dute Espaloian.

Harri-jasotzaileen hitzordua, elektrotzaranga eta bertso-saioa edukiera mugatukoak izango direnez, sarrerak aurrez hartu ahalko dira Udalaren webgunean, baina momentuan bertan eskuratzea posible izango dela adierazi du Ane Bilbao, Kultura zinegotziak.

Jatetxeak, "ia beteta"

Ezohiko Ferixa Nagusia izanagatik ere, herrian giro polita egotea espero dute asteburuan zehar, eguraldiak lagunduko duelakoan. Gaurko eta biharko "mugimendu handia" espero dute Elgetako ostalariek euren establezimenduetan. Kuadrillek mahaia erreserbatu dituztela-eta, jateko toki gutxi daude libre astebururako; akaso, ostirala eta zapatua baino lasaiagoa izatea aurreikusten dute domeka. Feriara ere herritarrek eta

inguruko jendea hurbiltzarekin "nahikoa" izango dutela diote ekoizleek, ganadurik egongo ez denez, "ohikoa baino bisitari gutxiagorekin eta lasaiago" ibiliko direlakoan.

Goienak, programa berezia

Elgetarrek asteburua nola bizi duten kontatuko du Goiena telebistak, Maider Arregik gidatutako saioan. Elgetan 30 urtez trikiti eskolak eman dituen Adolfo Jainaga izango du aurkezleak bidelagun, eta, aurreratu duenez, "Elgetako trikiti eta pandero eskolako ikasleek bi pieza joko dituzte".

Jainagaz gain, protagonista izango da urtero mozorrotzeko ohitura handia duen kuadrilla bat, baita aurten harri-jasotze erakustaldia egingo duen Imanol Albizu *Goikoetxe*-k ere. Eta programa borobiltzeko, Unai Cantabrana gazteak pieza bat eskaini eta kalez kale zirikatuko ditu herritarrek Aitor Agirianok, mikroa eskuan.

Ikusteko moduko saioa presatu du Goienak, beraz. Gaur bertan, iluntzean, emitituko da telebistan, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan.

DOMEKA GOIZEKO AZOKAN ELGETAKO EKOIZLEAK ETA BAILARAKOAK EGONGO DIRA

Erretiratuen urteko batzarrak zalantzak utzi ditu airean

53 bazkide inguru batu ziren Espaloian martitzenean. "Zoritzarrez", ez zen batzordekide berririk aurkeztu

H.L. ELGETA

Aurtengo aktak eta diru-kontuak onartu eta gero, Xalbador erretiratuen elkarteko zuzendari-zako kideek "penaz" jaso zuten batzordean sartzeko boluntario-rik ez aurkeztu izana: "Bederatzi kidek osatzen dugu gaur egun, baina, jende berririk agertu ezean, orain daudenek laga egingo dute pixkanaka, hamar urtetik gora baitaramatzate hor sartuta askok", adierazi du elkarteko kide Jose Antonio Ojanguerenek. Erretiratu gazteei animatzeko dei egin diete, bes-

tela "oso garrantzitsuak diren herri mailako ekintzek behera" egingo dutelako. Hori gertatuz gero, berriz ere martxa hartzea "zail" ikusten dute Xalbadorkoek.

Mugitzeko gogotsu

Epe motzera begira, ordea, irteeraren bat egin nahi dute uztaile bukaeran edo irailean, osasun egoera hobera egingen ari dela ikusita. Datorren astean beste bilkura bat egingo dute zer eta nola egin aztertzeko: "Euskal Herriko edo Errioxako txokoren batera joan nahi dugu".

Era berean, udazken aldean hitzaldiak, txokolate-jana, txistorra-jana, Gaztaina Erre Eguna, Aste Kulturala, karta-jokoak eta bingoa antolatzeko gogoz daude Elgetako erretiratuak.

Bi bazkide berri

Espaloian egindako batzarrean elkarte osatzen duten 164 bazkideetatik 53 inguru agertu ziren: "Kopuru polita, kontuan hartuta Ozkarbin egiten genuenean 22 inguru batzen ginela". Are eta pozgarriagoa iruditu zaio Ojangureni jatorri uruguaitarreko bi pertsona agertu izana bileraren erdian, elkarteko bazkide izateko galdezka: "Bi urte daramate hemen bizitzen, eta herrikideekin harremanak sakondu nahi dituzte".

Aurten, gainera, lau bazkide berri sartu dira, beste lau baja izan dira eta.



LARRAITZ ZEBERIO

Punteria zorrotzen

Gaztelekuak antolatuta, Laser Tag saioa egin zuten hamaika neska-mutikok martitzenean. Bi taldetan banatuta punteria eta bestelako gaitasun asko proban jarri zituzten.

Bi taldetan antolatu ziren eta askotariko partidetan nor baino nor gehiago aritu ziren bi ordu iraun zuen jardueran.

Etxebizitzetzi buruz dituzte desadostasun handienak

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra ari da egiten Oñatiko Udala, eta, lanketa horretan, iritzi ezberdinak dituzte udalbatza osatzen duten bi alderdiek. Etxebizitzak non egin, horrek sortu du bien arteko eztabaida handiena. Planaren oinarriak onartu egin dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak onartu zituen Oñatiko udalbatzak joan den astean egindako ekaineko osoko bilkuran. Gai horretan, baina, desadostasun handiak dituzte udalbatza osatzen duten bi alderdiek, eta EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin onartu ziren oinarriak.

Cegasa, Berazao eta Garay

Eztabaida piztu zen alde bien artean puntu horren gainean eta bakoitzak bere argudioak eta iritziak eman zituen botoa eman aurretik. Etxebizitzak inuruan luzatu zen eztabaida, batez ere. Udal Gobernuaren asmoa da Cegasa -250- eta Berazao guneean -190- egitea etxebizitzak. Horrek eskatuko luke toki horietan martxan dauden jarduerak lekualdatzea. Proiektu horiek gauzatzeko urte asko pasa behar direla diote



Autlan enpresa, lehenengo Cegasa, Lizaur kalean. O.E.

jeltzaleek, eta bitartean etxebizitzak arazoa konpondu barik egongo dela. Horren aurrean, Garayko gunea proposatzen du EAJk etxebizitzak egiteko. "Udal Gobernuak aipatutako bi gunehoriek ez ditugu gaizki ikusten,

baina beste plan bat ere behar da, garapen horrek luze joko duelako. Garayko beheko zona da gure proposamena", azaldu zuen Anjel Biain zinegotzi jeltzaleak. Izaro Elorza alkateak esan zuenez, baina, Udal Gober-

nuak ikusten du badaudela moduak etxebizitzak gunehoriek egin beharrean dauden espazioak lehenetsi eta etxebizitzak eraberritzeko: "Beste plan bat egitea da euren proposamena, baina egun planteatuta dagoenarekin Oñatiren beharrari erantzungo liokeen kopuruaren goitik goaz. Saiakera egin behar dugu, hurrengo fasean, ondo aztertzeko gunehoriek eta ditugun planteamenduak bideragarriak diren edo ez. Hasieratik gunehoriekin hasiz gero, egun eraldatu gura ditugun espazio horiek ez dira eraldatuko". Jeltzaleen esanetan, gainera, babetutako etxebizitzak kopurua ere ez litzateke berdina izango gunehoriek batean edo bestean, eta ikusten dute etxebizitzak pribatuak erosteko aukera baino ez zaiela geldituko egungo gazteei.

Industrialdeen azterketa

Ekipamenduak eta herriko industrialdeak ere izan zituzten hizpide udal ordezkariak. Jeltzaleen esanetan, ekipamenduen inguruan ez da ezer landu eta hori ere jaso behar luke plan orokorrak. Industrialdeak ere garrantzitsuak dira EAJrendako, eta horien inguruko zehaztasuna faltan igarri dute orain arte egindako dokumentuan. "Ez dugu lur industrialik ikusten plan honetan", esan zuen Biainek. Gai horri buruzko adostasuna lortu dutela zuzendu zuen alkateak: "Egingo dugu

azterketa bat herriko beharrak zeintzuk diren ikusteko. Hutsik dauden pabiloien diagnosis egin da eta hori ere heldulekua izango da industrialdeen gaiari heltzeko". Ekipamenduen beharra herritarrekin batera landu gura dutela gaineratu zuen Elorzak.

Hurrengo fasean sartu da plana

Orain arteko prozesua ez da ondo egin, jeltzaleen ustez, proposamenen erantzunak berandu jaso dituztela diote eta hasierako dokumentua ez dela batera aldatu, "lehenengo bera" dela. "Hor dator orain arte egindakoa, baina ezin da jaso onartu barik dagoena, eta osoko bilkura honetan onartu dira proposamenen erantzunak", alkatearen erantzuna. Elorzak gaineratu zuen baietz, luze joan dela prozesua, baina lanketa ondo egin dutela eta pandemiak ez diela lagundu gauzak gura bezala egiten.

Plan orokorra idazteko oinarriak onartuta, orain, plana bera definitzen, zehazten, hasiko dira. Udal Gobernuak adierazi du oposizioarekin elkarlanean eta herritarrekin batera egin gura dutela lanketa hori.

OINARRIAK ONARTUTA, PLAN OROKORRA BERA ZEHAZTEN HASIKO DIRA ORAIN

Mugi txartelarekin ordain daitezke herribuseko bidaiak

Oñatiko herribuseko bonuak zituzten herritarrek hilabete izango dute txartel horiek erabiltzeko

O.E. OÑATI

Uztaileko lehen egunetik, hilaren 1etik, erabil daitezke Mugi txartela herribusean. Aspalditik zuen horretarako asmoa Udalak, eta, bere prozesua jarraituta, uztailetik aurrera dira bateragarri Mugi txartela eta Oñatiko herribusa. Herri barruko autobuserako bonuak zituztenek, baina, hilabete izango dute horiek erabiltzeko.

Herribusak herri barruko zein Arantzazuko zerbitzua emateko esleipena egin zuenean Udalak, bidaiak horiek Mugi



Herribusa postetxe parean. O.E.

txartelarekin ordaindu ahal izateko sistema ezartzea zuten buruan udal ordezkariak. Ibilgailuak eurak teknikoki egokitu zituzten lehenengo eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Partzuergoan sartzeko eskaera egin gero. Otsaileko osoko bilkuran onartu zen, aho batez, eskaera hori egitea; ez zen alegaziorik egon. Oñatik 2.200 euroko ekarpena egingo dio Partzuergoari eta Oñatik %0,223ko ordezkartza izango du batzar nagusian. Izaro Elorza izango da Udalaren ordezkaria.

Usakoko udako denboraldia zabaldu zenetik, hara birritan joaten da egunero herribusa: 16:00etan eta 19:30ean Ugarkaldetik irteten diren autobusak. Zerbitzu hori uztailearen 30era arte izango da.

Gaurtik egongo dira aktibatuta Zazpidetako piboteak

Baimendutako ibilgailuak baino ez dira pasako asteburu eta jaiegunetan Zazpideta bidegurutzetik, eta hori ahalbideratuko duen pibote hidraulikoen sistema gaur, egubakoitza, jarriko dute martxan.

Pibote hidraulikoak San Migel parrokiaren parean eta ONCEko postuaren ondoan jarri dituzte, eta bi puntu horietan, baita pibote horien erabilera automatikoki kontrolatuko duten sistema gordetzen duten armairu moduko batzuk. Armairu horien parean, lurtean, kolore zuriko karratu handi batzuk ere badaude, hortik pasa gura duen ibilgailuaren matrikula detektatzeko.

Mobilizazioak hasiko dituzte Stadler enpresako langileek

Eguaztenean bildu ziren Stadler-eko zuzendaritzako eta langileen batzordeko ordezkariak, eta "enpresak iritzi aldatu ez duelako" mobilizazioekin hastea erabaki du, aho batez, bertako langileen enpresa batzordeak, ELAko Eneko Amenabaroren esanetan. Uztailearen 8an, enpresarekin bigarren bilera egingo duten egunean, lau orduko lanuztea egingo dute, hilaren 13an egun osokoa eta 16tik aurrera mugagabea, gauzak aurretik konpontzen ez badira. ELAk salatu du hamabi langile kale-ratu gura dituela enpresak, eta gelditzen direnei %30 jaitzi soldata. Enpresak ez du adierazpenik egin gura izan.



Hainbat ume danborra jotzen plazan, haurren danborradan. GOIENA

Baliteke aurten ekitaldi gehiago izatea jaietan

Haurren danborrada, Artzain Txakur Txapelketa, txosnagunea, bertso saioa eta herriko gazta lehiaketa antolatzea posible ikusten dute, gaur-gaurkoz. Udalak Azoka Kultura Gunea jarriko du berriz, eta eskaintza kulturala antolatu ere bai

Oihana Elortza OÑATI

2020an baino ekitaldi gehiago egongo dira, itxura baten, aurtengo San Migel eta Errosario jaietan. Joan den astean egin zuten bilera jaietako eragileek eta udal ordezkariak, eta ekintzak antolatzeko gogoia adierazi zuten bildu zirenek: danborrada bietako ordezkariak, Artzain Txakur Txapelketakoak, Nekazarien Elkarteak, Oñatz, txosna batzordea, bertso eskola eta Udala.

Umeen danborrada, oraingo

Gaur-gaurkoz, esaterako, geldi egin behar dira danborradak, kalejirarik gabe. Hala, haurren danborradako antolatzaileek aukera horri heldu gura diote eta prest daude modu horretan ere ekintza hori antolatzeko. Nagusien danborradakoak, aldiz, ez dute geldirik egin gura, bileran azaldu zuten moduan.

Txosnak ere itzuliko dira. "Batzordeak jarri gura du txosnagunea, eta, hasiera batean, taberna eta terraza zerbitzuarekin

eskaintza kulturala antolatzea posible den formatu bat da", argitu du Iñaki Olalde, Oñatiko Udaleko Kultura zinegotziak. Txosna batzordekoek oraindik ez dute egitaraurik zehaztu, baina atzo, eguena, ziren egitekoak jaiei begirako bilera irekia.

Azoka Kultura gunea, bai

Udalak aurten ere eskainiko du egitarau kulturala, eta Azoka Kultura Gunea jartzeko asmoa du, joan den urtean bezala. Karpa toki berean jartzea aukera bat da, baina barrakak ekartzea ere aztertzen ari dira, eta oraindik ez dago argi non jarriko duten gune hori. "Egia da, joan den urteko arrakasta ikusita, tamaina handiagoko karpa bat

OLALDEK DIO ORAIN ZENTZUZ JOKATZEAK AHALBIDERATUKO DUELA GERO EGIN GURA DIRENAK EGITEA

ekartzea planteatu dezakegula, edukiera gehiago irabazteko, eta, hasiera baten, tokia joan den urteko bera izango litzateke. Baina hasi gara pentsatzen barrakendako espazioaren bat utzi beharko ote genukeen edo ez, bi urte daramatzate eta geldu. Agian, ez da urteroko barrakak kopurua etorriko, baina aztertzen ari gara zerbait ekartzeko biderik egon daitekeen edo ez", Olalderen esanetan.

Artzain Txakur Txapelketako antolatzaileek posible ikusten dute txapelketa hori egitea, baldin eta Oñatikoaren aurreko saioak egiten badira, Oñatiko finala izaten da eta. Herri Egunean ezingo dira ohiko ekintza jendetsuak egin, baina ez da baztertzen herriko nekazarien produktuen azoka edo gazta txapelketa egitea. Oñatzek ere, bestalde, jaien bueltan egin gura du 50. urteurrena borobiltzeko ekitaldia. Txinparta bertso eskolak ere badu saioaren bat antolatzeko asmoa.

"Jende asko etortzen da agiri bila Bake Epaitegira"

M. KARMEN TELLERIA BAKE EPAILEA

Beste lau urtez izango da Oñatiko bake epailea

O.E. OÑATI


Aurretik ezagutzen du bake epailearen lana Mari Karmen Maritxu Telleria oñatiarrak, gustatzen zaio, eta izaten jarraitzeko aurkeztu zen. Beste lau urtean egingo du lan hori Oñatiko Bake Epaitegian.

Zer lan egiten du bake epaile batek?

Erregistroan sartzen diren jaiotza, heriotza eta ezkontza agiriei sinadura edo baimena eman, esaterako. Tramitazioa, lana, bertako langileek egiten dute eta nik sinatu egiten ditut paperak. Horrez gain, epaieketa txikiak ere kudeatu edo gidatu behar dira; esaterako, bizilagunen arteko liskar txikiak. Hemen adostasunik lortzen ez bada, Bergarako epaitegira bideratzen dira kasuak. Nahiko lan lasaia da, esango nuke arlo judizialaren eta herritarren arteko zubia dela. Jende asko etortzen da, esaterako, agirien bila.

Salaketak jarri daitezke?

Ertzaintzaren edo udaltzainen bidez Bergarako Epaitegira iristen dira horiek. Epaiketara helten diren kasuetan, pertsona horien zitazioak hona iristen dira eta hemendik bidaltzen dizkiegu jakinarazpenak.



Mari Karmen Telleria. O.E.

Ez duzu togarik erabiltzen lanerako, ezta?

Ez, ez. Birritan-edo jantzi dut, norbaitek eskatuta, argazkirako, baina ohiko arropekin egiten dut lan, bai.

Egia da familia-liburua kendu egingo dutela?

Dena digitalizatu behar dute horretarako, eta, horren aurretik, bake epaitegi guztiak informatizatu. Uztailean hasiko ei dira, Madrilen, eta hurrengo urteko azaroan Bartzelonan, baina hemen ez da horrelakorik aurreikusten epe motzean.

GORA ETA BEHERA



Errepidera irten behar erosketekin

"Eroskira eroatera goazenean hau egin behar dugu. Gure osotasuna arriskuan jartzen dugu, errepidera irten behar dugulako. Espaloia moztuta dago", dio herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

"Kontzertu bakoitza abentura txiki bat da"

MAITE LARBURU MUSIKARIA

Eguaztenean, hilaren 7an, Udalak prestatu duen udako kultura agendaren barruan eskainiko du kontzertua Maite Larburuk, Lazarraga lorategian, 19:00etan

Amaia Txintxurreta OÑATI

Biolin-jotzaile klasiko nomada da ogibidez Maite Larburu musikaria. Euskal Herrian Neighbor taldearekin egin zen ezagun. 2019an, *Hezurren azpian* bakar-kako lehenengo diskoa argitaratu zuen, eta horixe aurkeztera etorriko da Oñatira eguaztenean.

Gogotsu zaude Oñatin egingo duzun emanaldirako?

Noski. Kontzertua gauza pozgarria da eta gogoz nago. Batez ere, kuriositatea daukat; kontzertu bakoitza abentura txiki bat da. Beti momentuaren menpean dago; ez dakizu inoiz zer gertatuko den, ez dakizu ikusleria nolakoa izango den, zein aldartetan egongo den, eta, gainera, kanpoan da, eta nik egiten egiten dudana musikarentzat, kanpoan egiten diren kontzertuak nahiko erronkatsuek dira, agian ez delako nire musika dantzaldi bateko musika. Beraz, ikusiko dugu zer-nolako giroa sortzen dugun.

Pandemiak nola eragin du zure ibilbide profesionalen?

Nire lan nagusia azken hamabost urteetan izan da antzinako musika klasiko biolin-jotzailearen ogibidea; beraz, nire lan-zirkuitu guztia Europa erdialdean dago eta hango hainbat talderekin kolaboratzen dut proiektuak. Pasa ditzaket bi aste Herbehereetan, eta gero, astebete Bulgariaren edota tokatzen zaidan lekuan. Pandemiaren ondorioz, bidaia guztiak bertan behera gelditu dira, oso konplikatu bihurtu da beste herrialde batzuetako musikariek edozein lurraldetan elkartzea, eta arlo horretako lana bertan behera gelditu zait.

Baina zure kantu sortzaile ibilbideari esker, hainbat proiektu izan dituzu esku artean, ezta?

Bai, beste lan batzuk sortu zaitkit zero kilometroan. Horietako bat izan da Axut! kolektiboarekin sortu dudana *Amua* antzezlanerako musika. Disko bat ere



Maite Larburu kantugilea. NAGORE LEGARRETA

"DISKOA GRABATU DUT, ETA HORI IRAILEAN ARGITARATZEKO ASMOA DAUKAT"

grabatu dut maiatzean, *Krak* izenekoa, eta hori irailean argitaratzeko asmoa daukat. Beraz, antzezlanarekin, nire kontzertu propioekin, Eñaut Elorrietaren kolaborazioekin, eta abar, lanik ez zait falta izan. Zorionez, emanaldiak baimenduak izan dira hemen, eta, egia esan, beste hainbat lurraldetan baino egoera hobea izan dugula esango nuke. Badakidalako, Iparraldeko lagunengatik, emanaldi guztiak debekatuta egon direla zortzi edo hamar hilabetez hainbat lekutan.

Oñatiko kontzertuan kantu berriak eskainiko duzu?

Disko berriko abestien zuzenekoak abuztuaren prestatuko ditugu; beraz, *Hezurren azpian* laneakoak joko ditugu. Kontzertua kanpoan denez, kantuen aukuraketa martxosoagoa egiten saiatuko naiz, nahiz eta nire

kantuak ez diren dantza egitekoak. Agertokian nirekin batera egongo dira klarinete baxuan Carlos Taroncher eta baterian Karlos Arancegui.

Zer da zuretzat agertokia?

Beste jende multzo handi batekin emozioak partekatzeko gune bat. Askotan azaldu izan dudana moduan, agertokian egotea neure buruarekin ringera salto egitea bezala da, momentu berezia, gogorra ere bai. Musika zuzenean entzutea bezalakorik ez dago; behin gertatzen da eta ez da beste inoiz errepikatzen.

Sarrerak, eskuragarri

Edukiera mugatua izango denez, aurrez hartu beharko dira sarrerak. Doakoak dira eta dagoeneko eskuragarri daude '<https://onatikultura.sacatuentrada.es>' webgunean, Txokolateixan eta Foruen plazako txartel-makinan.



Ganbara Abesbatza, joan den egubakoitzeko kontzertuan, Asentzian. IMANOL SORIANO

la 80.000 euro bideratuko dira herriko kultura sustatzera

Urteko kultur programak sustatu eta sorkuntza-lanak bultzatzeko laguntza eskainiko die Udalak 28 proiekturi

Amaia Txintxurreta OÑATI

Herriko hamahiru taldek urteko programazioa aurrera eramateko 65.737 euro bideratuko ditu Udalak. Partidarik handiena Oñatiko Ganbara Abesbatzak, Hots Abesbatzak, Oñatzek eta Ganbara Kantu Eskolak jasoko dituzte. Beste hauek ere jasoko dute babes: Ilunpetaneko argazkizaleek, Txinparta bertso eskolak, Lizargarateko trikitezaleek, Oñatiko Margo Taldeak, Irazan antzerki guneak, Algaraz Ikuskizun elkarteak, Zizelkatzailleen elkarteak, Zaramarrak eta Nabarraldeak.

Sorkuntzarako, hamabost eskaerak onartu dituzte, 13.868 euroekin. Diskoak grabatzeko, Larru Beltzak eta Valls & Band taldeek, Iker Martinez de Zuazok eta Karmelo Alberdik; Ganbara Kantu Eskolak, ipuin musikatuendako; Ganbara Faktoriak, aldizkariarendako eta musika kanalaren sorrerarako; *Aita* film laburrerako eta Kepa Aranbururen *El imbécil*-erako; argitalpenetan, Hortensia Alcalaren liburuak, Urko Egañarenak, *Lesvos* fanzineak eta Oñatiko sugeen inguruan osatuko denak jasoko dute Udalaren laguntza.

Txirrindularitzako Olakua proba egingo da domeka honetan

Aloña Mendi Kirol Elkarteak txirrindularitza sailekoek, iaz, pandemiagatik, ezin izan zuten antolatu euren lasterketa kutunetako bat den Olakua proba. Aurten, ibilbide berri eta guzti egingo dute domekan 16:30ean.

Legazpi aldera jo beharrean, Bergara eta Arrasaterantz joan beharko dute kadete mailako txirrindulariek 63 kilometro izango dituen ibilbidean. Untzila eta Santipillau igo beharko dituzte lasterketan zehar.

Bertan parte hartuko dute, herriko taldearekin, Haritz Arregi, Alex Beristain eta Markel Zubia txirrindulariek. Guztira, 120 parte-hartzaile inguru espero dituzte antolatzaileek.

Etxegarai eta Oses, pilotako Master Cup txapelketako finalean

Uxue Oses eta Madalen Etxegarai pilotari oñatiarrek Nafarroako Emakume Master Cup txapelketako finala jokatuko dute bihar, zapatua, Iruñeko Nafarroa Arenan, 12:00etan. Martitzenean jokatu zuten finalerdietako partidua bi pilotari oñatiarrek, eta, 18-1 irabazita, finalerako sailkatu dira. Arraiza-Gaminde bikotea izango dute aurkari. ETBk eskainiko du partidua, zuzenean.

Osesek eta Etxegarai 2019an Master Cup txapelketa irabazi zuten, Zumarragan jokatutako finalean. Pilota bigunarekin jokatu zuten orduan, eta orain, Marster Cupeko torneo honetan, mistoarekin ari dira lehiatzen, promes mailan.

DEBAGOIENENKO

OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarra 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-28 / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarra 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

Apustua berretsi du Axpek, urrea irabazita

ATLETISMOA Bi urtez lesioak kateatzen joan eta gero, Maialen Axpek urrezko domina irabazi du Getafen (4,37). Ez da marka pertsonalera gerturatu, baina pozik geratu da, atletismoaren alde egindako apustua berresteko indarra eman dio eta

Xabier Urzelai ARRASATE

Domina batek, eta bereziki urre kolorekoa bada, etapa gorabeheratsu bati amaiera emateko balio dezake. Eta hori dauka buruan Maialen Axpek (Arrasate, 1993). Espainiako txapelkun berriak ez du lortu asteburuan bere marka pertsonaletik gertu egotea (4,50), baina Malen Ruiz de Azua herrikidearekin eta Andrea San Joserekin lehia es-tua izan eta gero –hirurek egin zuten 4,37ko marka–, Bedoñakoa igo zen podiumeko lehenengo koskara. "Halako txapelketetan denok nahi izaten dugu irabazi, garbi dago hori, baina nire helburua gehiago zen sentsazio onak bilatzea, lehenengo marke-tatik gertu egoteko kapaz naizela ikustea eta aire zabaleko denboraldia ondo amaitzea. Izan ere, atletismoaren aldeko apustu garbia egiten duzunean eta funtzionatzen ez duela ikusteko, ia bi urte arazo fisikoe-kin ematen dituzunean, guztia jartzen duzu zalantzan. Eta lehenengo atleta naizela berretsi nahi nuen", dio Axpek.

Bi urte zail izan ditu

Gorabehera handiko bi urte izan ditu Maialen Axpek, eta bereziki 2019a oso gazi-gozoa izan zen. Pista estalian izugarri ondo hasi



Axpe, zapatuan Getafeko hitzorduan saltoa egiteko gertu. TDP

zuen denboraldia, inoizko sentsazio onenekin. Espainiako Txapelketan marka pertsonala egin zuen (4,50) eta horrek Glasgow jokatu zuten Europako Txapelketarako txartela eman zion –han ez zen finalerako sailkatu–. Zuhurtasunez esaten zuen Olinpiar Jokoetan egotea posible ikusten zuela, bazekien zaila izango zela, baina hor zuen ametsa. 2019ko udan, baina, Italian egin zuten txapelketa batean zorigaitzoko erorikoa izan zuen, eta hori izan zen ondoren izan dituen arazo askoren iturburua.

"Saltoa txarto egin eta koltxonetara beharrean oldar-kutxara erori nintzen [atletak inpultsoa hartzeko orduan oldar-kutxan sartzen du pertikaren punta. Metalezkoa izaten da]. Eroriko txarra izan zen eta orkatila bihurritu nuen". Eta orduan hasi zuen hilabete askotako gurutze-bidea.

Laguntza psikologikoarekin

Lesioa egin berritan, bi hilabetez Madrilen geratu zen Axpe. "Orkatila errekuiperatzeko tratamendu hasi nuen han, baina ez nuen

inongo aurrerapausorik ikusten, eta, lagun batzuek gomendatuta, Tolosara etorri nintzen, bertako fisioterapia zentro batera. Eta hor bai, hor asmatu egin zuten, baina tarte laburrean beste lesio batzuk azaldu zitzaizkidan. Oin azpian fisura lehenengo, aurrerago hernia diskala... Momentu horiek gogorak izaten dira kirolari batendako, egiten ari zaren apustua kolokan ikusten duzulako, dena jartzen duzulako zalantzan". Min horiek guztiak, baina, ez ziren fisikoak soilik. "Italiako erorikoaren ondoren, salto egiteko beldurra barruraino sartu zitzaidan, osterera ere min hartzeko beldurra nuen. Saltoak egiterakoan konfiantza erabat galdu nuen neure buruarengan, eta beste prozesu bat abiatu nuen. Zorionez, laguntza psikologikoa eskatu nuen hori guztia kudeatzen ikasteko, eta oso-oso lagungarri izan da. Beldurra nola kudeatu ikasteko, lesioen ondoren izandako bolada txarra gainditzeko, bizitza beste perspektiba batekin ikusteko... Egia da horrelakoetan kosta egiten zaigula psikologoarengana joan garela esatea, baina niretako oso lagungarria izan da".

Psikologoaren laguntza, baina, koronabirusak ekarri zuen itxialdiaren ondoren etorri zen. "Bai; seguruenik, itxialdian denok eskertuko genuen laguntza apur bat, baita nik ere. Gogoan dut poliki-poliki errekuiperatzen nabilela eta txukun samar entrenatzen nabilela, eta etxean geratu behar izate horrek erabat eten zuen errekuiperazio prozesua. Nik saltoak pilotzen joateko beharra neukan, udako txapelketetarako ondo egon nahi nuen, eta ez nuen salto egiterik. Etxean ariketak egin, ez genuen besterik egiteko aukerarik".

Bizipen horietatik guztietatik ikasten saiatu da Axpe, eta batutako esperientziak eta egindako lanak osterera ere Espainiako txapelketan urrea janztera eraman dute: "Saria izan da, benetan. Hala ere, beldurrek hor jarraitzen dute eta horien kontra borrokan jarraitu behar da. Esaterako, zapatuan finalean geundela, nire aurrean atleta bat [Bartzelonako Andrea San Jose] koltxonetatik kanpora erori zen, eta min hartu zuen. Hor osterera ere maniak azaltzen dira, duela bi urteko erorikoko oroitzapenak. Eta horiek kudeatu egin behar dira, pentsamendu negatibo horiek baztertu eta txapelketan osterera ere zentratu. Horregatik nago pozik txapelketa horretan lortu dudarekin".

Atletismora "engantxatuta"

Hain zuzen, aire zabaleko denboraldia ondo amaituta, atletismoaren aldeko apustuarekin jarraituko du Bedoñakoa: "Jabetzen naiz kirol honetara oso *engantxatuta* nagoela oraindik [Barre], izugarri gustatzen zait pertika-saltoa eta uste dut erretiroa hartzeko aurrerago ere izango dudala denbora. Orain, atsedean apur bat hartuko dugu, baina ezin gara pasatu, ondoren hasia gehiago kostatzen zaigulako [Barre]. Hala, abuztu erdi inguruan osterera ere entrenamendu saioekin hasiko naiz, pista estaliko denboraldia prestatze aldera".

"ITALIAKO ERORIKOAK SORTUTAKO BELDURRAK PSIKOLOGO BATEKIN LANDU DITUT"

Zapore ezberdineko brontzea Fernandezek eta Ruiz de Azuak

ATLETISMOA Getafen podiumera igo ziren biak ala biak, baina dominak ez du balio berbera biendako

X.U. ARRASATE

Arrasateko atletak denetariko emaitzak batu zituzten joan den astean, eta goian aipatutako Maialen Axperen urrezko dominarekin batera Realeko atleta Ibai Fernandez izan zen pozik

geratu zen beste ordezkarietako bat. Madrilen ikasten dabilen arrasatearrak brontzezko domina irabazi zuen 4x100 errelebo lasterketan.

Domina berbera lortu zuen, baita ere, Malen Ruiz de Azuak

pertika-saltoan (4,37), baina arrasatearra sasoi puntu politetan zegoen eta marka pertsonaletik gertuago (4,47) egotea zuen helburu, eta, posible bazen, 4,50eko langa gainditzea. Ez zuen, baina, nahi moduko txapelketa egin, eta atsedean hartu barik Suitzarako bidea hartu zuen Madrildik, han izan zuen eta martitzenean Olinpiar Jokoetan egon ahal izateko puntu gehiago batzeko beste hitzordu bat; azkena, kasu honetan. Eguraldi txarrak baldintzatutako proba izan zen (4,11),



Ibai Fernandez, Getafen. I.F.

euria egin zuen, eta lehen ere Tokion egotea zail bazuen, azken bi txapelketetako emaitzek ez dute askorik lagundu. Hala, uztailean 10ean euskal selekzioarekin izango du azken hitzordua.

Bestalde, Eneko Carrascal eta Istar Dapena zazpigarren sailkatu ziren, nor bere modalitatean. Salto hirukoitzean Carrascalek 15,47ko marka egin zuen –Europako 23 urtez azpikoen txapelketarako txartela dauka– eta pertikarekin Dapenak 5,25eko marka egin zuen.

"Bizikleta elektrikoaren kontrakoa nintzen ni ere"

ADIRAN JURADO BH TEAM TALDEKO ENBAXADOREA

MENDIKO BIZIKLETA Aretxabaletarrak Espainiako Openerako puntuagarria den Puropirineo enduro lasterketa irabazi zuen domekan, e-bike modalitatean

Xabier Urzelai ARRASATE

Ohiko bizikletarekin beharrean, Aretxabaletako pilotuak (1987) bizikleta elektriko batekin –BH Xtep– hartu zuen esku domekan Puropirineo proban, Castejon de Sos-en (Huesca). Eta maila berrian egin duen debutean, podiumeko lehen koskara igo da.

Garaipena debutean, ez da marka makala...

Bai; oso gustura geratu nintzen. Lehenengo jaitsieran 30 segundoko aldea atera nion atzetik zetorrenari. Hori alde handia da. Eta, ondoren, abantaila hori kudeatzen ibili nintzen, askorik arriskatu barik. Garaipena positiboa izan da, baina baita ikustea ohiko bizikletekin zebiltzanak ez zirela askoz ere azkarragoak. Test oso ona izan da.

Izan ere, markak hor dabilta inbertsioa egiten, elektrikoetan.

Bizikleta elektrikoak dira BH etxearen indarguneetako bat. Eta helburuetako bat bazen modelo hau muturrera eramatea,



Adiran Jurado, Puropirineroko probako helmugan, BH Xtep bizikletarekin. A.J.

lasterketa bateko baldintzetan probatzea.

E-bike batekin errazago igotzen dira aldapak, baina jaitsieretan pisutsuagoak dira.

Bai; enduroko proba batean e-bike batekin azkar joateko,

fisikoki indartsu egon behar da, gerritik gora, bereziki. Izan ere, bizikleta pisutsuagoak dira. Bestalde, jaitsieretan, tarteka, aldapa gora laburrak jartzen dizkigute, eta hor, elektrikoak 25 kilometro ordura mugatuta

daude eta bizikleta normalekin esprint bat azkarrago egiten da. Hor ere denbora galtzen da. Noski, tramu batetik besterako tartekak e-bike batekin askoz hobeto egiten dira.

Bizikleta elektrikoaren iraultza nabarmena da, saldu ere horiek egiten dituzte gehien. Baina lasterketan zelan hartu ditu jendeak?

Egia esan, ni neu hasieran ere bizikleta elektrikoaren kontrakoa nintzen, ez nien niretako zentzurik ikusten. Baina sekulako aurrerapausoa da. Batetik, fisikoki horren indartsu ez dagoen jendeak bizikletaz goza dezakeelako; edo pertsona nagusiek, esaterako. Baina ez hori bakarrik: bizikleta honen filosofia da jaitsierak gustatuz gero, goiz batean bizikleta normal batekin baino gehiago goza daitekeela; izan ere, aldapa gora ez da horrenbesteko esfortzurik egin behar izango eta goiz batean jaitsiera gehiago egin ahal izango dira. Eta, bestalde, bizikleta elektrikoarekin 200 taupadatarra jarri dut bihotza; nahi izanez gero, ariketa fisikoa berdin-berdin egin daiteke.

Espainiako Openerako lehenengo hitzordua izan da Castejon de Sos-ekoa. Egutegi osoa egiteko asmoa duzu?

Ikusiko dugu; izan ere, urteko helburu nagusia Transnomad proba bizikleta elektrikoarekin egitea da –urriaren 5etik 10era–. Astebeteko proba gogorra da, han bideak ez daude prestatuta,

2.000 metrotik gora ibiliko gara eta mendiko bidexka teknikoak izango dira nagusi. Hau da, tar-te batzuk oinez egin beharko ditugu, eta bizikleta elektrikoarekin egitea erronka izango da. Bada, lokatza badago, gusturago ibiliko gara! Kar, kar, kar.

Noiz da Openerako hurrengo proba?

Irailaren 4ko eta 5eko asteburuan izango da hurrengo, eta test egokia izan daiteke Transnomad-erako. Okerrena da Openerako hirugarrena urriaren 3an dela, Galizian, eta pare bat egun baino ez nituzke izango atsedean hartu eta Pirinioetara joateko, urriaren 5ean hasiko da eta Transnomad. Horregatik, sailkapenaren arabera joango naiz erabakitzen Openera zer egin.

E-bikearekin egiten dituzten lasterketak baliagarriak izango dira bizikletak garatzen joateko...

Bai; bereziki, bizikleta elektrikoetan oraindik aurrerapauso handiak egin daitezkeelako. Motor txikiagoak erabili, bizikleten geometriak eta baterien iraupenak hobetu... BHn, esaterako, iazko modelotik aurtengora bizikleta asko hobetu dute. Aurrerapauso handiak etorriko dira urte gutxian.

"HELBURUA DA TRANSNOMAD BIZIKLETA ELEKTRIKOAREKIN EGITEA, URRIAN"



A.MURUA

Lehenengo mailakoan txapela

PILOTA Zapatuan jokatu zuten, Amezketan, Udaberri txapelketako finala –lehenengo mailakoa–, eta debagoiendarrak nabarmendu egin ziren bertako pilotarien kontra. Izan ere, Soraluzeko klubarekin jokatzen dabiren Ander Murua arrasatearra eta Manex

Balardi antzuolarrak ondo irabazi zuten (8-22). Murua eta Balardi oso indartsu kantxaratu ziren, hasi orduko 0-15 aurreratu ziren eta; horrek ia erabakita utzi zuen finala. Balardik peloteoan dominatu egin zuen, eta Muruak tantoak ondo amaitu.



I.SORIANO

Etxeko zaleen aurrean, gainera

PILOTA Aritz Rezustak eta Mikel Etxezarretak 22-18 irabazi zieten, Udaberri txapelketako finalean –bigarren mailan–, Legazpiko Telleriari eta Agirriari. Bergarako klubeko ordezkariak –Etxezarreta arrasatearra da– etxean jokatu zuten finala, eta, gainera, aspaldiko partez, zaleek pilotalekuko harmailetan jarraitu ahal izan zuten norgehiagoka.

Malevaje taldearen tango maltzurra Espoloian

Uztaileko egubakoitzetarako Udalak Gaztelupeko Hotsak-en laguntzarekin antolatutako duen Berumuga ekimena zabalduko du gaur, 22:00etan, Madrilgo eskarmentu handiko musika taldeak; sarrera dohainik da, baina edukiera mugatua izango da

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Madrilgo movida-ren garaian sortutako taldea da Malevaje; Antonio Bartrina, Fernango Gilabertek, Ramon Godesek eta Edi Clavok –Gabinete Caligari– abiatutakoa, 1984an. Tangoa izan da taldearen ikur eta arima, eta, hamasei disko bizkar-gainean, hala dela berresten dute.

Hirukote formatuan jarduten dute egun: Bartrina –ahotsa–, Gilabert –kontrabaxuan– eta Fernando Giardini –gitarra eta bandoneona–. Hiru kontzertu egingo dituzte datozen egunotan Euskal Herrian: Bergaran izango dira gaur, Soraluzean bihar eta Ermuan domekan. "Ilusio handiarekin gaude berriz jotzen hasteko, eta, are gehiago, Euskal Herrian, non beti oso gustura egon garen eta ondo hartuak izan garen. Orain dela bizpahiru urte izan ginen azkenekoz. Orokorrean, lur horietako oroitzen politak ditugu", esan du Antonio Bartrinak.

Tangoarekin maiteminduta

Taldearen hastapenetan, apenas zegoen tango doinuak egiten zituen talderik, rocka indartsu jotzen hasi zen garaia ziren. "Rocka aurkitu aurretik hasi nintzen tangoa entzuten, eta 16 urte inguru nituela hasi nintzen



Fernando Giardini, Antonio Bartrina eta Fernando Gilabert. MALEVAJE

kantuen hitzak ulertzen, eta orduan harrapatu ninduen tangoak, oso gauza gogorak eta hil ala bizikoak esaten zituztelako. Carlos Gardel zen gurerara heltzen zen estilo horretako musikari bakarra, eta ondoren ezagutu nuen Carlos Acuña, nire aitaren lagun handia izan zena", dio abeslariak.

Tangoaren hilezkortasuna defendatu dute beti, konposizioak modernizatuz; izan ere, "betiko sentimenduak" abesteko modu propioa izan dute hastapenetatik. "Tango berezi samarra zen

hasieran egiten genuena, eta oso azkar joan zen dena. Osvaldo Larrea ezagutzeko aukera izan genuen gero, eta esango nuke harekin tango "tangoa" egiten hasi ginela, eta, hortik abiatuta, dena aldatzen joan zen. Uste dut gure diskoak eta ikuskizunak oso ezberdinak direla elkarren artean, baina gure izaera galdu barik".

'Vino amargo' lanarekin
Malevaje "helduaroan dago", gozatu eta gozatzeko garaian daudela gaineratu du taldeko

liderrak: "Egindako bidea luzea izan da, dagoeneko 37 urte, eta uste dut, beti errespetuz, baina musikalki nahi duguna egiteko unean gaudela. Publiko zabala-arentzako izan dira beti gure kontzertuak, ez dago gure musikarako publiko zehatzik. Zor-tea izan dugu gure emanaldietan familia bereko hiru belaunaldi elkarrekin ikusita".

Vino amargo izena du orain zuzenean eskaintzen ari diren ikuskizunak. Herriko musikari egindako omenaldia da, tango interpretatzeaz gainera, besteak beste, frantziar-kantuari eta flamenkoari ere tokia eginda. "Musikari oso garrantzitsu batek egin zidan proposamen batetik sortu zen *Vino amargo* proiektua. Nik aukeratutako askotariko estiloetako kantuekin bere orkestrarekin disko bat grabatzea proposatu zidan. Aukeraketa hori egin nuen, baina Ameriketako Estatu Batuetatik deitu zioten gizon horri gero, eta, ondorioz, bertan behera geratu zen gure ekimena. Hala ere, aurrera egitea erabaki nuen, eta nire modura eta nire jendearekin osatu nuen lan berria".

Aurre-salmentarik ez

Berumugako emanaldi guztiak (Ikus 27. orria) dohainik dira, baina edukiera mugatua dute, eserlekuak bete bitartean, ez dute eta aurrez gonbidapenik banatuko. Bihar, Soraluzean egingo duten kontzerturako sarrera, berriz, bost eurotan dago.

**37 URTEKO BIDEAN
HAMASEI DISKO
ARGITARATUTA,
"GOZATZEKO UNEAN"
DAGO MALEVAJE**

Carlos Nuñez Arantzazuko Santutegian izango da

Beethovenek sortutako estilo zeltako askotariko obrak interpretatuko dituzte abuztuaren 20an

A. Aranburuzabala OÑATI

Donostiako Musika Hamabostaldien 82. edizioa egingo dute abuztuaren 1etik 27ra bitartean; 75 ekitaldi batzen ditu aurtengo egitarauak; horietako bat da abuztuaren 20an Arantzazuko Santutegian egingo dutena.

Musikahamabostaldia.eus atarian eskuragarri daude sarrerak.

Beethovenen omenez

Konpositorearen jaiotzaren 250. urteurrena aintzat hartuta, musika klasikoaren eta folkorearen arteko fusioa izango den *Celtic Beethoven* emanaldia eskainiko dute Arantzazuko Santutegian. "Beethovenek sortutako irlandar, eskoziar edo galestar melodietan oinarritutako obrak interpretatuko dituzte; izan ere, ia 200 abesti egin zituen eta beste hainbat obra egiteko inspirazioa eman zioten doinu horiek. Horren adibide da *Zazpigarren Sinfonia* musika zeltaren tradizioetatik ikasitako baliabidez osatuta dagoela", azaldu dute antolatzaileek.

Carlos Nuñez gaiteroak gidatuko du emanaldia, eta alboan izango ditu Pancho Alvarez –gitarra eta harpa–, Xurxo Nuñez –perkusioa–, Maria Ryan –ahotsa eta biolina– eta Isabel Perez Dobarro –pianoa–.

'EUSKAL KULTUR TRANSMISIOA'

GOIENA TELEBISTA

UZTAILAREN 8AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
KULTURA, BERTATIK BERTARA: ARANTZAZU ETA IRUÑEA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



"Euskal Herrian ez da egin halako auzolanik"

PATXI BISQUERT AKTOREA ETA ZINEMA EKOIZLEA

Pello Mari Otaño bertsolariaren bizitzan oinarritutako 'Ombuaren itzala' film luzea auzolanean egiteko asmoa du; atzo, eguena, Bergaran izan zen ekimena aurkezten

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Abuztuan Argentinan grabatze-ko asmoa dute eta datorren udaberrian Euskal Herrian; aurrekontuari aurre egiteko laguntzaile bila ari dira.
Noiz eta zerk bultzatuta abiatu zenuen ekimen hori?

Uda honetan hamar urte izango dira Koldo Izagirrerekin lehen bilera egin nuela Pello Mari Otañori buruzko istorio bat idazteko proposatzeko. Proiektua onartu zuen eta gidoia lantzen hasi zen. Hasierako ideia dokumental dramatizatu bat egitea zen, baina garaiko irudi eta material gutxi genuela konturatu ginen –Argentinara egin zuen azken bidaiako albiste batzuk besterik ez–, eta fikziozko film luze bat egitea hobetsi genuen, garaiko giroa aztertuta eta bere idazkiak erabiltuta.

Laguntza bila hasi zineten orduan, ekimena erakundeei aurkezten, baina herrigintzan egitearen aldeko apustua egin zenuten gero; zergatik?

ETBk hasierako proiektua onartu zuen, baina zuzendaritza taldea aldatu zuten gero, eta talde horrek atzera egin zuen. Oztopo handiak izan genituen, eta auzolanean egitea erabaki genuen; hortaz, bi erreminta erabiliko ditugu filmak eskatzen duen aurrekontua –750.000 euro– lortzeko: batetik, herrigintza. Horretarako, 30.000 zinema-sarrerera ateratu ditugu eta horiek saltzen ari gara, hamar euro bakoitzeko. Eta, bestetik, kultura-mezenasgoaren bidez ere lagundu daiteke proiektua.

Zelako harrera ari zarete jasotzen? Urriaren 8an abiatu genuen aurkezpen bira, Zizurkilén; dagoeneko 60 herritan izan gara eta beste horrenbestetara joateko asmoa dugu. Lau zutabetan planteatzen dugu auzolana: udalekin –aurkezpenak egiteko azpiegitura utzi eta herriko eragileekin zubi-lanak egiteko–;



Patxi Bisquert, 'Ombuaren itzala' filmaren triptikoarekin. 'PLAENTXIA.EUS'

"OTAÑO DAGOKION TOKIAN JARRIKO DUGU HERRIGINTZAN EGINGO DUGUN FILMAREKIN"

eskola publikoko eta ikastoletako ordezkariarekin –sarrerak banatzen eta saltzen lagunduko digute– eta hedabideekin.

Zelan hartu daiteke parte?

Pellomariotanoauzolana.eus atarian dago sarrerak erosteko aukera eta hor dago herrietako salmenta-tokien zerrenda ere.

